



LEHEN MAILAKO OSASUN ARRETA EZINEAN

Argi mintzatu dira Doneztebe, Elizondo, Leitza eta Lesakako osasun zentroetako arduradunak: «gainkarga handiarekin» ari dira, «profesionalak falta» dituzte eta «nekatuta daude». / 10

Ahoa bizi eta belarriak prest

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingen da Euskaraldiaren bigarren edizioa, euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko ariketa. / 13

SINADURAK



Pilotan egiten ari den ibilbidea hizpide Irantzu Etxebeste beratarrearekin / 8



Lesakako Beti Gazte elkarteko presidente izendatu dute Ander Abuin / 18



Azpilketako Fermin Barazabal bere 1.200 kiloko behiaz solasean / 69



ZOKETA / 84

BERA LESACA

Agenda 2020

AZAROA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

14
LARUNBATA

BERA

10:00-13:30 Beralandetan

14
LARUNBATA

BERA

19:00 Kultur Etxean Sarrera: 4€

15
IGANDEA

LESACA

18:30 Harriandoan

22
IGANDEA

BERA

18:00 Kultur Etxean Sarrera: 3€

MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA

IKUS-ENTZUNEZKOA TESTURA

Ander Mujika, Felix Buff, Johannes Buff eta Maialen Belaustegi

BIDEO EMANALDIA HIRU ALDIZ EUSKARA

Lesaka UEMA sartuko dela eta bideo aurkezpena.

Mikel Leitza eta Lesakako Euskara Batzordea.

BERAKO XXII. KAFE ANTZERKI ZIKLOA

ANTZERKIA ZUTUBERRAK

Olatz Pagaldai, Jon Zubiaga eta Urko Olazabal


(Eidabe ekimen kulturalak)

7-14 urte

Iraupena: 55 min

18:00 Kultur Etxean Sarrera: 3€

Antolatzailea: Berako Zuzkara Batzordea





NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Bertakoaren bermea

Urteak dira Leitzako kale nagusian zuhaitzak landatu zirela. Udal langileak basozainekin mendira joan ziren, otso-lizarrak, urkiak eta lizarrak zainetatik atera eta kale nagusian sartu zituzten. Ados, ez ziren landare ikusgarrienak aukeratu. Platanondoak, indi-gaztainak edo magnolioak ere sartu zitezkeen. Baina, ez. Bertako zuhaitz arruntak hobetsi zituzten.

Ederki egina! Gure herriko kale nagusiko zuhaitzek urtero ematen dituzte fruituak eta horiek hazia zabaltzeak ez dakar inolako arazorik, bertakoak direlako. Kanpoko espezieek bertako espezieei lekua kentzen diete, eta batzuk hazia zabalduz inbaditzaile bihurtu dira eta ingurumen arazo oso larriak sortu dituzte gure eskualdean bertan.

Gainera, kanpoko espezieak ekartzeak kanpoko gaitzak ekartzeko arriskua du. Hala gaixotu ziren zumarrak edo gaztainondoak, besteak beste. Har ditzagun kontuan ingurumen irizpideak zuhaitzak landatzerako orduan. Honezkero ohartuta behar genuke kanpotik etorritako gaitzekin bromarik ez dagoela!

«KANPOKO ESPEZIEAK KANPOKO GAITZAK EKARTZEKO ARRISKUA DU»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Negazionista!

Ez dakit bada, mendira onddo bila joateko musukoa paratzea derrigorrezkoa izan beharko litzatekeen... Erran badut erran, mahai inguruko begirada guztiak nire gainean iltzatuak sumatu ditut. *Negazionista!* bota dit batek, eta solas horrek Trumpzale amorratu, terraplanista sutsu, Jehovaharen lekuko edota adinekoen hiltzaile daramazki bere baitan. Guttienez.

NABARMENTZEKOAK



**EKHIÑE
ZAPIAIN**
BERTSOLARIA



**DIONISIO
MUJIKA**
HILBERRIA

Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren 34. edizioa irabazi zuen beratarak urriaren 30ean Etxarri Aranatzan. Julio Sotok jantzi zion txapela. Bertso onenaren saria ere eraman zuen.

Nafarroan ia desagertuta zegoen bertsolaritza suspertzeko lanetan Lesakan Paulo Yantzi Sariketa sustatu zuen bertsolari, bertsozale eta gai-jartzailea zendu zen azaroaren 1ean.

ATZERA BEGIRA



2010-11-11 · TTIPI-TTAPA · 530 zk.

Udalbiltzaren aurkako epaiketa hizpide

2003an abiatu zuten Udalbiltzaren aurkako polizia operazioa, eta zazpi urte eta erdiren buruan, 2010eko uztailean hasi eta urriaren 26an bukatu zen epaiketa. Epaituen artean zeuden Jasone Astibia eta Oskar Goñi, Zubietta eta Berako zinegotzi ohiak eta Udalbiltzako Batzorde Eragile kide izandakoak. Hamarna urteko kartzela zigorra eskatu zuen fiskalak eta sententziaren esperoan zeuden. «Judizialki epaiketa irabazi dugu, baina indar politikoak erabakiko du epaia», zioten aho batez. «Gure defentsak maisuki erakutsi zuen gezurrezko gaztelu bat egin zutela, eta gaztelu hori osatzeko zeuden harriak banan bana bota zituen», aipatu zigun Goñik. Astibia, berriz, «argi ikusi da elkarlanean sekulako aurrerapausoak eman ditugula».



erran.eus

TOKIKOM

Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Aranbxa eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana
Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari
Barriola, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Aranbxa Iturralde,
Aranbxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberría.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Sempereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarteak

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€





KOLABORAZIOAK

MIREN KARMELE GOMEZ GARMENDIA

Zientrak eta lentziak

Maite dut ikastea. Baita prozesu hori inoiz bukatuko ez dela ulertzea ere. Gogoan dut, gaztetxo nintzelarik, baten batek gelan galdetu zuela: «Eta zuek zer egingen duzue, Zientziak edo Letrak?». Nik ez nuen galdera ulertzen, baina segidan jakin nuen horietako bat hautatzeko bidean nintzela, eta bide horrek, nolabait, nire etorkizuna *baldintzatuko* zuela.

Gaiak bi aukerekin soilik sailkatzen ditugunean, badirudi bata edo bertzea bakarrik hauta dezakezula, eta okerrena dena, hautatu ez duzun horren gaineko interesa zerora jaitsi ahal dela. Azken finean, ardura daitezela bertzeak, bertze aukera hautatu dutenak... Horrekin guztiarekin batera, *Plaf!*, badatoz estereotipoak. Sinplifikatuz, letrak sentiberentzat direla, memorizatzeko gaitasun handia dutenentzat ere... Eta zientziak, aldiz, matematiketan onak direnentzat, praktikoak direnentzat.

Ez nabil txikitan bizitakoei buruz bakarrik ari. Aitzinekoan, bilera batean, *excel* programarekin kontu batzuk goiti-beheiti, parte-hartzaile batek bertzeari erraten zion «egin zuk eragiketa, ni letretakoa naiz». Bertze batean, idazteko gogo gehiegirik ez zuen pertsona batek bertzeari erran zion, «Egingen duzu zuk bloga, ezta? Ni zientzietakoa naiz». Zientzietakoa edo Letretakoa diogula erraterakoan, kontrako

«MUNDUA ULERTZE-KO ETA IKASTEKO NIK BUFFET LIBREA NAHI DUT»

ikasketa-planetan ia ez diren ezagutzen, eta hori pixkanaka aldatzen joatea komeni da. Etorkizuneko lanbide aunitz oraindik sortzeaz daude, eta aipatu bi alor horien lankidetzaz eskatuko zaie etorkizuneko langileei. Adimen artifiziala, erraterako, ate joka dugu. Urrun ikusten duzue? Ba al dakizue robot bat ez garela aitortzeko ordenagailuan letra-zenbaki kode aldrebesa *-captcha-* sartzen dugun bakoitzean adimen artifizialeko makina bat entrenatzen dugula? Makina horren ikasteko prozesuan parte hartzen dugula?

Ikasterakoan ez dira ezagutzak, edukiak, jaso behar bakarrik. Horien kontestua jakiteak zeharo aberasten du ikasteko prozesua. Maite dut ikastea. Baita prozesu hori inoiz bukatuko ez dela ulertzea ere, ikastea ez delako azterketa baterako prestatzeko ibilbidea, norbera aberasteko bidea baizik. Ez diet estereotipoei etorkizuna baldintzatzen utziko, mundua ulertzeko eta ikasteko nik buffet librea nahi dut, Lentziak eta Zientrak.

diziplinen inguruko ardurak gure gain hartuko ez ditugula erran nahi du? Nire ustetan, ikuspegi hori mundua erdizka ulertzeko hautua da.

Zientzia-jakintza eta Jakintza-humanistikoa bateragarriak dira, nahiz eta,



MAIALEN BELARRA ENETERREAGA

Eman besarkada euskarari

Orain dela bizpahiru aste Osasuna futbol taldeak mende bat bete zuen. Ez naiz bereziki futbolzale amorratua, baina nafarra naiz, eta oraingoan gutako aunitzen haserrea piztu dute. Mendeurrena ospatzeko zer eta gaztelania hutsean dagoen abestia sortu dute. Nafarroan, euskararen herrian; gaztelaniaz. *Osasuna valiente, juega con ilusión* dio abestiak, baina nik koldar samarrak izan direla erranen nuke.

Ez dira koldar bakarrak, zoritxarrez. EITBk zuzendari berria dauka, Andoni Aldekoa, EAJk eta PSEk aukeratua. Baina ETBko erredakzio kontseiluak salatu zuenez, Aldekoak ez du euskara behar bertze menderatzen. Nola da posible euskal irrati eta telebista publikoko zuzendariak euskara ez jakitea?

Era berean, sare sozialetan maiz izaten ditugu gaztelaniatik gaizki euskaratutako hainbat kartel. Txistetzat hartzen dituzte aunitzek, baina ez dute inolako graziaz. Hor argi uzten dute erakunde eta enpresa horiek ez diotela inolako errespeturik euskarari. Eta hori iraingarria da. Politikari aunitzek euskaraz hitz egitean zer erraten ari diren ez jakitea bezain iraingarria. Edo inguruko osasun etxeetan pediatria edo ginekologo euskaldunak ez izatea bezain iraingarria.

Hala ere, gure zilborretara begiratzea ere beharrezkoa dela uste dut. Aldizkari honetan duela gutti irakurri nuen bezala,

«ASKATASUNA HAIN MUGATUA DAGOENEAN ERE EGIN DEZAGUN EUSKARAZ»

gure egunerokoan euskara maskotekin eta seme-alabekin erabiltzeko hizkuntza bilakatu da aunitzentzat. Gu ere erosotasunean alfer bilakatu gara, eta hein batean, koldar. Batzuetan badirudi azkar ahanztu dugula

gure gurasoen egindako ahalegin izugarria. Non gelditu dira haien borroka eta militantzia? Euskara berriz ikasteko hautua egin zuten; euskara biziberritzeko eta erabiltzeko erabaki politikoa hartu zuten. Eta inoiz ez diet behar adina eskertuko haien kemena eta borroka. Garbi dago agintariekin ez digutela deus oparituko; gu gara aitzinekoen ereindakoa jaso eta ondorengoei haziak prest utzi behar dizkiegunak.

Ate joka dugu berriz ere Euskaraldia; aprobeitza dezagun aukera. Prest izan belarriak, eta bizi-bizi ahoa, gure hizkuntzak behar gaitu eta. *Etxean eta kalean, berdin-berdin jolasean*. Gure askatasuna hain mugatua dagoen honetan ere, egin dezagun euskaraz. Jolastu, aldarrikatu, kantatu nahiz maitatu euskaraz. *Dakitenek erabiliz, eta ez dakitenek ikasiz*, hori delako bidea.

Baina ez dadila bi asteko anekdotatzat hartu; alda ditzagun gure ohiturak, gure konfort-eremutik ipurdia altxa, eta egin dezagun jauzi euskararen besoetara, euskarak ez baitu koronabirusik.

11 GALDERA LABUR

LOREA ARROABARREN GAZTE ELIZONDOARRA

«Norberak bere burua onartu eta maitatzen ikasi behar dugu»

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Neska lasai eta alaia, nere lagun eta familiagatik edozer egiteko prest dagoena.

Zein dira zure zaletasunak?

Zaletasun anitz ditut, baina batez ere, artearekin lotutako zaletasunak ditut: argazkilaritza, bideogintza nahiz bideo-edizioa.

Nondik datorriz argazkilaritzarako zaletasuna?

Nik uste familiatik heldu zaidala. Umetan amatxiren etxean zegoen aitaixiren kamera zahararekin jolastea gustatzen zitzaidan. Koxkorragoa nintzenean, izeba eta amarekin bideoak egin eta editatzen ibiltzen nintzen.

Afizioa ofizio bilakatu nahi zenuke?

Hori litzateke nire ametsa! Ikasketak helburu horrekin egin nituen. Urte bat Madrilén egin nuen eta Iruñean bukatu.

Zergatik hautatu zenuen Madrilén ikastea?

Herri txiki batean aterata nahi nuen eta nere burua gehiago ezagutu. Gainera, Madrilén argazkilaritza ikasi nahi dutenentzat aukera zabala eskaintzen du.

Zer du Elizondok Madrilén ez duena?

Madrilén lan eskaintza handia da, bertan egiten dira pelikula gehienak. Elizondo, aldiz, nere etxea da, bertan daude nere lagun nahiz familia.

Argazkilaritza edo bideogintza?

Aukeran argazkilaritza nahia- go. Argazkilaritzarekin harre-



man estuagoa sortu dezakezu pertsonarekin eta zu ere proiektuaren zati bilakatzen zara.

Argazkiak ateratzeko leku bat hautatu beharko bazenu?

Edozein lekuk bere xarma du, baina bat aukeratzekotan Bertiz aukeratu nuke.

Nori gustatuko litzazuke argazki bat ateratzea?

Bertze garai batean jaio izan baldin banintzen Queen taldeko kideei argazki sesio bat egitea gustatuko litzaidake.

Photoshopa erabiltzearen aldeko zara?

Orokorrean ez. Norberak bere burua onartu eta maitatzen ikasi behar dugu. Gure gizar- tean gorputz normatibo batzuk nagusitzen dira, eta hauetatik aldentzen diren gainerako gorputzak ez dira onartzen.

Amets bat?

Buruan beti bueltaka hainbat gauza izaten ditut, baina, hauek nerretzat gordetzea gustatzen zaizkit!



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

Funda nordiko eta edredoietan espezialistak



IRAKURLEAK MINTZO

Nafarroako Kutxa Fundazioa eta euskara, harreman gutxi

JOSEBA OTANO VILLANUEVA

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

Nafarroako Kutxa Fundazioa fundazio pribatu bat da, irabazi asmorik gabea. Bere jardun eremua, gizarte, ekonomia eta kultur garapena bultzatzea da. Nafarroako Kutxaren ekintza sozialerako dirua kudeatzen du, hau Caixabank-en akzioen % 1en jabe izatearen ondorioz. Fundazio pribatu berezia da, Nafarroako Gobernuak (5), Nafarroako Parlamentuak (3) eta Iruñeko Udalak (1) izendatutako pertsonen osatzen duten patronatuak gidatzen baitu eta instituzio hauek beren jardunean, zeharkakoa izanda ere, izaera publikoko irizpideekin jarduteko behartuta baitaude. Horrexegatik, Nafarroako Kutxaren Fundazioak egiten duen euskararen erabilera zaindu beharrekoa da, erakunde pribatuei eska dakiekeen erantzukizuna gainditzaren baitu. Udarako ekitaldi eta ikastaroetan euskararen presentzia hutsaren hurrengo izan da (*Oihane*ko erregearen emanaldi bat eta *Pontxaren ipuin magikoak* saioa besterik ez). Udazkenerako euskarazko ekitaldietan ditugu ipuinen bi saio, liburu aurkezpen bat eta euskarazko mintzatalde bat. Saio eta ikastaro ugari antolatzen ditu Nafarroako Kutxa Fundazioak eta erran daiteke gaztelania dutela ardatz, euskara apaingarri hutsala baino gutxiago izanik. Eta hala ere, fundazioaren hainbat ildoren artean hor du presentzia gehien. Gauzak hala izanik, gera bedi argi, bederen, gure taldearen salaketa, egoera aldatze

aldera, euskaldunontzako agertoki hobearen bila.

Duintasunagatik Mikelen alde

JOXEAN IRIZAR, IÑIGO IPARRAGIRRE, JOXE MARI AIZPITARTE, URKO GOROSTIDI, IÑIGO BAIGORRI ETA ASIER ELIZEGI

MENDIALDEA MANKOMUNITATEKO HONDAKIN BILKETA-KO LANGILEAK

Mendialdea Mankomunitateko hondakin bilketako langileek gure desadostasuna adierazi nahi dugu zuzendaritzaren jarreraren aurrean. 2010ean Mankomunitatea sortu zutenetik, langileok gure lan baldintza prekarioak eta lan osasun eta arriskuen inguruan zeuden gabeziak zuzentzeko borrokatu behar izan dugu. Aurrez Nafarroan sortuak ziren beste mankomunitateetako langileen lan baldintzak berdintzen saiatu gara. Bide horretan langileon delegatuak eskatu behar izan ditu neurriak gabezi horiek zuzentzeko, bai Nafarroako Osasun Publikoko Institutuari kontsultak eginez bai eta LAB sindikatuko beste delegatuei laguntza eskatuz. Zuzendaritzatik ez da bide horretan borondaterik izan, oztopoak baizik. Zoritzarrez oraindik ere asko dira zuzentzeko dauden gabeziak. Orain berriz lan hauetan jardun den langileon delegatua kaleratzeko prozesu planifikatu eta biziatu baten aurrean aurkitzen gara. Hori dela eta argi utzi nahi dugu ez gaudela inola ere ados Mikel Berekoetxea kaleratzeko zuzendaritzaren jarrerarekin eta berak eginiko lana goraipatzen dugula. Kaleratze proposamena bertan behera uztea eta espediente artxibatzea ESKATZEN DUGU.

BOTA BERTSOA

AINHOA
ZABALETA
IRIBARREN
GOIZUETAKO
BERTSOLARIA



Baserriaren beherakada

Doinua: Aita izena kanta beharrak

Koronabirusa gora eta baserria, berriz, behera industrializazioa da gizarte honen joera makinek ez dute izerdirik artzai on baten antzera zeinen zaila den egun jendeak lan haxe baloratzera eta gero elikadurataz erabat kexatzen gera.

Goizuetak baserriarekin zeukan harreman sakona bertan ezagutu bait ditugu atona eta amona baina egun dugun egoera ez da ez batere ona laguntza gutxi, oztopo asko lanbide hontan dagona bihotz bihotzez baserritarrei besarkada, zoriona.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA
info@ttipi.eus



948 63 54 58

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

ZERGATIK EZ ZARA JOANEN? ***ZERGATIK EZ.**

* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Galdetzailea da *zergatik*, eta, ez da egokia erantzunetan erabiltzeko, ez baiezko ez ezezko erantzunetan. Galdetzaile horri dagokion erantzuna galdegaia denez, -(e)lako egitura dagokio normalean.

-Zergatik zoaz? ***Zergatik bai!** > Nahi dudalako.

-Zergatik ez zoaz? ***Zergatik ez!** > Ez dudalako nahi.

Onargarriak dira, jakina, bertze aukera hauek ere:

-Zergatik zoaz? Hargatik... Horregatik...

Ezezko modura emaniko galderetan, ordea, badu tokia:

-Bihar ez naiz lanera joanen.


-Zergatik?

-Zergatik ez [naiz lanera joanen, ba]?

Bitxikeriak

Asmatu hieroglifikoa

Logale handia duenarendako...



Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Zein da zuzena?



***Oposaketak** ala oposizioak?



Gaur egun, sarritan, espainierazko <-ción> eta frantseseko <-tion> bukaeraren partez, euskaraz *-keta* atzikia erabiltzen da sistematikoki. Batzuetan, hala ere, ez da egokia. Maileguetan hobe da bertze bide batzuk hautatzea: erraterako, *-zio* edo *-t(z)e* aditz-izena.

Hona hemen adibide batzuk:

a) **-zio**. *-keta* baino egokiagoa da zenbaitetan hitz berri mailegatuetan.

***baloraketa**
> balorazio

***ebaluaketa**
> ebaluazio

***oposaketa**
> oposizio

b) **-pen** edo/eta **aditz-izenaren** alde egin du Euskaltzaindiak bertze kasu batzuetan:

***desagerketa**
> desagerpen,
desagertze

***artxibaketa**
> artxibatze

***errepikaketa**
> errepikapen

d) Bertze irtenbide bat ere ematen du bertze batzuetan:

***lapurketa**
> lapurreta

***gainbegiraketa**
> gainbegiratu

***erabilketa**
> erabilera



Esku pilota «berdintasunerako pausoak ematen eta hazten» ikusi nahiko luke Etxebestek. UTZITAKOA

«Guztiontzako lekua dago eta denen beharra du esku pilotak»

IRANTZU ETXEBESTE IANTZI BERA KO PILOTARIA

Hogei urteko etenaren ondotik, joan den urtean berriz ere esku pilotan hastea erabaki zuen Irantzu Etxebestek. Ordutik, txapelketa batetik bertzerara dabil

N.BAZTERRIKA | BERA

Zelaian edo pilotalekuan, beti kirol munduan ibili izan da Irantzu Etxebeste (Bera, 1987). Futbolearen hamasei bat urtez aritu zen; esku pilotan, berriz, haurtzarotik 12 urteak arte: «neskok ez genuen elkarren berri izaten eta esku pilotan emakumezkoentzat segidarik ez zegoenez utzi egin nuen...». Joan den urtean, «ezagun batzuk ari zirela ikusita» berriz takoak janztea eta «probatzea» erabaki zuen. Hasi bazen hasi, punta-puntan dabil: Master Cup txapelketan finalerdietaraino ailegatu zen eta Plazandreak saioan txapela jantzi zuen. Gustura dabil, eta halaxe segitu nahi du, «partidaz partida gozatuz eta nire maila

emanez». Pausoz pauso, emakumezkoen pilota «hedatu eta loratzea» nahi luke eta, bide horretan, probatu nahi dutenei deia egin die: «herrietako pilota eskoletan eta Nafarroan biltzen garen pilotariokin entrenatzeko eta jokatzeko aukera duzue».

Futbolearen ibili zinen. Noiz hasi zinen eta noiz arte aritu zinen?

Gazterik hasi nintzen, 10 urte ingururekin. Kontxa hondartzako txapelketan jokatzeko

genuen. Gerora, 15 bat urterekin, desagertzeaz zegoen talde hori eta Lesakako Beti Gaztera joan ginen Berako futbolari gazte andana. Zazpi edo zortzi denboraldi jokatu nituen eta hortik Oiarzango futbol taldera egin nuen salto, bertze borts denboraldiz aritu nintzen han. 26 urterekin bukatu nuen nire futbol ibilbidea. Futbolak jende aunitz ezagutzeko, lagunak egiteko eta esperientzia hagit

«GARAI BATEAN ESKU PILOTAK EZ ZUEN SEGIDARIK EMAKUMEENTZAT»

«EMAKUMEZKO PILOTARIAK BIGARREN MAILAN IKUSTEN DIRA»

politikak bizitzeko aukera eman dit. Lan eginez gero, aunitz hobetu daitekeela erakutsi dit. Hainbat mailatan ibili naiz eta denetan txapelketa bat edo bertze irabazteko zortea izan dugunez, sarien goxoa ere probatu dut. Oro har, egunerokoan kirola eginez gozatzeko aukera eman dit futbolak.

Futbolaren ondotik edo aitzinetik probatu zenuen esku pilota?

Berez, pilotan futbolaren aitzinetik edo futbolarekin batera ibili naiz. Haurra nintzela, frontoian pilotan aritzen nintzen, baita txapelketetan ere, baina 12 urte ingururekin pilota uzteko erabakia hartu nuen. Futbolearen segitu nuen. Orain, pilotara bueltatu naiz. Badira urte batzuk emakume pilotariak lehiatzen, bidea egiten, hasiak direla. Emakume pilotariak ikusita, joan den urtean probatzera animatu nintzen eta, nahiko ongi moldatu nintzen, aitzinera egitea erabaki nuen.

Nondik heldu zaizu baterako eta bertzerako zaletasuna?

Kirolerako zaletasuna etxetik jaso dudala erranen nuke. Kirola aunitz segitu dugu titikatik, bai futbola baita pilota ere. Eta denbora librean anaiekin eta lagunekin kirolean aritzen nintzen gehienetan, auzoko plazan edo eskolan.

Gazterik hasi zinen pilotan jokatzeko... Hala ere, 12 urte zenituela utzi egin zenuen. Zure erabakia izan zen edo halabeharrez utzi behar izan zenuen?

Momentu horretan, mutilen eta nesken artean, indarrari dagokionez, aldea nabaritzen hasten da, eta ezinezkoa zen beraiekin lehiatzea. Hala ere, uste dut erabaki hori berez etorri zela. Pilotan ari ginen neskok ez genuen elkarren berririk eta garai horretan esku pilota munduak ez zuen segidarik guretzat. **Emakume Master Cup txapelketan berriz ere zeure txokoa harrapatu duzu. Tartean, jokatzeko segitu duzu?** Niretzako esperientzia berezia izan da, ilusio handia sortu didana. Ahal nuen heinean, nire ekarpena egin nahi nion kirol honi. Lehenbiziko txapelketaz

geroztik ez naiz gelditu eta txapelketak bata bertzearen gibeletik jokatzen ari naiz. Orain pilota goxotik pilota mistora saltoa egin dugu, eta pilotariok buru-belarri ari gara prestatzen, partida politak eskaintzeko asmoz.

Nola animatu zinen txapelketan izena ematera?

Ezagun batzuk nituen tartean dagoeneko pilotan ari zirenak, horiek ikusiz eta etxean familiakoek animatuta –beraien ustez jokatze gaitasuna banelako– eman nuen izena. 20 urteren buruan pilotan hastea ez nuen erraza ikusten... Baina poliki-poliki eskua egitea lortu nuen eta lehenbiziko txapelketa horretan ederki disfrutatu nuen, inongo presiorik gabe. **Iaz jokatu zenuen lehenbiziko txapelketan final-laurdenetaraino ailegatu zinen... Nolako esperientzia izan zen?**

Hagitz polita, sekulako giroa dago pilotarien artean. Txapelketako antolatzaileek apustu handia egiten dute emakumeen pilotaren alde eta hori nabaria da txapelketa egunetan ere. Eskertzekoa da. Ez nuen inolako itxaropenik, disfrutatzea bertzerik ez... Eta hori behintzat lortu nuen.

Urte horietako etenaren ondotik, nolakoa izan zen frontoira buelta? Pixkanaka hasi nintzen, frontisetik hurbil. Ez nekien gehiagor joanen ote nintzen baina aste batzuren buruan takoak ongi paratuta maila hobetu nuen. Hasieran pilota goxoarekin jokatze tako dezente behar izan nuen eta, eskuak egin ahala, pixkanaka kentzen joan nintzen. Inguruan laguntzaileak izan nituen, prestake-ta egiteko, nirekin entrenatzeko, prest zeuden pilotariak eta hagitz eskertua nago, beraien hasierako bultzadak aunitz lagundu zidalako.

Master Cup txapelketarekin hasi zinen eta Plazandreak etorri zen ondotik... Telebistan presentzia lortzeko bertz urrats bat izan da? Bai, dudarik gabe. Orain arte Master Cup txapelketako final-erdiak eta finalak telebistan



Gartzarongoa izan da Etxebestek jokatu duen azken txapelketa. UTZITAKOA

eman dituzte, gainerako partidak ez orde. Uda honetan, emakumezko pilotarien aldeko apustua egin dute, ortzegunero telebistan ikusgai egon gara. Guk ere aunitz egin dezakegula erakusteko eta ikusarazteko beharrezkoa izan da. Saio honek segida izatea albiste ona izanen litzateke.

Lehenbiziko edizioa eta garaipena. Nola bizi izan zenuen?

Plazandreak saioa ilusio handiz hartu genuen denok, pilotariok, antolatzaileek zein telebistako langileek. Lehenbiziko aldia zenez, urduritasuna nabaritu da, ongi egin nahiaren urduritasuna. Gauza politak ikusi direla eta gustagarria izan dela iruditzen zait. Niretzat pentsae-

zina zen horrelako saio bat eskaintzea. Are pentsaezinagoa bertan parte hartzeko aukera izatea. Gure taldeak lortu zuen txapela, lehenbiziko aldiz Bizkaia frontoian jokatu genuen final bat eta hantxe zeuden familia eta lagunak, beraz, kontent bizi izan nuen. Hemendik eskerrak bidali nahi dizkiet frontoietara lagundu didaten eta animatu nauten guztiei...

Berriz ere lau eta erdiko txapelketa hasia zen baina ezohiko egoeratik eten egin dute...

Aurten lau eta erdiko txapelketa bi modalitatetan jokatze-koa zen, pilota mistoarekin eta pilota goxoarekin. Nik pilota mistoan izena emana nuen. Eskuak gogortasunera egiten ari gara,

nahiz eta batzuetan eskuko minez entrenatzen dugun, gogoz ari gara. Txapelketa urrian hasi zen eta abenduan jokatze-koak ziren finalak. Hala ere, urriaren 25ean alarma egoera berrezartzearekin batera, partidak eten behar izan dira. Horren orde binakako txapelketa bat antolatu dute eta telebistan ikusi ahal izanen da.

Txapelketa honetarako zein zen zure erronka?

Hobetzen ari naizela ikusten dut eta nahiko ongi nabil, baina lehia guziak hagitz gogorrak izanen dira. Partidaz partida disfrutatzea eta pilotalekuan nire maila ematea nuen helburu. Horretarako aritzeko aukera behar...

Gero eta gehiago zarete emakumezko pilotariak edo ikusezin zena ikusgarri egitearen ondorio da?

Batetik, ikusgarritasunak aunitz eragiten duela erranen nuke, bertze pilotarien berri izateak norbanakoaren ilusioa pizten duelako. Eta bertzetik, azken urteetan pilota eskoletan emakumezko pilotariekin lan egiteak hauen segida bermatzen du. Horiek etorkizuneko pilotariak izanen dira. Azkenik, Emakume Master Cup eta antolatzen diren bertze txapelketa aunitzen eragin positiboa nabarmenduko eta pilotariekin lehiatzeko eta plazaratzeko leku bat izateak eragin zuzena duelakoan nago.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Hedatzen eta loratzen ikusi nahiko nuke. Belaunaldi gazteek prestakuntza osoa izanen dute eta maila hagitz ona ikusiko dela iruditzen zait, orain dagoeneko pilotari batzuekin ikusten duguna. Hala ere, guztiontzako lekua dago eta denen beharra du esku pilotak. Berdintasunerako pausoak ematen eta hazten ikusi nahiko nuke etorkizunean.

Emakumezko erreferenteak falta direla aipatu izan duzu. Ondoko belaunaldiak izanen dituzte?

Geroz eta erreferente gehiago ikusten dira, ondoko belaunaldiak badituzte baina oraindik ere bigarren maila batean ikusten direla erranen nuke.

Motzean

Zeure burua hitz gutxitan.

Kirolaria, alaia eta ekin-tzailea.

Zure indargune bat?

Helburuak lortzen saiatzen naiz.

Zer da esku pilota zuretzat?

Aunitz disfrutatzen dudana kirola.

Partida egunetan... maniarik?

Ez.

Banaka edo binaka?

Bietan gustura aritzen naiz, baina oraingoz banaka nahiago.

Pilotari bat?

Maite Ruiz de Larramendi.

Aurkari gogorrena?

Lehiatu dudanen artean, Iera Agirre.



'Osasun etxea zaindu' lelopean Lesakako osasun zentroaren aitzinean asteazkenero elkarretaratzeak egiten dituzte.

Lehen mailako arretan nekatuta eta ezinean

Herriz herri lehen mailako arreta ematen duten osasun arloko profesionalak nekatuta mintzo dira, gainkarga handiarekin ari direlako. Profesionalak falta dituzte, eta Covid-19arekin egoera «gehiago okertu» zaie, diotenez, «osasun etxeko martxa hankaz goiti» jartzeraino

G. PIKABEA

«Profesionalak falta ditugu, gainkarga handia dugu eta nekatuta gaude». Ezinegona sumatzen da lehen mailako arretan ari direnen artean, egoera «konplikatua» delako, eta pazienteak «nahi bezala ezin artatuz» ari direlako lanean, «ezinean». Aski dela erranez, asteazkenetan elkarretaratzeak egiteari ere ekin diote eta Nafarroa mailan sindikatuek greba deialdiak ere egin dituzte. Grebak, ordea, «azken aukera» izan beharko lukeela uste dute Ruth Gonzalez Santo Tomas Bortzirietako Osasun Zentroko zuzendariak, Iñaki Marcos Zorrozabaztango Osasun Zentroko zuzendariak, Monica Martin Jimenez Doneztebeko osasun zentroko zuzendariak eta Iosune Uranga Agirre Leitzako

osasun zentroko erizainen arduradunak, «gure pazienteek ez dutelako merezi atentziorik gabe gelditzea». Hala ere, garbi dute «aldarrikapenak eta gabeziak ageriko egiteko momentua» dela.

Bortzirietan lanpostuak hutsik
Gaur-gaurkoz, Bortzirietan «hainbat lanpostu hutsik» dituztela kontatu digu Ruth Gonzalez Lesakako osasun zentroko zuzendariak. Alde batetik, «Lesakako mediku baten plaza hutsik dugu». Hori horrela, «Lesakako 1.200 pa-

ziente erreferentzia-medikurik gabe daude». Ordezkorik ezean, «gainerako medikuon artean artatu behar izaten ditugu paziente horiek, gure kupoaz gain, bertzeena ere gure gain hartuz». Baina hori «ez da ideala»: «ez dakigu noiz arte iraunen duen egoera honek eta hori da gehien kezkatzen gaituena».

Lesakako postu horrekin gertatutakoaz aritu da Gonzalez: «plaza horrek euskara eskakizuna du eta profesionalak birkokatzerakoan, euskara eskakizuna betetzen zuen

«BORTZIRIETAN HAINBAT LANPOSTU HUTSIK DITUGU»

RUTH GONZALEZ, BORTZIRIETAKO MEDIKUA

«PLANIFIKAZIO ETA GESTIO FALTA SUMATZEN DA»

IÑAKI MARCOS, BAZTANGO MEDIKUA

inor ez zegoela eta, Osasunbideak ez zuen lanpostua eskaini ere egin». Hori «baktereketa» iruditzen zaio: «euskara eskakizunak euskaraz dakiena etortzeko lagungarri izan beharko luke, eta ez euskaraz dakienik ez dagoela eta, plaza ez eskaintzeko». Urriaren 1az geroztik falta dute mediku hori, «orduan birkokatzen baitira langileak lanpostuetan», baina «maiatzetik bagenekien plaza horretan zegoen medikua bertze toki batera joanen zela eta postua hutsik geldi zitekeela».

Bertzetik, Arantzan lanaldi erdian eta asteburuetan aritzeko administrari baten plaza ere hutsik dute: «martxoko osasun kontseiluan onartu zuten, baina pandemiarekin dena alde batera gelditu zen eta ez dute eskaini». Medikuerrehabilitatzailearen plaza ere hutsik dute: «duela bi urte arte astero etortzen zen, gero hamabortzean behin jarri zuten eta aurten, otsailaz geroztik, ez da etorri». Horrek «Bortzirietako 50 paziente baino gehiago erreserban» egotera behartu ditu, «medikuerrehabilitatzailearen kontsultaren esperoan».

Gainerakoan, joan den hilabete hasieran hutsik zegoen Berako pediatriaren lanpostua «erdizka» moldatu dute: «larrialdietako medikuak bere gain hartu du lanaldiaren erdia. Egiak ez dago beteta, baina nolabait moldatu dute. Beharbada aldi baterako balioko digu, baina epe luzera bertze aukerak beharko ditugu». Gonzalezen irudiko, «Nafarroa iparraldean pediatrian dagoen arazo larriaren» bertze adibide bat da eta alde horretatik, «Osasunbideak haurrei ematen zaien arreta birpentsatu» beharko lukeelakoan dago.

Momentuko hutsune horiez gain, luze gabe are gehiago okertu daitekeela ohartarazi du: «Bortzirietan lau medikuk 60 urte baino gehiago dituzte, tartean pediatra, eta baliteke,

epe laburrean, lanpostu gehiago hutsik gelditzea».

Baztanen 'hari batetik zintzilik'
Baztanen, «kupo guztiak beteta» dituztela argitu digu Iñaki Marcos Elizondoko osasun zentroko zuzendariak. Hori bai, lanaldi erdian ari zen pediatria joan zenetik, «ordezkorik paratu ez dutenez, lanaldi osoan ari zen pediatriak bere gain hartu du ardura eta lanaldi bat eta erdi egiten ari da».

Lanpostuak beteta badituzte ere, «hari batetik zintzilik» daudela dio Marcosek, «baten batek baja edo oporrak hartzen baditu, ez dute ordezkorik bidaltzen. Ordezkorik ez dagoela diote, eta hutsuneak guardiako medikuekin eta gure artean bete behar ditugu». Eta bere ustez, «ez dira baldintzarik egokienak. Baldintza onak orain dela 25 urtekoak ziren. Garai hartan, ordezkapenak %100ean betetzen zituzten. 2000. urte aldera edo pixka bat lehenago, ordezkapenak %70ean egiten hasi ziren, gero %50ean, eta orain ikusi egin behar bidaltzen duten edo ez». Hala, «larrialdiren batekin denak gainezka egiten du».

Profesional faltaren gabelekin, «planifikazio eta gestio falta» sumatzen ditu Baztango medikuak, baita «baldintza txarreko kontratuak egin izana ere. Kupo erdia hemen, bertze erdia han, gero guardia... Jendeak ez ditu nahi halako eskaintzak eta aunitz dira kanpora joan direnak». Bere hitzetan, horrek agerian utzi du «kontratazio sistema aldatu behar dela, dagoeneko beranduegi ez bada behintzat...».

Malerrekan egoera «konplikatu»

Malerrekan pediatria zerbitzuan dute hutsunea. Monica Martin Doneztebeko osasun zentroko zuzendariak azaldu digunez, «ekainaren 22an pediatriaren lanaldia murriztu zuten, abuztuan oporrak hartu zituen eta ekainaren



Urdazubiko kontsultategian ere elkarretaratzea egin zuten urriaren 28an.



Arizkun, Erratzu, Amaiur eta Erratzuko kontsultategietakoak Erratzun bilduak.

24an baja, eta hori guztia ordezkorik gabe». Geroztik pediatriarik gabe daude Malerrekan eta Bertizaranako haurrak. Ez da lehenbiziko aldia, gainera. Gabezia hori «pediatriako erizainarekin, familia medikuekin, pediatrian esperientzia duen larrialdietako mediku batek goiz batzuetan kontsultak hartuz eta astean behin edo bi aldiz arratsaldean etortzen den Lesakako pediatriarekin» betetzen ari dira.

Gehiago ere bada: «ekainaren 19tik uztailaren 1era larrialdietako mediku bat konfinituta egon zen eta tarteka ordezkatu zuten. Urriaren 13tik familia mediku bat konfinituta dago eta ez dute ordezkatu.

Bertze familia mediku batek otsailaren 14an baja hartu zuen eta irailaren 22an bidali zuten bere ordezkoa». Egoera «konplikatu» dela nabarmendu du Martinek eta bere hitzetan, «lan baldintzak aski okertuak daude, bajak eta oporrak daudenean ez dutelako ordezkorik bidaltzen eta egitekotan partzialki egiten dutelako».

Leitzaldean «lanez gainezka»

Leitzaldeko eta Urumealdeko osasun etxeetan ere ez dira baldintzarik onenetan ari. «Lanez gainezka» daudela kontatu digu Iosune Uranga osasun zentroko erizainen arduradunak. Goizuetan medikua falta omen dute eta «lantaldeko

langile batek baja edo oporrak hartuz gero, nahiko lan izaten dugu betetzeko». Horrela «denbora dezente» omen daramate, «batez ere medikuen hutsuneak izaten. Erizainen falta duela urte pare bat hasi ginen nabaritzen, eta gaur egun zerrendetan ez dago jenderik, denak lanean daude».

Lan gehiago

Profesionalen falta «Covid-19aren aitzinekoa» dela diote Marcosek, Martinek, Gonzalezek eta Urangak eta pandemiak ez die egoera arintzen lagundu. «Covid-19a osasun etxeko martxa hankaz gora» jarri duela onartu du Urangak, eta Martinek ere «gehiago okertu» dela dio, «langileak falta» izateaz gain, pandemiaren ondorioz, «lan gehigarriak» dituztelako: «etengabeko aldatetako protokoloetan, babes eta garbitasun neurriekin denbora gehiago, gainkarga handiagoa PC Rak edo testak direla eta, telefono bidez deiak, pazienteen jarraipena, erregistroak, bajak... Eta hori dena plantilla %100ean izan gabe».

Marcosek Baztanen mediku lanetan daraman 27 urteko ibilbidearen ondorioz ondorioztatu du «berez, eskualde lasaia» dela. Baina «Covid-19arekin gainkarga handiagoa» dutela onartu du: «pandemia berria da eta zalantza aunitz sortzen ari da. Paziente gehiago ditugu eta bakoitzari denbora gehiago eskaintzen diogu; telefonoz bi, borts eta zazpi egunetara segimendua egin behar zaie, zalantzak argitzeko eta nola dauden kontatzeko aprobetxatzen dute, bajak ere tramitatu behar dira... Dei bakoitzean 15 minutu joaten dira eta lan gehiago sortzen digu, eta zer erranik ez ondoko medikua falta baldin bada».

Bide beretik jo du Leitzaldeko erizainak: «lehen aurrez aurre ikusten genuen jendea orain etorri aurretik baloratu beharra dago, eta horrek lana asko zailtzen du». Gaineratu digunez, «ezin ailegatu →

«LAN BALDINTZAK NAHIKO OKERTUAK DAUDE»

MONICA MARTIN, MALERREKAKO ERIZAINA

«LANEZ GAINEZKA GAUDE ETA OSO GOGORRA DA»

IOSUNE URANGA, LEITZAKO ERIZAINA

—> eta orduak sartzen» ari dira eta baldintza horietan lan egitea «oso gogorra» egiten ari zaie: «oso nekatuta gaude». Are gehiago, «moralak ere ukitua» dutela dio.

Malerrekako erizainak ere profesionalen artean «neke fisikoa eta psikologikoa bista-koa» dela azpimarratu digu. Hori berretsi du Bortzirietako medikuak ere, eta «nekea, adorerik eza eta deskantsatzeko beharra» aipatu ditu: «hilabete aunitz dira ahal dugun guztia ematen eta ez dugu amaierarik ikusten».

Uste berekoa da Marcos ere: «bukaerarik ez ikusteak osasun arloko profesionalen artean nekea areagotzen duela» azaldu du: «ez dakigu zenbat iraunen duen, nolako bilakaera izanen duen, hirugarren edo laugarren olaturik izanen den, txertoa ailegatuko den eta ailegatzen bada eraginkorra izanen den edo ez...».

Landa eremuak azken aukera

Lehen mailako arreta «okerre-rra» bidean ikusten du Gonzalezek, eta arazoa are larriagoa ikusten du landa eremuan, «profesionalentzat landa eremuak ez direlako erakargarriak. Hirietako plazak erosoagoak egiten zaizkie, horrek ez duela lekualdaketarik eskatzen». Edozein moduz, fisikoki dagoen urruntasuna baino are handiagoa iruditzen zaio mentalki dagoena: «fisikoki trafiko handiko errepide txarra izanda, Iruñetik urruti gaude, baina mentalki Iruñeko jendearentzako are urrutiago gaude. Urruntasun horrek ez du baterik laguntzen profesionalak gure eskualdera etortzerakoan». Horregatik, «landa eremura profesionalak etortzeko aukera bultzatzeko» eskatu du Marcosek, eta Gonzalezek «landa eremuetan ere lanerako guttieneko baldintzak» behar dituztela nabarmendu du.

Elkarretaratzeak

Bateko eta bertzeko ezintasunekin, nekatuta mintzo dira



Leitzako osasun zentroaren aurrean ere osasun etxeak zaintzeko eskatu zuten.

eskualdeko osasun zentroetako arduradunak, eta hala, «hutsuneak ageriko egin eta aldarrikatzeko» unea dela uste du Martinek. Arazoa ikusaraztea positiboa dela uste du Bortzirietako medikuak ere eta horren harira, lehen mailako osasun arreta babesteko eskatuz asteazkenero egiten ari diren elkarretaratzeetan «herritarren aldetik jasotako babesa hagitzen ona» izaten ari dela aitortu du. Eta hala, «presioa egiteko eta gure aldarrikapenak ikusarazteko» bide beretik asteazkenero osasun zentroen aitzinean elkarretaratzeak eginez segitu nahi dute, Nafarroako Osasun Plataformak egindako deiari erantzunez. Bortzirietako elkarretara-

tzea Lesakan izaten da, 10:00etan, eta Leitzan 11:00etan, herritarren sareak deituta. Malerrek oraingoz ez dute halako deialdirik egin eta Baztan eta Xaretan tarteka egiten ari dira. Urriaren 28an egin zuten eta asteazken honetan, azaroaren 11n, ere bai.

Profesional gehiago eta baldintza duinak

Eskaria ere argi dute, «baldintza duinetan herritarrak artatzen segitu ahal izateko baliabideak» eskatzen dituzte, Bortzirietako medikuak dioten bezala, «gure aldetik herritarrak artatzeko lan handia egiten ari garelako eta hori egiten segitzeko baliabideak behar ditugulako». Argi utzi du: «oraindik

negu osoa dugu aitzinetik eta azken mugara ailegatzen ari gara»

Urangak herritarrei «erantzukizuna» eskatu die, «etxetik kanpo bizi direnekin leku itxietan ez elkartzeko, eta bazkariak eta arratsaldekoak ahal den neurrian ez egiteko», bere hitzetan, «hilabete gogorak» datozelako. Martinek «plantilla osotasunean beteta eta hutsuneak daudenean eta oporretan ordezkapenak» eskatzeaz gain, herritarrei «neurriak betetzeko, osasun zentrori joatekotan, deia egin zen telefonari erne egoteko eta osasun zentrori joan aitzinetik sukarrak hartzeko» adierazi die.

Marcosek ere «profesional gehiago» nahi ditu, eta «gaur egungo egoerara egokitutako planteamendu egokia» eskatu du. Hori egin ezean, «osasun sistema pribatizatzearen arriskuan» ikusten du: «osasungintza publikoa zerbitzurik gabe uzteak pribatizazioarako bidea irekitzen du. Lehen mailako arreta indartu behar dutela erraten dute baina ez dirudi horretan ari direnik eta horrela arreta pribatua sustatzen ari dira. Medikuekin hitzordurik ematen ez badute, aseguruak egin eta pribatutara joaten da jendea».

«LANDA EREMUAN ERE GUTTIENEO BALDINTZAK BEHAR DITUGU»

RUTH GONZALEZ, BORTZIRIETAKO MEDIKUA

«PROFESIONALEN ARTEAN NEKEA NABARIA DA»

MONICA MARTIN, ERIZAINA

«OSASUN PUBLIKOA ZERBITZURIK GABE UTZITA PRIBATIZATZEKO ARRISKUAN»

IÑAKI MARCOS, BAZTANGO MEDIKUA

«HILABETE GOGORRAK DATOZ»

IOSUNE URANGA, ERIZAINA

EUSKARALDIA



Euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan



A te joka dugu Euskaraldiaren bigarren edizioa, euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa. 2018an egin zen lehendabiziko aldiz ariketa, *Euskaraldia: 11 egun euskaraz*, orduan norbanakoengan jarri zen fokua eta Euskal Herri osoan milaka izan ziren hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin *ahobizi* eta *belarriprest* moduan parte hartu zutenak, baita gure eskualdean ere. Zehazki, *TTPI-TTAPAK* hartzen duen eremuan, 4.016 lagunek eman zuten izena. Aurtengoa, berriz, azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingen da eta 15 egun iraunen du. Zergatik? Euskaraldiaren edizioak progresiboak izatea nahi dutelako antolatzaileek. Urterik urte erronka handitzea. Duela bi urte norbanakoekin egin zen, aurtun entitateak gehitu zaizkio erronkari eta horrek egun kopuruan goiti egitea eskatu du, hizkuntza ohiturak pixkanaka aldatzeko.

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN EGITEKO PREST?

BAI, BETI

- Lehen hitza euskaraz egingen dut.
- Elkarrizketa elebidunetan euskarari eutsiko diot.



BAI, NAHI ETA AHAL DUDANETAN

- Dakitenei niri euskaraz solas egiteko eskatuko diet aldiro.
- Egoeraren arabera erabakiko dut euskaraz noiz egin.



www.euskaraldia.eus

Kontua ez da zenbat dakizun, zenbat egiten duzun baizik!



«Euskaraldia kontzientziak pizteko balio duen ariketa arras interesgarria da»

OIANKO GARDE JAUNSARAS ARIGUNEEN KOORDINATZAILEA

O ianko Garde baztandarra buru-belarri dabil Euskaraldiaren bigarren edizioa prestatzen, Baztango eta Bortzirietako *ariguneen* koordinatzailea baita. Diferente ari da bizitzen, hori bai, lanpetuta, «pandemiak gure estrategia guztia aldarazi» dielako, baina gogotsu eta 2018ko Euskaraldian bezala, «ilusioz eta kuriositate handiz».

2018ko Euskaraldiak bazterrak nabarmen astindu zituen eta eskualdean ere nabaritu zuen Gardek. Jendea ariketa egiten «saiatu zela» dio eta «Euskaraldiak iraun zuen bitarte horretan hizkuntza erabileran eta portae-ran eragina izan zuen». Gerora «jaitsiera ttipi bat» izan zela uste du, baina ondorioetan ikusi da «pixka bat goititu» dela euskararen erabilera.

'Ariguneak'

Aurtengo Euskaraldiaren berrikuntza *ariguneak* dira, «euskaraz lasai aritzeko guneak». Nolabait errateko, Euskaraldiak eskatzen duen ariketa «modu kolektiboan» egiteko aukera emanen dute *ariguneak* eta bi mota daude: *barne ariguneak* eta *kanpo ariguneak*.

Barne ariguneak entitate baten barnean dauden kideak beraien artean euskaraz solas egingen duten taldeak dira. Hori bete ahal izateko talde horretako «ehuneko ehunak euskaraz ulertu behar du». Hau da, *ahobizi* edo *belarriprest* izanen dira, «baina denek ulertu behar dute euskaraz». *Kanpo ariguneen* taldean, herritarrekin edo bezeroekin harreman zuzena duten langileak sartuko lirateke: dendariak, harreragileak... Entitate horiek «zerbitzu horretan euskaraz ulertzen edo dakien norbait egonen dela bermatuko dute, herritarrek uneoro euskaraz artatuak izan daitezten. Bezeroak gune horretan euskaraz eskatu eta egin ahaliko du, nahiz eta agian berari gazteleraz egingen dioten, *belarriprest* delakoz».

Joan den ikasturtean hasi ziren eskualdean *ariguneekin* lanean, Euskaraldiko batzordeak bildu eta «herriz herriko entitateen zerrenda» egiten. Konfinamenduak, ordea, «tartean harrapatu» zituen eta «gure estrategia guztiak aldatu behar izan genituen». Jendearen lehentasunak aldatu ziren eta «ez zen garai erraza enpresa eta lantegietara jotzeko. Horrek prestatetetan etenaldi edo geldialdia ekarri zuen». Bortzirietan, adibidez, dena bertan behera uztea erabaki zuen batzordeak eta Baztanen hurbileko saltokietara edo elkarteetara jo zuten. Argi utzi du «konfinamenduak ez digula guk nahi genuen guztia egiten utzi». 2020a berezia izaten ari da eta pena du «ez garela-koz gehiagora ailegatu».

Kontuak kontu, eskualdean guztira 236 entitatek eman dute ize-na *arigune* izateko. Garderen hitzetan, entitateek «harrera ona» egin diote Euskaraldiari eta «jarrera ona» erakutsi dute. Zailena lantegietara ailegatzea izan omen da: «oraintxe bertze afera batzuekin ari direlako. Baina pixka bat kosta zaigun arren, badira parte hartuko dutenak». Bertzelako entitateek, berriz, denda tikiak, kiroldegiek, kultur taldeek, udalek... «ongi eta gogoz hartu dute». Are gehiago, «batzuk ia betetzen dute *arigune* izatearena».

Herritarren rola

Ahobizi eta *belarriprest* rolak aurtan ere izanen dira. *Ahobizi* uneoro

BAZTANEN ere
Ahobiziak eta
Belarriprestak
PREST!



euskaraz eginen duena izanen da, «lehendabiziko agurra beti euskaraz eginen duena». Parekoak euskara ulertzen badu elkarrizketan euskarari eutsi beharko dio, «elkarrizketa elebiduna bada ere». Euskaraz ongi edo erdizka dakiena «baina beti euskaraz egiteko prest dagoena» izan daiteke *ahobizi*. «Jarrerarekin du zerikusia» nahiz eta euskaraz ikasten ari, bere erabileran pauso bat eman nahi duenari ere badagokio rol hau. «*Ahobizi* izatea ez da ahalmen kontua, jarrera kontua da».

Belarriprest izatea aukeratzen dutenek parekoari euskaraz solasatzeko gonbita luzatuko diete. Kasu honetan ere gaitasunak «ez du deus erran nahi» nabarmendu nahi izan du Gardek. «Euskaraz ongi egiten duena baina zenbaitekin erdaraz egiten duena izan daiteke. Edo euskaraz guti goiti-beheiti solas egin dezakeena, baina ez dena ausartzen edo ulertzen duena, baina ez dena solas egiteko gai sentitzen».

Izen-ematea zabalik

Oraindik ere eman daiteke izena Euskaraldian, www.euskaraldia.eus webgunearen bitartez, eta herriz herri bertze hainbat bidetatik ere bai. *Arigune* izateko konpromisoa hartu duten entitateetan ere, «bertako kideek norbanako bezala izena eman beharko dute, *ahobizi* edo *belarriprest* rola hartuz»

«Herritarrek aktibatzea» gustatuko litzaioke Garderi. «Jendeak kuresiositatea izatea, parte hartzeko eta laguntzeko prest egotea, batzorde

indartsuak sortzea eta Euskaraldiari oxigenoa emanen dioten guneak sortzea». Euskaraldia ariketa «arras interesgarria» delako, «kontzientziak pizteko balio duena». Horrez gain, «ondorioak epe luzera gelditzea» nahiko luke: «herrietan benetan elkarrizketa elebidunak ikustea, aurreiritziak puskatzea, jendeak beldurrik gabe lehendabiziko agurra euskaraz egitea eta konplexuak alde batera uztea». Hala ere «hori lortzeko Euskaraldi gehiago beharko ditugula» iruditzen zaio.

Aurtengo ariketa modu «apalagoan» eginen dela ere argi du baztandarrak, Covid-19aren ondorioz, «gure harreman sozio afektiboak murriztu direlako eta jendea ez delako hainbertze mugitzen». Horrek ez du Euskaraldiak eskatzen duena nahi bezala egiten utziko, baina erronkak hor segitzen du eta «ariketa bera eginen da azaroaren 20tik abenduaren 4ra». Bide batez, herritarrei «hizkuntza ohiturei buruz pentsarazteko» mezua ere luzatu die Gardek, begirada hori egitea «arras interesgarria» dela iritzita: «jendea ez delako kontziente zein hizkuntzatan ari den bikotekidearekin, lagunekin, dendariarekin... Orduan konturatuko gara erdaraz uste baino gehiago egiten dugula. Hizkuntza ohiturak hain barneratuak ditugu ez baikara ohartzen zeinetan solasatzen garen». Hizkuntza ohiturez haratago, gehiago ere aipatu du: «batzuetan ez da soilik ohitura kontua, hizkuntzarekiko dugun jarrera ere bada». Egin dezagun bada euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan, baita abenduaren 4tik aitzinera ere.

EUSKARALDIA

**Hizkuntz ohiturak euskarara ekartzeko tenorea da.
Gehiago. Gehiagorekin. Gehiagotan.**



EMAN IZENA!
www.euskaraldia.eus
f t i



EUSKARALDIA

**Ahoak bizi,
eta belarriak prest.
Gehiago. Gehiagorekin.
Gehiagotan!**



euskara ZERBITZUA
ARANO, ARESO, GOIZUETA eta LEITZA



'ZuTuberrak' gazteei zuzendutako antzezlanak. BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA



'Ez dok hiru akustikoa' antzezlako aktoreak. BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

XXII. Kafe Antzerki Zikloa kultur etxeko oholtzan aurten

Aurten zikloak bi emanaldi izanen ditu: 'ZuTuberrak' azaroaren 22an eta 'Ez dok hiru akustikoa' 29an.

IZASKUN REKARTE

Arlo guzietan gertatu bezala, aurtengo Berako Kafe Antzerki Zikloan ere nabarituko dira Covid-19 pandemiak eragindako osasun larrialdiaren ondorioak. Halere, Euskara Batzordeak antzerki zikloari eustea erabaki du, aldaketa nabarmen bat eginda: emandakia ez dira herriko ostaluetan egiten, kultur etxeko areto handian baizik. Horrez gain, edukiera mugatua izanen da eta emanaldiaren unean ezarriak dauden osasun neurriak eta jende kopuruak errespetatu dituzte.

'ZuTuberrak'

Lehena, azaroaren 22an izanen da, igandearekin, 18:00etan. Eidabe Taldeak *ZuTuberrak* antzezlana eskainiko du. Antzezlana lau, batez ere publiko gazteari (10-14 urte bitartekoei) zuzendua da.

Protagonistak Bits eta Gor gazte alai eta aktiboak dira. Txip aldaketetan jostetan ariko dira: robotak bailiran, burmuinean txip berria sartuz, bakoitzak bere gogoko dohaina aukeratu du. Gorrek indarra hautatu du. Bitsek, aldiz, hitzak aukeratu ditu eta, hitzei esker, trebetasun

handia izanen du rap kantari gisa. Ondorioz, sekulako arrakasta izanen du sarean, *YouTuben*, hain zuzen ere. Gorrek, inbidiak jota, hitzak gordetzen dituen txipa ezabatuko dio Bitsi. Orduan honek ezin izanen du rapeatu, hitzik gabe galduta baitago.

Antzezlana honek hizkuntza ezabatuko baligute gertatuko zenaz gogoeta egitera gonbidatuko ditu gaztetxoak. Erritmo bizia, zuzeneko irudiak, bideoak eta rap musikaz ziprztindutako antzezlana da. Aktore lanetan Olatz Pagaldai, Jon Zubiaga eta Urko Olazabal ariko dira.

'Ez dok hiru akustikoa'

Azaroaren 29an, igandearekin, 18:00etan, Tartean Teatroak *Ez dok hiru akustikoa* eskainiko du kultur etxean. Euskal musikaren imajinario kolektiboan murgilduko duen ikuskizuna da, Euskal Herriko kantutegian oinarritutako ikuskizun teatrala.

Taldearen ezaugarri nabarmena sorkuntza da, taldeko kideek sortutako testu eta ideiekin eraikitzen baita ikuskizuna. Konpainiak euskal kultura eta antzerkiaren aldeko apostu garbia egiten du, eta ahalegin hori aintzat hartua izan da. Hainbat sari irabazi dituzte azken urte haueetan, tartean 2012an Patxo Telleria eta Jokin Oregik lortutako Max saria euskarazko testu onenari.

Aktoreen moduko ikuskizuna da, eroa, deskonzertantea, irigarria azalez... Aktore lanetan Patxo Telleria, Mikel Martinez eta Adrian Garcia de los Ojos ariko dira.

Sarrerak

Sarrerak hiru euroren truke emanaldiaren egun berean kultur etxeko lehiatilan erosi ahal izanen dira, 17:00etatik aitzinera. Ikusle bakoitzak gehienez ere lau sarrera erosteko aukera izanen du, eta edukiera mugatuko dute.

S

MAZIZIOR

edariak

ESKAERA EGITEKO:

M. 676 051 660

T. 948 631 557

Ordutegia: 10:00-13:00 eta 16:00-18:00

Helbidea: Ziobi, 3 ALKAIAGA

eposta: maziziorsenper@gmail.com

- IBERIKOAK
Urdaiazpikoa, Saltxitxoia,
Solomoa, Txorizoa
- IRULEGIKO AHATEKIAK
ETA PATEAK
- NAFARROAKO KONTSERBAK
- OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
- ARDOAK, CAVAK, TXANPAINAK,
PATTARRAK, SAGARDOAK
- BIO ETA MSC[®] KONTSERBAK (*arrantza jasagarria)

**ENPRESA ETA
PARTIKULARRENTZAT**

**Zure neurrira
prestatzen ditugu!**

**Eguberrietako eskaerak
etxera eramaten ditugu!**



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

Herriko entitateak Euskaraldia sustatuz

Euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan lelotzat hartuta, herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzea izanen da aurtengo edizioaren helburua. Herrian, 28 bat entitatek *arigune* gisa izen-eman dute, hau da, *euskaraldia* sustatzeko konpromezua hartzen dute.

Urriaren 31n bete da Kottoren heriotzaren 15. urteurrena

2005eko urriaren 31n hil zen Jose Angel Altzuguren *Kotto*. Berako presoak Soriako kartzelan hilik agertu zen. 15 urte beranduago, zenbait herritarrek gertatutakoa salatzeke eta bera gogoan izateko bidea egin dute. Aitzineko urteetan *Kottok* hainbertze maite zuen Larun mendi magalera irteera egin ohi zuten herritarrek. Aurtun, irtenaldi hau egin ez bada ere, *Kottok* herrigintzan eta herriarentzat egindako lan nahiz ekarpenak azpimarratu nahi izan dituzte berrak.

Udalak Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentuko dirulaguntza jasoko du

Nafarroako Gobernuak 1.209.00 euroko dirulaguntzak eskaini ditu *Artea eta Kultura 2020* eta *Udal Platea* programen barruan. Dirulaguntza honen onuradun 87 herri izan dira eta horien artean Berako herriak bi dirulaguntzak jasoko ditu. Bi deialdi hauen bitartez, jarduera artistikoak eta kulturalak sustatu nahi dira.

Artea eta Kultura 2020

Deialdi honen irizpideen arabera, 40.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako jarduera kulturalak zuzenean

kudeatzen dituzten erakundeek eskuratu ahal izanen dituzte laguntzak.

Berako kasuan, zehazki, 47.375,61 euroko dirulaguntza jasoko du.

Tokiko Udal Platea

Ekimen honen baitan, arte eszenikoen eta musikalen ikuskizun profesionalen programazioa, eta arte eszenikoe-tako nahiz musikaletako profesionalak kontratatzea sustatuko da. Eskualdean Bera eta Lesakak 40.000 euro bitarteko laguntza jasoko dute.



BERAKO UDALA

Gautxori zikinak Altzateko parkean

Itxura denez, larunbat arratsetan jendea biltzen da Altzateko parkean eta zaborra denean barna zabaldua agertzen da. Udalak jarrera hau onartezina dela salatu du. Adierazi dutenez, herritar guztiek espazio honen erabilpena egiteko eskubidea dute, baina baita hau zaintzeko betebeharra ere.

LABE ZAR
Astalenezik
ortziralerak:
07:15etik
aitzinerak
Larunbata
eta igandak:
08:00etatik
aitzinerak
948 631 076 • BERA

JAKINE-GOXOTEGIA
Etxean
egindako
produktuak
948 630 786 • Alzate, 21 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 • Alzate, 17 • BERA

KATEA BIKE
Bizikleten salmenta
eta konponketa.
Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com
SCOTT PINARELLO MASSI MERIDA
BERGAMONT BH COLNER LOOK



Ander Abuin Yepes, Beti Gazteko presidente berria, elkartearen egoitzan. AITOR AROTZENA

«Sartu den jendeak freskotasuna emanen dio Beti Gazteri»

ANDER ABUIN YEPES BETI GAZTE ELKARTEKO PRESIDENTE BERRIA

26 urteko abokatu lesakarra da 1.313 bazkide biltzen dituen Beti Gazte elkarteko presidente berria. Urriaren 24an egin zuten batzarrean aukeratu zuten, Jose Luis Sunsundegiren ordeko.

AITOR AROTZENA

Ander Abuinekin batera, aurpegi berri gehiago ere izanen dira zuzendaritza batzordean, lehendik zeudenekin batera elkarlanean ariko direnak elkarte 80. urteurrena ospatzen ari den urtean.

Aurpegi berria Beti Gazteko lehendakaritzan... Nola gogoratu ziztaizun pausoa ematea?

Jose Luis Sunsundegik lehendakaritza utzi nahi zuela komentatu zigun zuzendaritza batzordeko kideoi. Bertan ginenak pausua ematera usartzen ez ginenez, presidentea bilatzen hasi ginen. Hala ere, ardura hori hartzeko prest zegoen inor ez genuen aurkitu. Laguntzeko prest zegoen

jende dezente bai, baina ez lehendakaritzarako bat-batean. Beraz, zuzendaritza batzordean zegoen norbaitek lehendakaritzan jarri beharko lukeela ondorioztatu genuen, hori baita logikoa. Momentu horretan nire burua aurkeztu nuen eta gainontzekoen babesa jaso nuen.

Presidente ez ezik, aldaketa gehiago izan dira zuzendaritza batzordean?

Bai, jende berria sartu da zuzendaritza batzordean. Zehazki, Nora Eneterreaga presidenteorde eta instalazio eta material arduradun karguarekin, Argiñe Ordoki kirol koordinatzaile, Olaia Otxoteko komunikazio arduradun

eta Idoia Sunsundegi diruzaintzan. Sartu diren berri horiez gain, lehendik batzordean ginen gehienek ere jarraituko dugu: Modesto Maia eta Lourdes Danboriena idazkaritzan, Ana Errandonea diruzaintzan, Amaia Telletxea kultura koordinatzaile eta Jesus Mari Zapiain Covid-19aren protokolo arduradun. Guztira 10 pertsonako lantalde ederra osatu dugu. Beti Gazte elkarte

«URTE EGOKIA DUGU GUTTINAKA DENA ONGI IKASI ETA AZTERTZEKO»

hainbat atalez osatua dagoenez, atal bakoitzak ere arduradun bat izanen du, orain arte izan den moduan. Errate baterako: futbola, lerro dantza taldea, lasterka taldea, argazkilaritza...

Zein asmorekin sartu zarete?

Asmoa elkartearen martxari jarraitzea da. Beti Gazte mota guztietako ekitaldiak eta taldeak antolatzen ditu eta horrek lan handia suposatzen du. Modu egokian aritzeko eta pertsonak aunitz ez kargatzeko lan banaketa egitea dugu helburu nagusia. Horretarako barne komunikazioan aditua den kide berriak organigrama eta komunikazio sare baten proposamena egin digu, elkarren arteko komunikazioa hobetu eta lan karga banatzeko asmotan. Zaila izanen da garai honetan zerbait egitea... Hala ere, alde onetik ikusita, urte egokia dugu hau zuzendaritza batzordeko guttina dena ongi ikasi eta aztertze.

Zein indargune eta zein ahulgu-ne ikusten dituzue Beti Gazten?

80 urteko historia duen elkarte dugu Beti Gazte. Hori jende berriarentzat abantaila handia da, ez da zerbait zero-tik hastea. Lan handia dago egina eta ekitaldi aunitzek dute bidea egina. Bertzalde, badira kontu berri samarrak ere: kirolean, lasterka taldea sortu zen eta eremu hori ireki zen Beti Gaztetik. Kulturean, berri, solasaldi dezente egiten dira, irakurketa taldea, dantzak, lehiaketak... Beti Gazte ongi dagoela erran genezake, aunitz egiten du eta herriari bizia ematen baitio. Dena den, hobetzeko beti badugu zerbait leku guztietan. Kasu honetan komunikazioan esfortzu handiagoa egin beharko genukeela uste dut. Horretarako sartu berri den Olaia Otxoteko kazetariak erronka berezia du. Bazkideetara errazago ailegatu nahi dugu, boluntarioak eta lanerako prest dagoen jendea behar izaten da eta aunitzetan zaila da hauek harrapatzea.

Berriz ere UEMAKo kide izatea erabaki du Udalak

Urriaren 29ko batzarrean EHBilduko sei ordezkariak aldeko botoa eman zuten eta Geroa Baiko bortzak abstenitu ziren

AITOR AROTZENA

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide izatea onartu du Udalak, urriaren 29ko udal osoko bilkuran. Gaur egun, 87 udalek osatzen dute UEMA, eta 88. udala izanen da Lesaka, UEMArekin batzar nagusiak udalen eskaera berriak onartzen dituenean. Guztien artean, ia 250.000 biztanle inguruko lurruna euskalduna osatzen dute.

Ladis Satrustegi alkatearen hitzetan, «euskararen normal-kuntzarako bidean, administrazioan lan egiten dugunez, udaletik soilik bideratu ezin dugun hizkuntza politika aurrerakoa egiteko aukera ematen digu UEMAk».

Herritarren %79a euskaraz ongi aritzeko gai da, eta Soziolinguistika Klusterrak iaz Bortzirietako hizkuntzen kalerabilera neurtzeko egin-dako lanaren arabera, %74a euskaraz aritzen da Lesakan. UEMAk abenduaren 12an du hurrengo batzar nagusia, ohi bezala urteko balantzea egiteko eta urte berrirako plan-gintza eta aurrekontua onar-

tzeko. Batzar nagusiak Lesaka UEMAKo kide izatea onartzen duenean, Bortzirietako udal guztiak izanen dira UEMAKo kideak.

Ez da Lesaka UEMAKo kide den lehen aldia. Hainbat urte egin zituen mankomunitatean, Udalak 2015eko azaroan Euskara Plana bertan behera uztea eta UEMAKo kide izateari uztea erabaki zuen arte. Lesakako euskalgintzaren eta pleno aretoan bildutako euskaltzaileen protesta artean hartu zuten erabaki hura, eta gaiak soka ekarri zuen. Orain, UEMAKo kide izatera itzuli da berriro Udalak. Udal Gobernuak osatzen duten EH Bilduko sei ordezkarien aldeko botoekin eta Geroa Baiko bortz zinegotzien abstentzioarekin onartu zuten erabakia.

Bideo emanaldia

Lesaka UEMAn sartu dela eta, *Hiru aldiz euskara* bideoaren aurkezpena egingen dute azaroaren 15ean, igandean 18:30ean Harriondoan. Mikel Leitzak eta Lesakako Euskara Batzordeak egin dute bideoa.



UTZITAKOAK

Martxanpaita auzoan argiteri publikoa

Martxanpaita auzoan, herrigunetik Agiñarako bidean bortz eguzki farola jarri ditu Herriko Etxeak, 10.527 euroko inbertsioa eginez. Eguzki energia erabiltzen dute gaez argiztatzeko, eta argiaren intentsitatea urruneko kontrol bidez erregulatu daiteke.



UTZITAKOAK

Eguzki panelak suhiltzaileen egoitzan

Suhiltzaileen egoitzaren eta udal biltegiaren teilatuan eguzki panelak jarri ditu udalak, Goiener taldeko Nafarkoopan laguntzarekin, bi eraikinak eta Andra Mari zahar etxea hornitzeko. 55.593,79 euroko inbertsioa egin du Udalak eta Nafarroako Gobernuak 30.576,58 euroko dirulaguntza eman du.

ZOANSA

VW SEAT Audi HYUNDAI

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA

T. 948 62 55 55 | zoansa@zoansa.com

Banarta, 2 | Alkaia Ind. | LESAKA (Nafarroa)

IRU-BIDE

OSTATU • IATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili

kattagorria

LESAKA

948 627 514

www.kattagorria.com

Auzoa GO!

Etkez etxeko zerbitzua

BERAn eta LESAKAn

ESKAERAK:

www.auzoago.com • T. 948 63 15 08

ORBELA

SENTERISMO • INTERPRETERIA

BEINTZAKO OSTATUA

Idoia • Mikel

Tel. 948 450 014 • BEINTZA-LABAIEN

info@orbela-beintza.com

www.orbela-beintza.com

Egun gutiz sareak paratu, baina uso aunitz harrapatu

La 2 Espainiako telebista kateko 'La Ruta de Ambrosio' saiokoak ere bertan izan dira grabatzen

IRUNE ELIZAGOIEN

Egun gutiz paratu dituzte sareak baina jarri dituztenetan harrapaketa onak egin dituzte. Urriaren 29an erraterako, ia 32 dozena uso harrapatu zituzten sareetan. Urriaren lehen asterako ehun dozenen langa gaintitzaerakoan pizten den altxaferoa prest zuten.

Urriaren izandako haizete gogorrek kalte handiak egin zituzten sareen inguruan eta egunak behar izan zituzten auzolanean dena bere onera ekartzeko. TVE2koak ere izan ziren Usategietan, *La Ruta de Ambrosio* saiorako irudiak hartzen.

Haizeak kalte handiak

Urriaren 20 arratsean kalte nabariak egin zituen Barbara



Telebistarako grabatzen Usategietan.

deituriko haize ufadek. Errepideetara hainbat zuhaitz erori ziren bideak moztuz, txabola bat baino gehiago kolpatu zituzten arbolek eta Usategietan ere hondamena bistakoa zen. Ondorengo egunetan auzolana beharrezkoa izan zen eta horretara lotu ziren hainbat herritar, ahal zen heinean, berriz ere eroritako zuhaitzak kendu eta eguneroko martxari ekiteko.



EUSKAL TELEBISTA

'Biba zuek!' saioa Etxalarren

Joseba Olagarai erreportari lanetan ikusi daiteke arratsaldero ETB1ek ematen den *Biba zuek!* saioan. Urriaren 22an bere herritik zuzeneko egiteko aukera izan zuen, herri ttiki batek pandemia egoera hau nola bizi duen azalduz. Miguel Mari Irigoien alkatea eta Axun Maia elkarrizketatu zituen.



IRUNE ELIZAGOIEN

Elizagoien ahizpak 'Oholtzan' saioan

Uztailaren 22an Villabonako Hika txakolindegian EITBrentzat saioa grabatu zuten Elizagoien ahizpek, Elustondo anai-arrebeekin eta Astiasaran

II.a eta Andonegirekin batera. Saio hori azaroaren 14an gaueko 22:00etatik aitzinera ETB-1eko *Oholtzan* saioan ikus-tekko aukera izanen da.

Hilerrira bisita aunitz

Santu Guzien Egunarekin herritar aunitzek egin zuten bisita hilerrira, azaroko lehen egunean. Ezohiko egoera dela eta hurbildutako guziak musukoekin eta segurtasun distantziak ongi mantenduz egon ziren. Eguraldi ederra eta lorez josia, benetan eder ageri zen hilerria, argazkian ikus daitekeenez.

Ardu Mila esker gurekin bat egiteagatik!
arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

USOA Nekazari kooperatiba
ORAIN GASOLINA ERE
T. 948 635 214 ETXALAR

Zalain Eramateko janaria astelehenetik ortziralera
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa BERA T. 948 631 106 w. www.zalain.info

Ekhiñe Zapiain beratarrak irabazi du Eskolartekoa

Berekin batera, bigarren izan zen Iruñeko Bittori Elizalde izanen da Nafarroako ordezkari Euskal Herrikoan

TTIPI-TTAPA

Ettxari Aranatzen jokatu zen urriaren 30ean Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren 34. edizioa, zazpi bertsolari gazterekin: Ainhoa Arrizabalaga (Iruñea), Amaia Lasheras (Barañain), Beñat Astiz (Barañain), Bittori Elizalde (Iruñea), Eki Mateorena (Leitza), Ekhiñe Zapiain (Bera) eta Etxahun Azkarraga (Etxalar). Maider Ansak izan zuen saioa aurkeztu eta gaiak jaritzeko ardura. Izaro Mitxelena, Joseba Beltza eta Nerea Bruño aritu ziren epaile lanetan.

Gai orokorra emanda, lau oinak emanda, azken puntua emanda eta hitz bana emanda bertso bana kantatu ondotik, bi bertsolari pasa ziren bigarren fasera: Bittori Elizalde eta Ekhiñe Zapiain. Bigarren fase honetan, zortziko handian ofizioan aritu ziren bi bertsolariak. Azkenik, kartzelako ariketan, puntu banari erantzun zioten, eta gaia emanda, bakarkan aritu ziren azkenik, bertso bana kantatuta.

Azkenean, Ekhiñe Zapiainek bildu zuen puntu gehien, eta honenbertzez, bera da Nafarroako Eskolarteko txapelduna. Berak eta txapeldunordeak, Bittori Elizalde, ordezkaturiko dute Nafarroa Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan.

Bertsolari beratarrak Julio Soto Nafarroako txapeladunaren eskutik jaso zuen txapela. Bertso onenaren saria ere, Ekhiñe Zapiainek berak irabazi zuen, zortziko handiko ofizioko bigarren bertsogatik. Alaitz Rekondo Nafarroako Bertsosale Elkarteko lehendakariak eman zion sari hori.



Ekhiñe Zapiain txapelarekin, Etxarri Aranatzeko jokatuakoa saioan.

eta hau ere?

bai

Etxe Automobila bitxipaki Bizitza Uhartak

Aseguruen inguruko premiak dituzunean ere, Rural Kutxa da erantzuna.

Biltzaileak: Caja Rural Vito S.A. de Seguros y Reaseguros (akzioen titularak: 69.476.229.653 eta 250.000.000 paise C-015). Etxe: Baza, Etxeak eta bitxipakiak: Baza. Baza Seguros S.A. de Seguros y Reaseguros (akzioen titularak: 77.476.229.653 eta 250.000.000 paise C-015). Automobila: Baza Seguros S.A. de Seguros y Reaseguros (akzioen titularak: 77.476.229.653 eta 250.000.000 paise C-015). Bitxipaki: Baza Seguros S.A. de Seguros y Reaseguros (akzioen titularak: 77.476.229.653 eta 250.000.000 paise C-015). Bizitza: Baza Seguros S.A. de Seguros y Reaseguros (akzioen titularak: 77.476.229.653 eta 250.000.000 paise C-015). Uhartak: Baza Seguros S.A. de Seguros y Reaseguros (akzioen titularak: 77.476.229.653 eta 250.000.000 paise C-015).

Azaroaren 18ra arte izena eman daiteke Euskaraldian

Herriko Etxean egin daiteke astelehen, astearte eta asteazkenetan 08:00etatik 15:00etara

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Euskaraldian izen emateko aukera izanen dugu herrian; Herriko Etxean egiten ahalko da azaroaren 18a baino lehen astelehen, astearte eta asteazkenetan 08:00etatik 15:00ak bitarte. Anima zaitezte, oraindik aukera ederra dago eta



gure hizkuntzari bulkadatxobat emateko!



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Bideak moldatzeko lanak han-hemenka

Piedadeko Gaina auzoan, Aizalegia eta Intxaingoborda lotzen dituen bidearen moldatze lanak hastekoak dira. Azpiko paretak moldatu eta biondak paratuko dituzte. Baratzondon ere berrikuntzetan ari dira. Trenbidean ere, Igantziko zatian, Sunbilla aldera, lanak egin dituzte.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Bizikletaren Eguna berezia

Urtero egiten den ekintza dugu bizikletarena eskolan; aurtengoan, dagoen egoerari egokituz, irteera ikasle guztiak elkarrekin egin beharrean, hiru taldetan ibili dira. Koxkorrak Frainen izan ziren, ertainak herrian barna egin zuten ibilbidea, eta ttikiak berriz, eskola aitzinean ibili ziren.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

aterpe

albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net

ZUBIONDO

JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Modu berezian baina kulturaz gozatu dute herritarrek

Ekaitza Elkartek zozketatutako bi zere ederrak Anuntxi Berearentzat eta Andoni Zulaikarentzat izan dira

NEREA ALZURI

Era guztietako ekitaldiak izan dira kultur egunetan. Hasteko, Felipe Uriarte mendizale ezagunak gidatu eta zuzenduriko solasaldia eta *Oxigenoa euskarari 6.000 metrotan ere* dokumentalaren proiektzioa izan ziren urriaren 23an herriko etxeko areto nagusian. Bihamunean, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileen eskutik, *Bakean dagoena bakean utzi* bakarriketa saio umoretsuarekin, tarte polit bat pasatu zuten ekitaldira hurbildu zirenek. Urriaren 31ko ilu-

nabarrean, berriz, Dama Beltzak emanaldi ederra eskaini zuten Estitxu Pinatzok eta Mikel Santxezek eskolako patioan.

Azaroaren leian, osasun egoeragatik ez zen Baserritarren Egunka izan, baina Ekaitza Elkarteko zuzendaritza batzordeak, hainbat ediziotako argazki eta bideoekin, bideo polita zabaldu zuen. Baserriko produktuekin osatutako bi saski ederren zozketa ere egin zuten eguerdian eta Anuntxi Bereauri eta Andoni Zulaikari saski bana tokatu zitzaizkien. Zorionak!



DBH 1.eko ikasleak gaztainak biltzen. ARANTZAKO HERRI ESKOLA


Gaztaina biltzea eta jatea egin dituzte eskolan

NEREA ALZURI

Joan den urriaren 19an eskolako haurrak gaztaina bila joan ziren. Osasun neurriak betetzeko eta taldeak nahasi gabe, Meaka eta Larreta aldean ibili ziren gaztainak biltzen, eta eskolatik adierazi dutenez, kilo dezente bildu zituzten. Urriaren 29an, berriz, guraso baten

laguntzarekin, eskolan bertan danbolinean erre eta jan zituzten.

Herrian bertan hainbat jarduera antolatu ohi dituzte eskolan, baina aurtengo egoeragatik, are gehiago eginen dituzte, ezin izanen dutelako ez kanpaldirik ez irteera berezirik egin.



Aurtengo kultur egunek utzi dituzten irudietako batzuk. UTZITAKOAK

laguntze, familia, kinto besta...

OSPAKIZUN GUZTETARA EGOKITZEN GARA

ETXALAR | T. 948 63 50 00 | www.etxalar.com | info@etxalar.com

Dionisio Mujika bertsozale eta sustatzailea hil da

Nafarroako Bertsolari Txapelketa baino lehen egiten zen Paulo Yantzi sariketa sustatu zuen Lesakan

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 1ean zendu zen Dionisio Mujika Arrue, bertso txapelketen antolatzaile eta gai-jartzailea, 84 urterekin. Sortzez gipuzkoarra bazen ere, Lesakan bizi zen aspalditik eta gaztetan plazaz plaza bertso-tan ibilia bazen ere, gerora, bereziki antolatzaile eta gai-jartzaile lanetan aritu zen, Bertsozale Elkartetik adierazi dutenez, «Nafarroan ia desagertuta zegoen bertsolaritza suspertzeko lanetan».

Asteasutik Lesakara

1936an Asteasun jaio zen Dionisio Mujika Arrue (Asteasu, Gipuzkoa, 1936), baina Lesakan bizi zen 1960ko hamarkadatik eta lau seme-alaben aita zen. Bera izan zen Paulo Yantzi sariketa antolatzen aritu zena 1979tik aitzinera, Nafarroako Bertsolari Txapelke-



Dionisio Mujika.

tarik ez zen garaian. Denborarekin, Nafarroako Bertsolari Txapelketa bihurtu zen hasiera hartan Paulo Yantzi sariketa zena.

1993an Lesakako Beti Gazte elkartearen omenaldia jaso zuen. Zehazki, herriko bertsolari Josetxo Iantzi, Luis Olaetxea *Makukoborda*, Maurizio Mitxelena *Barraka* eta Dionisio Mujika omendu zituzten. 1999an, berriz, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean, Lesakan, omenaldia jaso zuen egindako lanagatik.

Lesakako bertsolariak sarituak Iruñeko Udalaren I. Bertsopaper lehiaketan

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Bertsozale Elkartek lehen aldiz antolatutako Iruñeko Bertsopaper lehiaketako sariak eman zituzten azaroaren 5ean.

A kategorian 2007an edo ondotik jaiotakoek parte har zezaketen. Ekhi Rojo Rodriguez lesakarrak irabazi zuen lehen saria (150 euroko kultura-bonua), eta Iruñeko Ibai Letona Garaikoetxeak bigarren saria, 100 euroko kultura-bonua. Ekhi Rojok *Garai arraro haue-tan* lana aurkeztu zuen, pan-

demiak eguneroko bizitzan eragin dituen aldaketei buruzko bertso-sorta.

B kategorian, 2003 eta 2006 artean jaiotakoei zuzenduta (biak barne), Beñat Astiz Isa-sik lortu du lehen saria, eta Bittori Elizalde Sotok bigarren eta hirugarrena.

C kategoria 2002an edo lehenago jaiotakoei zuzendua da. Lehen saria Saioa Alkaizak eskuratu zuen, bigarren Erika Lagoma Pombar lesakarrak eta hirugarrena Eneko Fernandez Maritxalar lesakarrak.



Bideak garbitzeko eta irekitzeko lana gogotik egin behar izan zuten. UTZITAKOAK

Haizete gogorak kalte handiak eragin zituen bideetan

Herri osoan hamabortz bat ordu egon ziren argindarrik gabe eta zenbait baserritan oraindik gehiago luzatu zen egoera

MAIDER PETRIRENA

Urriaren 20ko gauerd inguru horretan haizetearen ondorioz argirik gabe gelditu zen herria. Horrez gain, hainbertzeko haizeak izugarrizko kalteak ere eragin zituen.

Argindarrik gabe urriaren 21eko 15:15 inguru bitarte egon zen herri osoa, baina baserri batzuetan, ondotik ere argindarrik izan gabe segitu zuten. Momentu zailak pasatzea suertatzen da halakoetan, gaur egun elektrizitaterik gabe deus ez baikara.

Ondorengo bideetan izan ziren kalteak: Apezenekobor-



Zuhaitza bidera eroria.

da eta Ordonbordako bidea, Okinenekoborda-Jaraujar-Ponsenekoborda- Istolako bidea (kalte aunitz izan ziren), Bide Berdea- Doneztebe (oraindik erabat garbitu gabe dago) eta Igantzi aldera, Suspiro, Ukuluko bide zaharrean, etab.

Sunbilla · Tel: 948 450 862

Carnes Sein Haragiak, S.L.
 Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
 T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Udalak aurreikusitako ekitaldiak bertan behera utzi ditu

Egoerak hobetzen denean, antolatuko dituztela eta jakinaraziko dutela adierazi dute

MARGA ERDOZAIN

Ostalaritza gunek itxita (etxe-
raeramateko zerbitzua emanaz)
eta gainerako dendak eta esko-
lak martxan. Horixe da egungo
irudia. Horrekin batera, aipatu
behar da San Miguel ikastetxean,
azkeneko hamabortzaldian, bi
taldek konfinatuak egon behar
izan dutela.

Osasun zentroan PCR eta test
azkarrak egunero egiten ari dira,
bai osasun zentro berrian bai-
ta zaharreen ere. Zenbait egu-
netan proba aunitz egin dituz-
te eta eskualdeko jendea proba
horiek egitera gureru etortzen

da, Iruñera joan gabe. Tantara
baina ikusten denez, egunero
kutsatutakoak agertzen ari dira.
Ondorioz, neurriak eta proto-
koloak «xero-xero» betetzen
jarraitu behar dugu.

Agendako ekitaldiak bertan behera

Egoera ikusita, udalak azaro-
rako aurreikusitako ekimenak
eta kultur jarduerak momentuz
bertan behera uztea erabaki
du. Aitzinera begira, egoerak
ahalbidetzen badu antolatuko
dituzte eta horren berri zabal-
duko dute.

Errigora kanpaina azaroaren 12ra arte indarrean

Errigora kanpainaren barne,
eskaerak azaroaren 12ra arte
egin daitezke. Euskarari bul-
tzada ekonomikoa emateko
hiru aukera eskaini dituzte
eta saskien irabazien %25a
eta bertze bortz euro AEK,
ikastola eta Sortzenentzat
izanen dira.

Azaroaren 25aren bueltan, irakurketa gomendioa

Azaroaren 25aren bueltan,
hau da, Indarkeria Matxista-
ren Aurkako Egunaren hari-
ra, herriko liburutegitik libu-
ru batzuen gomendioa luza-
tuko dutela aitzineratu nahi
izan dute. Adi sare sozialei,
egin kasu gomendioei eta
gozatu!



Urriko haize bolada gogorren ondorioz zuhaitzak erori ziren Intzakardin.

Erabilgarri dago berriz ere Intzakardi parkea

MARGA ERDOZAIN

Urriaren 20tik 21era arteko
arratsean izan ziren haize bo-
lada bortitzek Intzakardi par-
kean zuhaitza andana bota
zituzten. Dagoeneko denak
kendu dituzte eta udalak bo-
tatako arbolez gain, arriskuan
ziren adarrak eta bertze ale
batzuk botatzeko aprobetxatu

du. Izugarritzko txikizioa izan
arren, berriki berritu duten
parkeko jolas eremuan eta gai-
luetan ez da inongo kalterik
izan. Parkean ez ezik, bide
berdean ere zuhaitz anitz ero-
ri ziren eta parkea eta trenbidea
hainbat egunez itxita egon
ziren, herritarren segurtasuna
bermatzeko.

Idazketa tailerra bertan behera utzi dute

Idazleen tailerra, momentuz,
bertan behera utzi dute ar-
duraduna Iparraldean bizi
delako eta bertaratzeko ara-
zoak dituelako (Iparraldeko
egoeraren ondorioz). Berriz
ere martxan paratzen dute-
nean informazioa eta argibi-
deak zabalduko dituzte.

Ipuinen Txokoa Zoom bidez azaroan ere

Ipuin txokoaren emanaldiak
Zoom-en bidez izan dira az-
keneko asteartetan eta ho-
rrela izanen dira azaroan ere.
Haizea Loirak bideratutako
emanaldi hauek etxetik ja-
rraitzeko aukera ezin hobea
dute 0-3 urteko txikiek,
11:00etatik 12:00etara.

Ainhua Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut.
Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

caser
residencial

www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimer eta bestelako demenziak dituzten gaixoen zentroak
- Egunezko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Iruñ, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - Iruñ | Tel.: 943 667 780

BETHARRAM | Zubleta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Helpbidea proiektua martxan da Ezkurran ere

Baserri eta bordetan hasiak dira identifikazio-plakak jartzen eta gero herriko etxeetan banatuko dituzte

JAIONE ZABALO

Larrialdi kasuetan medikuak, suhiltzaileak eta, orohar, zerbitzu publikoak baserrietara ahalik eta lasterren ailegatzeko oso garrantzitsua da Helpbidea proiektua. Nafarroako Gobernua, tokian tokiko udalen laguntzarekin, lurralde osora zabaltzen ari den egitasmoa da eta, dagoeneko, hainbat herritan indarrean jarria dute. Gure inguruan aitzindari ziren Leitza, Areso, Goizueta, Arano eta Zubieta eta, pixkanaka, herri guztietara ailegatzeko lanean ari dira. Ezkurran ere,



Identifikazio plakak paratuko dituzte.

Nafarroako Gobernuarekin eta Tracasa enpresa publikoarekin elkarlanean, identifikazio plakak paratzen hasiak dira. Baserri eta bordetatik hasi diren arren, gero herriko etxeetan banatuko dituzte.

Ezkurrako Udalak desfibriladorea paratu du medikuaren kontsulta atarian

JAIONE ZABALO

Ezkurrako Udalak desfibriladorea paratu du mediku kontsultaren (udaletxearen azpiko solairuan) atarian. Larrialdi egoeran hil ala bizikoa gerta daitekeen bitartekoa eskuragarri jarritz, herritarren segurtasunaren alde egin nahi izan du.



Mediku kontsulta atarian paratu dute.

Egur loteak eskatzeko deialdia egin du Iturengo Udalak

ARKAITZ MINDEGIA

Bertze urteetan bezala, Iturengo Udalak egur loteak eskatzeko deialdia egin du. Eskaerak aurkezteko azken eguna azaroaren 16a, astelehena, izanen da eta 14:00 arte eraman ahal izanen dira. Loteak etxean jasoko dira eta

eskatzaileek egurra atera eta eramatea ordaindu beharko dute. Loteak zazpi tona ingurukoak izanen dira eta familia bakoitzak gehienez bi eskatzen ahalko ditu. Horrez gain, herriko lursailean uzten direnean hilabeteko epean moztu beharko direla jakinarazi dute.



Bainuetxea bertzerik jakinarazi arte itxita izanen da.

Ostatuak itxita azaroaren 18ra arte gutxienez

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak ostalaritza ixteko agindua heldu den asteazkenera arte luzatzea erabaki zuen azaroaren 3an. Hori horrela, eskualdeko ostatuak itxita daude. Eragina nabaria da eskualdeko herrietan, karrikak hutsik ikusten dira, tristura arnasten da eta

eguraldia lagun izan den egunetan mendira jo du jendeak.

Irekiera eguna ez dago zehaztuta, eta Elgorriagako Bainuetxeak, erraterako, bertzerik jakinarazi arte, horrela segituko du. Jatetxea itxi ondotik, erreserbak bertan behera gelditu zaizkie eta, ondorioz, 40 langile ERTera joan dira.

Iturengo eskola eraikitzeko lanak urte bukaerarako akitzea espero dute

TTIPI-TTAPA

Carlos Gimeno, Hezkuntza sailburuak, azaroaren 2an aurkeztu zuen heldu den urterako Hezkuntza Azpiegituren Plana. Departamentuak Nafarroako sare publikoko ikastetxeak eraiki, egokitu edo hobetzeko 21.569.362 euro erabiliko dire-

la argitu zuen. Modu berean, urte bukaerarako Iturengo Pulpina eskola berriaren eraikuntza akituta egotea aurreikusi dute. Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxei dagokienez, Oronozko Baztan Ikastetxe Integratuaren proiektua idatziko dute.

Errigora saskiak eskatzeko hondarreko egunak

F. ETXEKOLONEA

Nafarroahegoaldeko produktuekin osatutako Errigora saskiak (beltza, berdea eta zuria) eskatzeko hondarreko egunak dituzte. Azaroaren 12ra arte eska daiteke Alix Gereka (650 77 57 36) edo Iker Gorosterrazurekin (662 13 13 68) harremanetan jarritz.



2020

ERAIKUNTZA

gehigarria



SUKALDEAK

Etxetresnak
Pareta-armairuak
Sukalde eta bainugelako altzariak



T. 948 450 925

M. 677 525 324

Amezitia zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE



BIZILAGUNEN KOMUNITATEAK

Igogailua jartzearen arazoa

Bizilagunen komunitatearen gehiengoak igogailua jartzea erabakiz gero, obra egin eta denen artean ordaindu beharko dute, nahiz eta obraren kontra egon.

- 1. Zer dio legeak?** Orain, bizilagunen komunitateak duela urte batzuk baino errazagoa du igogailu bat jartzeko. Etxeak Zaharbertitzeari buruzko Legeak igogailua jartzeko aukera ematen du, jabekideen gehiengoak hala erabakita, eta, aldi berean, partaidetza-kuotaren gehiengoak izanez gero.
- 2. Eta oztopo arkitektonikoak kentzeko baldin bada?** Legeak dio kasu horietan oztopo arkitektonikoak kentzeko igogailua eraiki daitekeela jabeen batzarrean akordiorik lortu gabe ere. Eta ez hori bakarrik, desgaitasunen bat duten pertsonen eta eraikinean bizi diren edo lan egiten duten 70 urtetik gorakoei sarbidea errazteko igogailuak jartzea ere baimentzen du.
- 3. Zer gertatzen da botorik eman ez dutenekin?** Bizilagunen batzarretara ez dira beti denak joaten. Bertaratu ez direnek igogailua jartzearen alde bozkatu ahal izateko, **lehenik eta behin, joan direnen aldeko akordioa lortu behar da**. Beharrezkoa den *quorum* bikoitza lortu bada, akordioa jakinarazi behar zaie bertaratu ez direnei, eta horiek 30 egun naturaleko epea dute beren iritzia emateko. **Denbora horretan kontra egiten ez badute**, igogailua jartzearen **aldeko botoa eman dutela ulertuko da**.
- 4. Igogailua jartzearen kontra daudenek ere ordaindu behar dute?** Bai. Instalazioarekin ados egon ala ez, jabeek igogailuaren kostua ordaindu behar dute dagokion kuotan. Komunitateko batzarrean legeak eskatzen duen *quorum* bikoitza lortu baldin bada, bizilagun guztiek nahitaez ordaindu beharko dute, baita norberari dagokion zatiak bere komunitateko gastuen 12 hilabeteko kuoten batura gaindizten badu ere.

- 4. Non jar daiteke igogailua?** Igogailua eskaileraren zuloan jarri ohi da. Baina beti ez da tokirik izaten, batez ere etxe zaharretan, eta horrek zaildu egiten du obra, eta baita garestitu ere. Tarterik ez badago, patioan (edo, batzuetan, fatxadan) kokatu ohi da. Konponbide hori posible ez denean, eskailera bota eta igogailua jartzeko adinako zuloa eginen da, eskailera berria bertze nonbait kokatuz.



Igogailuen instalazioak. Multimarka mantentze-lanak eta erreformak.

T. 948 232 400
www.inelsazener.com



BIDASOA
ascensores

IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA



IRUN: Primautzar 19 - T. 943 05 90 53
ERRETERIA: José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49



PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com



- 1 KANPOKO IGOGAILUAK**
Kanpoko fatxadetan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.
- 2 BARRUKO IGOGAILUAK**
Eskailerako tarteren integratuak. Sarbidea portal barrutik. Inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako egokitu.
- 3 IRISGARRITASUNA**
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



*Etxeak aldatzen ditugu...
Gauzak aldatzen ditugu*

Nasuvinsa 
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK

*Etxebizitza, hirigintza
eta lurraldeko
garapen jasangarria*

NORI

- > Eskualdeko pertsona fisikoak
- > Bizilagunen komunitateak
- > Alokairuko sustatzaileak

GURE ESKAINTZA

- > Etxebizitza eta eraikuntzen zaharberritzea
- > Inguratzaile termikoen hobekuntza
- > Oztopo arkitektonikoak ezabatzea

NOLA

- > Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak %50 erainokoak
- > Elkarlana eta laguntza egokituta

BAITA...

• Etxebizitza
publikoen
sustapena

• Alokairu
Poltsa

• Hirigintza

• Garapen
jasangarria

• Lurzoru
industrialak

LEITZA / BAZTAN-BIDASOA / ESKUALDE BULEGOA

INFORMAZIO GEHIAGO
www.vivienda.navarra.es



LEITZA

Leitzako udala - 948.510.009

DONEZTEBE/SANTESTEBAN

Mercaderes 6 - 31740 Doneztebe/Santesteban
948.456.103 - baztan-bidasoa@nasuvinsa.es



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

larreta lanak sl

IGELTSU PROIEKTUA
PLADUR LANAK

Bera - Nafarroa
larretailgitsua@gmail.com
larretalanak.com

Gorka Arretxea 627 225 514 Juanen Saralegi 637 921 299

Gestel

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 • 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

- ▶ TDT instalazioak
- ▶ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- ▶ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- ▶ Satelite bidezko interneta
- ▶ Internet konexio simetrikotik ultralastera
- ▶ Zuntz optikoa (Fibra optika)

EZKAIN eraikuntzak S.L.



Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com



GAZMENDI
ERAIKUNTZAK

DONIBANE KARRIKA
GURE BORDA • SUNBILLA
T. 948 450 130 - 948 451 666
M. 619 469 784

ETXEAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK | 2019ko datuak

2019: ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZE ESPEDIENTEAK

Herria	Espedient. kop.	Etxebizitz. kop.	Aurrekontua	Dirulaguntza
ARANO	0	0	0	0
ARANTZA	5	5	150.140,59	45.760,06
ARESO	1	1	71.646,63	12.000,00
BAZTAN	29	100	1.396.412,31	563.700,20
BEINTZA-LAB.	0	0	0	0
BERA	19	75	1.162.996,42	504.835,64
BERTIZARANA	7	15	342.746,52	81.293,55
DONAMARIA	1	1	19.667,74	8.850,48
DONEZTEBE	7	18	263.193,65	94.984,13
ELGORRIAGA	0	0	0	0
ERATSUN	2	3	31.615,996	12.177,44
ETXALAR	4	4	135.046,62	24.799,87
EZKURRA	0	0	0	0
GOIZUETA	1	1	39.611,90	3.961,19
IGANTZI	5	6	222.099,37	42.081,53
ITUREN	2	4	178.537,98	38.173,75
LEITZA	11	73	1.396.695,14	432.271,80
LESAKA	11	35	685.670,80	244.537,08
OIZ	0	0	0	0
SALDIAS	0	0	0	0
SUNBILLA	4	4	99.286,47	44.678,92
URDAZUBI	0	0	0	0
URROZ	0	0	0	0
ZUBIETA	2	2	19.152,22	4.700,84
ZUGARRAMURDI	0	0	0	0
Denera	173	285	6.103.261,82	2.142.845,29

2019an 2.142.845 euro hartu ziren laguntzetan, 2018an baino %36 gehiago. 2020an, aldiz, COVIDaren krisia dela eta, urriaren 1a bitarteko jarduerak %15 murriztu dela nabaritu dute Nasuvinsak Donezteben duten bulegoan, 2019ko epe berarekin konparatuta.

Etxeak zaharberritzeko laguntzak %36 hazi ziren iaz, 2018arekin konparatuta

Laguntza eskaerak urte osoan egin daitezke baina beti, obra hasi baino bi hilabete lehenago, gutienez

2018arekin konparatuz, 2019an, nabarmen igo dira zenbakiak: tramitatutako **espediente kopurua (+88)**, **onuradun izan diren etxebizitzak (+10)** eta egin den **inbertsioa (+1.537.225 €)**.

ESKATZAILE IZATEKO BALDINTZAK?

- Etxebizitza ohiko bizitoki iraunkorra izatea.
- Etxeak 25 urte baino gehiago izatea, pertsona desgaituentzat egokitzeko edo derrigorrezko arau teknikoak betetzeko baldin bada salbu.
- Obraren **aurrekontu babesgarria etxebizitzako 2.000 eurotik gorakoa** izatea.
- Obrak **hasi gabe egotea**. Behin-behineko kalifikazioa egiten denetik, obra sei hilabeteko epean hasi eta 36 hilabeteko gehienezko epean bukatzea da.
- Etxeak 50 urte baino gehiago duenean, beharrezkoa da EETA izatea (**Eraikinak Ebaluatze-ko Txostena**).
- Eskatzailearen diru-sarreraren, adinaren eta etxearen antzinatasunaren arabera emanen da dirulaguntza.

Nasuvinsak tramitatzen ditu Baztan, Bertizarana, Bortzirriak eta Malerrekan etxeak zaharberritzeko laguntzak

948 456 103 DONEZTEBE

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzakoek, aldiz, Sakanako Mankomunitatera deitu behar dute (EZABU)

948 576 293 LAKUNTZA

DIRULAGUNTZAK ZERTARAKO?

Dirulaguntzak bizitokiaren barneko obrak egiteko eta etxearen elementu komunitarioak (teila-tua, eskailera, fatxada...) zaharberritzeko izaten ahal dira:

- Etxearen egitura edo funtzionamendua egokitzeko (teilatua, fatxadak, igogailua, elektrizitatea, iturgintza,...).
- **Eraginkortasun energetikoa hobetzeko** (isolamenduak, berokuntza sistema jarri edo aldatu, galdara edo leihoak aldatu...).
- **Irisgarritasuna hobetu eta trabak kentzeko** (elbarriendako eta adinekoren oztopoak...).
- **Bizigarritasun baldintzak hobetzeko** etxe barneko obrak (bainera kendu eta dutxa jartzea, hodiak eta txorrotak aldatzea...).
- Etxeetan bizitzeko egokia den azalera handitzeko (120 m² erabilgarri arte) eta etxebizitzak egiteko, lehendik dauden etxebizitza handiak zatituz.
- Indarrean dauden lege eta araudietara egokitzeko.
- Etxea desgaitasunen bat duten pertsonentzat egokitzeko dirulaguntza bereziak daude.

BIZILAGUNEN KOMUNITATEAK

Dirulaguntza bolumenik handiena urte batzuk dituzten etxebizitzetan **igogailua jarri eta traba arkitektonikoak kentzeko, leihoak aldatzeko eta berokuntza sistema efizienteagoa instalatzeko** izaten dira.

LAGUNTZA HAUEK 2020ko ERRENTAREN DEKLARAZIOTIK SALBUETSIK DAUDE

Etxeak zaharberritzeko Nafarroako Gobernutik 2020an hartu diren laguntza hauengatik, datoren urtean Errenta Aitorpena egiterakoan ez da ordaindu beharko.

ESKAERAK TRAMITATZEKO EDO INFORMAZIOA ESKATZEKO, TELEFONOZ DEITU BEHAR DA LEHENIK

Osasun larrialdiak irauten duen bitartean, hitzordua hartzeko telefonoetara deitu behar da.

Datuak:

Nasuvinsa eta Sakanako Mank. (EZABU)

Igogailuak instalatzeko eta leihoak aldatzeko eskatzen da dirulaguntza gehien.

Bizilagunen komunitateetan igogailua jartzeko eta traba arkitektonikoak kentzeko, leihoak aldatzeko eta berokuntza sistema eraginkorragoak instalatzeko izaten da dirulaguntzen bolumenik handienak.

Urtetik urtera bizigarritasun-zedulen eskaerak ere goiti egin dute: 2015ean 26, 2016an 32, 2017an 59, 2018an 60 eta 2019an 82. Horrek adierazten du notariako salerosketa kopurua handitu dela azken urteotan.

Tel. 948 452 394
Saskaitz Plaza,
31700 Elizondo

Maite Petrarena

Aseguru agentzia - Agencia de seguros

Allianz



**CONSTRUCCIONES
A. BENGOTXEA**

- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

URDAZUBI

Tel. 948 599 166 www.carrelagesbengotxea.com

sasoi eraikuntzak

Leku-eder, 16
31791 SUNBILLA (NAFARROA)
T. 948 451 596 | F. 948 456 168
info@sasoi.es



arteka

ARKITEKTURA ZERBITZUAK

www.artekabaztan.com

Balda Medikua Plaza, 1-1A | 31700 ELIZONDO
948 580 610



Baztan-Bidasoko lehen
Passivhaus eraikin ziurtatua





- Inmobiliaria
Baserrri, berrak, pisu, etabi, salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



- Tratu pertsonala
- Zure beharrianak asetzeko
- Kompromisoa eta segurtasuna
- Pertsona erabakigarriak



T. 948 45 25 29 • 628 35 71 38
Santiago, 78 - ELIZONDO • jfagoagaleiza@gmail.com

ASEGURUAK

Zaindu eta babestu maite duzun hori



Jakintzat jo beharrean, komeni da aseguruan zer sartzen den ongi irakutzea, etxeko ondasunen balioa zehaztea eta balio hori aseguruan sartuta dagoela baieztatzea.

Aseguru garestienak estaldurarik hoberenak eskainiko dituela pentsatzeko joera dute batzuek. Bertze anitzek, aseguru guztiek gauza bera babesten dutenez, merkeena kontratatzea erabakitzen dute. Baina, errealitatean, erabaki hau hartzea, dirudiena baino zailagoa da:

Aseguru bat aukeratzeko momentuan hainbat faktore kontutan izan behar dira: pertsonaren adina, bizilekua, lana eta zaletasunak...

Era berean, etxebizitza baten aseguruua kontratatzea aseguru pertsonala bezain garrantzitsua da. Lokal baten egoera, kokaleku geografikoa, zein aktibitatean diharduen, lapurreta edota suteak eragozteko babesa duen jakitea erabakigarria da.

Eskatu aurrekontuak eta konparatu kalitate-estaldura-prezio erlazioa eta bakoitzaren aldeko nahiz kontrako abantailak. Sinatu aitzinetik, aztertu arretaz polizaren baldintza orokor eta bereziak, eta ongi irakurri klausula guztiak



MAPFRE

Konfiantza osoko aseguru-etxea

IBILGAILUAK | ETXEA | BIZITZA ETA OSASUNA | PENTSIOAK | INBERTSIO PRODUKTUAK

BERA

Bidasoa, 16 T. 948 63 10 14

DONEZTEBE

Nagusia, 2 T. 948 45 08 80

ELIZONDO

J. Urrutia, 8 T. 948 58 03 76

LEITZA

Elgoien, 6 T. 948 51 04 99

LESAKA

PL Zaharra, 28 T. 948 63 72 20



mañonea

ZURE KOMUNIKATEKO KUDEAKETAK BURUKO MINA SORTZEN DIZU?

- Ez duzu ez denborarik, ez gogorik?
- Ez dakizu ongi egiten ari zaren edo ez?
- Zure erabaki edo ekintzetako batek izan ditzakeen ondorioen edo legearen barnean ez dagoen zerbaiten beldur zara?
- Zure barrideari erreklamazio bat egin behar diozu eta gogorra egiten zaizu?
- Konponketa bat egin behar duzue eta aurrekontuak eskatu behar dituzue? Obraren segimendua, etab.

EZ GEHIAGO ARDURATU

Irtenbidea erraza da. Jar zaitez gurekin harremanetan eta zure komunitateaz gu arduratuko gara. Urte luzeetako esperientzia dugu komunitateen kudeaketan. Lasai bizi zaitez. Denbora aurreztuko dizugu, gustukoa duzuna egiteko. Zeren esperioan zaude? Jar zaitez gurekin harremanetan.

e-maila: info@mainonea.com • Tel. 948 58 11 32 - 606 89 68 43 • Braulio Iriarte, 9 • ELIZONDO
www.mañonea.com

ARKITEKTOAK



Etxea ez da teilatutik hasten

Arkitektoa eraikuntza prozesu guztiaren ezagutza globala eta integratzailea duen profesionala da, ikuspegi estetiko zein funtzionala garatzen duena.

Ingeniaritzan, arkitekturan eta delineazioan espezializatutako enpresak proiektuak idazteaz, lanak kudeatzeaz eta obrak zuzendu nahiz gainbegiratzaz arduratzen dira, batik bat.

Haien helburu nagusia bezeroei beren premiekin bat datorren tratu hurbila eta zintzoa ematea da. Eginkizun hau betetzeko, zerbitzu integral eta pertsonalizatuak eskaintzen dituzte.

Zerbitzuak azkarra izan behar du, proiektuen garapenean sor litezkeen arazoak agudo konpontzea ahalbidetzen du, errate baterako: legeztapenak, kudeaketak, aldaketak eta moldaketak.

Proiektua martxan jarri eta obran esku hartuko duten gainerako profesionalak koordinatzeaz arduratzen dira, bezeroei zenbait buruhauste saihestuz.

Bertzalde, mota honetako enpresek legediaren eta bezeroen beharrianen araberako bermea eta erantzukizun zibila dituzte berekin.



Zertaz arduratzen dira azterketa geologikoak?

- Obra linealak: errepideak eta trenbideak eraikitzeaz.
- Egiturak, hala nola: paretak, zubiak, biltegiak, etab.
- Tunelak eta lurpeko hondeaketak.
- Obra hidraulikoak: hornidurak, saneamenduak, gasbideak sortzeaz.
- Urbanizazio berriak diseinatzeaz.
- Hondakindegia kokatzeaz.

Alejandro Martin
ARKITEKTO TEKNIKO

• PROIEKTU ARKITEKTONIKOAK

• OBRETAKE LAGUNTZA TEKNIKOAK

- Industria eta merkataritzako eraikuntza eta instalakuntza.
- Obra zibila
- Etxegintza

• TOPOGRAFIA ETA GEOMATIKA

• INSTALAZIO ETA ERAIKINEN MANTENTZEAREN KUDEAKETA

• KONTSULTAK, TXOSTENAK, PERITAZIOAK

ENIK

Garaialde etxea - ELBETE-BAZTAN

T. 948 580 988 - 619 462 665 - amartin@atnafarroa.org

GEEA
ESTUDIOS GEOLÓGICOS

IKERKETA GEOTEKNIKO ETA HIDROGEOLOGIKOAK
edozein eraikuntzarako zimentatzeak,
eraikuntza zibila, lurpeko urak, ingurugiroa

www.geea.es

696 435 907 • 606 507 335

Philippe GAMOY
Geologoa

IKERKETA
Geologikoak
Geoteknikoak
Hidrogeologikoak
Ingurumenakoak

Zimentazioak • Lur azpiko urak
Ezponden egonkortasuna • Zabortegeiak

Xalbador Kalea, 28 - 31700 ELIZONDO (BAZTAN)

620.796.005 - ph.gamoy@yahoo.com

LABORRA ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -

Etxebizitza berriak
Zaharberritzeak
Hirigintza
Ziurtagiri energetikoak
Eraikinen Ebaluazio Txostenak (IEE)

www.laborra.com

Santiago 66, 1º ELIZONDO 948.580.122



ARKITEKTOAK

Etxe bat eraikitzerakoan oinarri sendo bat izatea ezinbertzekoa da

Eraikuntza bat abiatzerakoan hainbat egitura sistemen artean aukera dezake bezeroak: egurrezkoa, egitura metalikoa, altzairu arin nahiz astunekoa. Hona hemen merkatuan eskaintzen diren bi oinarri erabilienak:

Egurrezko egitura

Ezbairik gabe, egurrezko egitura da antzinatasun handiena duena eta gehien erabili eta erabiltzen den egitura. Arrazoen artean nagusia materialaren ugaritasuna, berriztagarria dela eta bere kostua jende anitzek dagoela. Desabantailen artean, aldiz, merkatuan dauden bertze material batzuk baino errazago hondatzen dela da.

Kalibre arineko altzairuzko egitura

Altzairua da azken urte hauetan gehien ugartzen ari den eraikuntza materiala. Izan ere, material honi esker, eraikinak denbora gutxian eraiki daitezke. Eraikuntzetan altzairua habeeetan, muntaketan eta plaketan erabil daiteke. Gainera, pieza bakoitza geruza galbanizatu batekin babestuta dago. Orain arte, material hau, batez ere, merkataritza-eraikinetan erabili izan da, baina gaur egun, bezero anitzek euren etxeetako oinarri gisa erabiltzea erabaki dute.



Ipar karrika, 15
31780 BERA
T. 948 630 304 • 627 955 349



MAITE
MANGADO
ARKITEKTURA
& DISEINUA

T +34 653 035 091 | www.maitemangado.com

Eraiki behar den eraikinak zein egitura izan behar duen erabakitzeko, garrantzitsua da proiektua argi definituta izatea eta honi hobekien egokitzen zaion egitura identifikatu ahal izatea.

mitxel **etxenike etxandi**
javier **oteiza larretxea**



EFIZIENTZIA HAUNDIKO ERAIKINETAN ADITUAK



jaime urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) | tel. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com

Passivhaus etxe bat edozein enpresa edo harginek egin dezake

Kontsumo energetiko baxua duten eraikinak egiteko eraikuntza kontzeptuari deitzen zaio Passivhaus. Edonoren poltsikora egokitzen da eta barne erosotasun maila altua eskaintzen du. Hauexek dira Passivhaus batek bete behar dituen oinarritzko printzipioak:

- **Isolamendu termiko ona.** Eraikuntza-ren inguru osoan isolamendu termiko altua izatea bilatu behar du.
- **Zubi termikoen kontrola.** Berotasuna nondik galtzen den identifikatu behar ditu. Honetarako, elementu ezberdinen junturak ongi elkartu direla egiaztatu behar da galtze energetikoak saihesteko.
- **Kanpo zurgintza kalitate onekoa.** Zurgintza eta beiraren kalitatea bezain garrantzitsua da hauen instalazio egokia egitea.
- **Haize-estankoa.** Eraikuntza barnean nahi ez diren haize filtrazioak saihestean datza.
- **Aireztapen mekanikoa.** Barneko haizearen berotze-energiaren zati handi bat berreskuratzen datza.

Oinarritzko bortz printzipio hauek betetzeko prozedura osoa kalkulu zehatz baten bitartez egin behar da. Passivhaus etxe baten kostua etxebizitza tradizionalen kostutik %10ean hazten da, baina gehikuntza hau 8-10 urtez berokuntza kontsumoan berreskuratzen da.

Ohiko etxeekin alderatuta, berokuntzan, Passivhaus etxeek %75-90 aurrezten dute. Aurrezpen hau lortzeko, eman behar-reko lehen pausua tokiko baldintza klimatikoak aprobetxatzeko eraikuntza diseinua lantzea da.



LOKALEN EGOKITZEAK
ERAIKUNTZA BERRIAK
ZAHARBERRITZEAK
BARNE DISEINUA
AHOLKULARITZA
PASSIVE HOUSE
TEILATUAK BERRITZEKO
SEGURTASUN ESTUDIOAK
KALIFIKAZIO ENERGETIKOAK, ...

IRURITA

DOARQ
arkitektura bulegoa
maite & idoi danboriena olaetxea
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6

OTEIZA 53 urteko esperientzia
Proiektuen kudeaketa
urbanistikoa
osoa egiten dugu,
hasieratik amaierara

ARKITEKTOAK

LEHEN ORAIN

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

ecohouse
bioconstrucción · bioeraikuntza

Distribuidor Oficial
KUUSAMO
LOG HOUSES



Zurezko egitura duten etxe pasibo eta ekologikoak

- Obra berria eta birgaitzea
- Passivhaus ziurtagiria
- Eraginkortasun energetikoa
- Etxe osasungarria
- Diseinu pertsonalizatua
- Gauzatzeko azkartasuna

Energia-kontsumoa ia zero

Toda Aznárez kalea, 1, baxua - 31014 Iruñea (Nafarroa)
Tel. 630 550 527 - alfonso@eco-house.es

www.eco-house.es





ATEAK • LEIHOAK • KONTRALEIHOAK • SUKALDEAK
ARMAIRUAK NEURRIRA • TEILATUAK • PARKETA • TARIMA



31745 - ITUREN • T. 689531012

Carpintería

Lizasoain, S.L.

ERREFORMAK OROKORREAN
LEIHOAK • ATEAK • ESKAILERAK
ARMAIRUAK • SUKALDEAK • PERSIANAK

948452077 - Zaldubia ind. • 31730 IRURITA
carpinteria.lizasoain@gmail.com

DEKORAZIOA



Izaera duten paretak

Pareta deigarriak boladan daude. Hartara, paretetan bi, hiru edo lau kolore nahiz testura ezberdinak nahastuko dira. Paretek gelaren protagonismo osoa bereganatuko dute.



Etxetresna adimenduak

Smart homerako joera are gehiago hedatuko da 2020an. Adibide gisa: wifi bozgorailuak eta Internet bidez funtzionatzeko duten etxetresnak hedatzen hasiko dira.



Bihurgune bihurriak

Goiti begira jarriko gara, lanparek garrantzi berezia hartuko baitute. Forma bihurgunetsu eta borobilek gelari dinamismo eta izaera handia emanen diote.



Oinarrira bueltan

Iraunkortasun eta ekologiarekin loturiko material naturalen joerak indarrean segitzen du. Horrela, eragin ekologiko txikiarekin osatutako altxariak hobetsiko dira.



- Sukaldeko eta komunetako entzimerak egiten ditugu.
- Hilerriko plakak eta hilarriak.
- Zoruen eta paretan estaldura.



Iruñea Irun errepidea, z/g.
Oronoz-Mugairi (Nafarroa)

T. (+34) 948 592 325
F. (+34) 948 592 295

info@marmolesamezti.com
www.marmolesamezti.com


Apezteguia Berria

ferretería – burdindegia



Margoak eta barnizak
Erreminta elektrikoa
Esku erreminta
Konpresoreak
Lanerako arropa
Baratzea lantzeko tresnak

...eta baita
Gel hidroalkoholikoak
Mota desberdinetako maskarilak



www.apezteguiaberria.com - info@apezteguiaberria.com

- Leitzako Errepidea 33, Doneztebe - T. 948 450 994 - F. 948 450 882 -



Apezteguia Elizalde
ARKITEKTOAK

OBRA BERRIA
LOKALAK + BARNE DISEINUA
JARDUERA SAILKATUAK
ZAHAR + BERRITZEAK
TEILATU BERRITZEAK

DONEZTEBE
T 626 261 990
laura@apezteguiaelizalde.com





Etxebizitzen salmenta

PROMOZIO ETA ERAIKUNTZA

Baztanberri Plaza, 2 behea ELIZONDO • T. 948 580 304
info@jbiturria.com • www.iturriaviviendas.com



Construcciones
URBALLO, S.L.

hargin lanak orokorrean

Luis Gaztelu, 6
31730 IRURITA
T. 610 367 000
610 367 009
c.urballo@hotmail.com



- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak:

Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuluak...

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!



IGELTSERITZA ETA ZURGIN LANAK

ESTRUKTURAK
TEILATUAK
FATXADAK
ZAHAR BERRITZE LANAK

Tel.: 661 735 052 • ARANTZA • SUNBILLA



Berriozar 19,
2. solairua - 41. bulegoa
31013 Antsoain (Nafarroa)
info@apezetxeanak.com
T. 948315200
www.apezetxeanak.com



ETXEAK, TEILATUAK eta
ERAIKUNTZAK OROKORREAN



Tfnoa: 948 615 110 | Mug: 699 461 386
Eguzkialde etxea 31749 EZKURRA

Mota guztietako igeltseritza lanak

JAVIER IBARRA
Eraikuntzak Construcciones
699 122 815

- Etxebizitza berriak
- Zaharberritzeak
- Konponketak
- Teilatuak
- Komunak eta sukaldeak
- Lurzoruak
- Harri-lanak orokorrean
- Hormigoi lanak

GREMIOEN KOORDINAZIOA - SUNBILLA (NAFARROA)

ETXEGILEAK



Marmol eta harri naturalak

2020ko joeretako bat formatu handiko baldosak izanen dira. Azken urteetan garatutako teknologia berrikuntzekin harri naturala irudikatzen duten baldosak instalatzea lan erraz eta dotorea bilakatu da. 2020an etxeko hainbat elementutan ikusiko da harria: paretetan, egongelako mahaian edo komunetan, bertzeak bertze. Diseinuko elementu gisa indarra hartzen ari da: tximinia inguruak, paretak... apaintzeko.

Granitoa, gneisa, kareharria, marmola eta arbela dira gehien erabiltzen direnak. Material naturalak izanik, eraikuntzan erabili aitzinetik landu egin behar izaten dira: harrobietatik erauzi, moztu, landu eta leundu. Gure lurraldean, eginkizun hau egiten duten hainbat enpresa daude.

Ohamiz Auzoa: z/g - LEKAROZ
T.948 452 143 - 948 452 449
info@harnlan.com
www.harnlan.com




EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEAN DITUGU



BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA →

ANTZUZELAI
S.L.

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com



HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK



Martin Tellechea
Tel.: 649 403 320
betilansl@gmail.com
EZKURRA



HARROBIA, GARRAIOAK,
ESKOLLERAK, ESKABAZIOAK
ETA ERAIKIN BOTATZE LANAK



Oronoz Frantzia errep. N-121-8. 43km Baztan - T. 948 592 111 / 660 501 584 | canterasaskape@gmail.com



eskabazioak S.L.



GARRAIDIKO OPERADOREAK
KAMIOIAK TRAKZIOAREKIN ETA BAINERA

LEKU EDER 13 - 31791 SUNBILLA

675 266 027 (ANDONI) 657 580 551 (JUAN LUIS)
BULEGOA 948 450 108 - 672 098 384

Covid-19 pandemiaren ondorengo egiturak

Itxiturak erabilita, obra handiegirik egin gabe, etxebizitzan metroak edota argitasuna irabaztearen aldeko apustua egin daiteke

Itxialdian igaro dugun denbora horretan etxe ideala nolakoa izan litekeen pentsatzeko denbora anitz izan dugu. Argi dago pandemia honek egunero-kotasuna ulertzeko moduan eraginen duela, eta, kasu honetan, baita etxea pentsatzeko eta eraikitzeke moduan ere.

Aditu anitzen ustez, pandemiaren ondotik hagitz estimatuak izanen dira espazio ireki eta moldagarriak, baita airea erraz aldatu daitekeen espazioak ere. Hortaz, balkoi eta terrazek inoiz baino garrantzi handiagoa hartuko dute.

Orain, arkitektura eta osasuna loturik egonen dira. Diseinu nahiz materialek etxean bizi diren kideen osasuna babestu eta bermatzea bilatuko da: airearen kalitatea, eguzkiaren argia, ura, soinuak eta materialak jasagarri eta osasunarentzat onuragarriak izatea.

Jar gaitezen kanpora begira!

Patioak, terrazak eta lorategiak ez dira udarako soilik. Hotzetik edota euritik babesteko itxitura bat eraikitzean neguko egun luzeetan irakurtzeko edo lagun artean tertulian egoteko espazio bat sor daiteke. Gainera, kanpo-espazioak egokituz urte osorako txoko bat izanen duzu eta obra handirik egin gabe espazioa irabaziko duzu.



ISOLATU ZURE ETXEA ETA AURREZTU

Isolamendu termikoa eta akustikoa

%50a aurreztu

Egun batean

Obrarik gabe



BEGIRATU ZEIN
ERRAZA DEN
APLIKATZEA

AislaNat, Nafarroan ekoiztutako zelulosazko isolamendu bakarra.

Isolatu zure etxea zelulosarekin, egun batean, obrarik gabe, gutxi gastatuta eta produktu ekologiko batekin.

A AISLANat
AISLANTE DE CELULOSA

948 33 00 15 - 627 41 22 69
www.aislantesaislanat.es

MAKINERIA



Lanerako prest!

Gure eskualdean hainbat dira eraikuntza-makineria eskaintzen duten enpresak. Aukera zabala eskaintzen dute:

- Hondeamakinak
- Kamioiak
- Kontainerrak
- Zisternak
- Garabiak

Zerbitzu hauek guztiak enpresa zein partikularrei eskaintzen dizkiete.

**Lurra mugitu,
lana egin behar den
tokia prestatu edota
eraikuntza-lanetan
sortutako hondakinak
kudeatu behar dituzte-
nean, enpresa hauek
tokian tokiko
beharretara
egokitzen dira.
Baita bezero guztien
beharretara ere.**

MIKEL UBIRIA

eskabazioak
garraioak

Biurrana 8 • 31770 Lesaka
948.637.302 • 619.716.322 • 608.779.641
info@excavacionesubiria.com



MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta
GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491



TRANSTXAKAIN

TRANSTXAKAIN. s.l.
JESUS ARAMBURU ALZUGARAY

Aurreztu!



ERAIKUNTZA-HONDAKINEN KUDEATZAILEA (Nafarroako Gobernuaren baimena)

KONTENEDOREEN ALOKAIRUA 20m³ arte

PUTZU SEPTIKOEN GARBITZE ETA LIBRATZE LANAK

MOTA GUZTIETAKO IBILGAILUAK

- Kamioia 15mko garabiarekin
- Kamioia 32mko garabiarekin
- Kaja baskulatzailarekin

• Zisternarekin:

- Putzu septikoak
- Tuberietako ataskoak kentzea
- Ura lekuz aldatzea

Otsango Ind. 14 • LESAKA • info@transtxakain.com
T. 669 840 198 | 948 638 052 • F. 948 627 578

LEITZELARREA S.L.

Aroztegi eta Galdereria

Landa Beikoa Industrialdea, 20
T. 948 510 598 M. 669 368 991
LEITZA

SILOAK

Uzta eta abereentzako pentsuak biltegitratzeko burdinezko egiturak

Siloen helburua pikor, hazi eta pentsu kantitate handiak luzaroan egoera onean daudela eta barnera hezetasunik sartuko ez dela bermatzea da

J.P. AGERREBERE



Karrozeria

Aroztegi Metalikoa
Industria-nabeak eta
granjak egiten ditugu



Zaldubi ind. IRURITA | T. 948 580 538 | 630 184 847

Siloa belar ebakia, garia eta bertzelako ale, hazi eta bazkak lehor gordetzeko egitura da. Eraikin bertikal eta zilindrikoa izan ohi da eta gure eskualdean, batez ere, nekazaritza testuinguruan erabili izan; nahiz eta gaur egun bertze elementu batzuk gordetzeko ere erabiltzen den.

Pentsua, irina edo alea siloetan biltegitratzeko baserriko siloak altzairu galbanizatuzko eta/edo poliesterezko xafraz egiten dira.

Abantailak

- Pikorraren har dezakeen hezetasun-edukia murriztea.
- Pikorrak, haziak edo pentsuak baldintza ezin hobean iraunaraztea.

Eraikin hauek hainbat materialekin egin daitezke: xafra galbanizatu, aurrelaketuzkoak, altzairu galbanizatu eta beira-zuntzezkoak... Materiala siloaren erabilera eta bertan biltegitratu nahi den produktuaren arabera izan da. Hala ere, egituraren eskema bat eta bera izan da: hanka indartsuak eta helmuga-ustiapenean zuzenean kalkulaturako eta muntaturako profilak.

Helburuak

Xafra galbanizatuzko siloen helburua pikor, hazi eta pentsu kantitate handiak luzaroan egoera onean daudela bermatzea da. Gainera, altzairu galbanizatuz egindako biltegitratze-siloak burdinazko egituren gainean zintzilik jar daitezke.

BI DASOA

Aroztegi metalikoa | Carpintería metálica

T. 0034 948 630 034 | 606 280 895

info@bidasoasl.com

Bidasoa Karrika 76 - 31780 BERA - Nafarroa

Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 - T. 948 58 14 18

31730 IRURITA

arotxa.taller@gmail.com

www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK

HÜRMANN

banatzaile ofiziala



AROTEGIA:

- Burdina
- Aluminioa
- Inox

BALKOIAK

TOLDOAK

BURDINESIAK

FORJA

AUTOMATIZAZIOAK

...

Egoera kaskarrean dauden leiho zaharrak kendu eta eraginkorragoak diren bertze batzuentatik aldatzea lan erraza eta azkarra izateaz gain, diruz lagundua den obra ere bada.

1 Aluminiozko leihoak

Tenperatura aldaketekin iraukorrak dira eta hainbat koloretan pinta daitezke. Gainerako materialak baino azalera tikiagoa izan ohi dutenez, kanpoko argia gehiago aprobetxatzea ahalbidetzen dute.



2 PVC leihoak

Isolatzaile termiko eta akustiko bikaina dira, hortaz, maiz, toki hotzetan erabiltzen dira. PVC material birziklagarria eta garbitzeko erraza da, ura eta xaboi arrunta baino ez baita behar.



3 Egurrezko leihhoak

Isolatzaile onak izateaz gain, estekoki hagitz ederrak dira. Ohituraz, gure eskualdeko etxebizitza gehienetan erabili izan dira eta egun ere erabiltzen dira.

4 Leiho mistoak

Arrazoi estetiko eta funtzionalak tarteko, gero eta gehiago erabiltzen dira. Adibidez, gero eta maizago ikus daitezke barnetik egurrezkoak eta kanpotik aluminiozkoak diren leiho mistoak.


**KORTA
ANAIA**

AROTEGI METALIKOA

Elutsa, 1 Alkaiaga Industrialdea 31770 LESAKA
T.F: 948 631 651
info@kortanaiak.com

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa

Burdina eta aluminioa

F. Joakin Iriarte, 6 • ELIZONDO
T. 948 580 337

ZUMARBEL
creaciones metalicas
Igantz (Navarra)
948 63 74 11

Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790 IGANTZI
T. 948 63 74 11
@zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es





AROZTEGIA
MAKINA ERREMINTA
ERAIKUNTZA MEKANIKOAK

Barandak, balkoiak, ateak,
 hesiak, forja artistikoa, ...

T./F. 948 638 150
M. 646 774 117

Otsango Ind. • 31770 LESAKA • talleresjoisa@hotmail.com
www.talleresjoisa.com






ECHEVERRIA
ZURGINDEGIA



ABANTAILAK

ESKATU AURREKONTUA KONPRIMISORIK GABE



Leitza errep. - 31745 ITUREN
M. 676 393 996 - T. 948 388 455 - F. 948 456 164
carpinteria@echeverria@yahoo.es

PERTSIANAK

Eguzkiaren onena? Itzala!

Leihoak eta pertsianak aldatzeko orduan komenigarri da aukerak ongi aztertu eta aurrekontuak eskatzea. Inbertitu erosotasunean, eta fakturan aurreztuko duzu

Leihoak egoera onean izatea bezain garrantzitsua da hauek babesten dituzten pertsianen egoera ere ona izatea. Pertsianen eginkizun nagusia etxean bizi direnak eguzkitik, eta kanpoko tenperaturaren hotz eta beroetatik babestea izan da. Gaur egun merkatuan hainbat materialetan egindako pertsianak ditugu aukeran:

Aluminiozko pertsianak

Instalatzeko errazak direnez, gaur egun gehien erabiltzen direnak dira. Temperatura aldaketekin iraunkorrak dira eta hainbat koloretan pinta daitezke.

Segurtasun pertsianak

Merkatuko bertz pertsianak baino zurrungaok dira, eta autoblokante izeneko sistema dute. Sistema honen bidez, ia ezinezkoa da pertsiana altxatzea. 4,5 metrora artekoa eta nahi den kolorean egiteko aukera zabala eskaintzen dute.

Pertsiana motorizatuak

Pertsiana motorizatuen artean ere aukera zabala dago: korronte zuzeneko motorrak, irati-motorrak, kable bidezko motorrak eta era guztietako maniobra-koadroak. Eguzki-planken bidez elikatutako motorrak ere badira. Motorizatutako pertsianen bizitza erabilgarria eskuzko pertsianena baino anitzez ere handiago da. Ez hori bakarrik, pertsiana arruntek baino arazo gutiago izan ohi dituzte, bezeroari hainbat buruhauste kenduz.



APITTU
ALUMINIO LANAK
PVC

Aluminiozko Leihoak, Kontraleihoak,
Ateak, Portxeko itxidurak eta barandilak

T./F. 948 638 297 | M. 626 312 326
Otsango auzoa - 12. pabilioia | 31770 Lesaka
apittulesaka@gmail.com



Aluminio R.P.T | PVC
Pertsianak | Toldoak
Itxiturak | Barandak
Kontraleihoak

PVC leihoen banatzaile ofiziala:

Somfy banatzaile ofiziala



T. 948 630962 M. 626 313162 H. 31780 BERA
irekileihoak@irekileihoak.com www.irekileihoak.com



Etxe jasangarrietarako
modu eraginkorrean
fabrikatutako leihoak.

deceuninck
sistemekin



Passive House
ziurtagiria duten
eraginkortasun energetiko
handiko profilak

$U_f = 0,88 \text{ (W/m}^2 \text{ K)}$

Etxe pasiboaren eskakizunak
baino isolamendu
handiagoa.

Energia-galera
minimoa.



Ahalmen isolatzailerik
handienekoa
sektorekoen artean.

Aurrezpena eta
jasangarritasuna.

**MADERAS
SANTESTEBAN**

Mendi lanak (Pinuak erosten dira)
Bigak • Montajea obran
Teilaturako egiturak
Izei, haritz eta douglasekoak edo laminatuak
Osagarriak • Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arrazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com

carpinteria

EZPELA
zurgindegia

Urruña, 2
31780 BERA
Tel.: 678 350 412 (Eloy)
617 081 335 (Matias)
eloyordoqui@hotmail.com

SERRERIA ALEMAN S.L

Teilaturako estrukturak (Douglas Pinua, Haritza...)
Tarima • Haritza, Izeia laminatua
KVH • Laminatuak • Egur trinkoa • Tratamenduak



Frantziako errep. 2-A ERRATZU
Tel. 948 453173 - Fax: 948 453082
serreriaaleman@gmail.com

ZURGINAK

Nolako zura, halako etxea!

Zura, berezkoak dituen estetika eta ezaugarri teknikoengatik, etxebizitzak eraiki eta janzteko erabiltzen da.

Zura betidanik izan da eraikuntzan gehien erabili den materialetako bat. Etxe barneko elementuak sortzeko lehengai nagusia bihurtu zen, oinarritzko bilakatuz altzari, lurzoru, objektu, moldura, estaldura eta abarretarako.

Egurra material bizia da, zuhaitzaren zati denean ez ezik, gure etxe edo eraikinetan dagoenean ere aldatzen dena. Hortaz, zainketa berezia eskatzen du. Zuraren presentzia dekorazio-joerei lotuta dago, eta modak ia urtero aldatzen badira ere, zura beti indarrean dago.

Errepara diezaiogun aurten, 2020an, dauden joerei:

Zaharrrak berri

Etxeko atmosferari berotasuna emateko, tonu naturalek garrantzia handia dute. Ageriko egitura-elementuak, zurezkoak, metalezkoak, edota harrizko akaberak, altzariekin ondi konbinatzen dute. Estilo honen erakargarritasuna zahar estiloa eta estilo modernoak modu egokian konbinatzen datza.



Zura beti izan da eraikuntzan gehien erabili den materialetako bat. Dekorazio modak eta joerak ia urtero aldatzen badira ere, zura beti dago boladan.

 **ITURRIONDO**
ZURGINDEGIA

parketak • atek • leihoak...
teilatuak • estrukturak • tarimak



Tel.: 607 890 923
607 890 966
Tel/Faxa. 948 631 430
Zalain Ind, 7 • BERA



Merkatuan material berriak agertu arren, egurra da materialik erabiliena gure lurraldean bai etxebizitzak eraikitzeko, baita etxea janzteko ere.

Juanotena Zurgina

639 855 120 Doneztebe juanotenazurgina@gmail.com

Teilatuak, eskailerak, lurrak, atek, leihoak,
kontraleihoak, persianak, armairuak, sarrailak...



Estilo nordikoa

Ageriko arrazoiengatik, hotza da nagusi. Kolore neutroak erabiltzen dira, batez ere zuria, eta harriarekin ongi uztartzen da. Irudi hau sortzeko, arkitektura nordikoan argi-sarrera handiak izatea ezinbertzekoa da.



Naturarekin harremanean

Gehiegizko bizitza teknologikoaren hedapenaren ondorioz, filosofia gisa, naturara itzultzeko joera indartzen ari da. Naturarekin harremanetan egon nahi dugu, material naturalei balioa emanez eta geletan landareak egotea estimatzen dugu. Gainera, energia gastua murrizteko funtsezkoa izanen da argi naturala erabiltzea. Era berean, begi bistan arras beharrezkoak diren elementu elektronikoak soilik utziko ditugu.



Tonu ilunak

Erran bezala, zurak beti du modernitatea eta zernahirekin konbinatzeko gaitasuna du. 2020ko joerei dagokionez, kolore ilunak nagusituko dira eta egurraren koloreak bat egingen du joera honekin.



Zurgin lanak orokorrean

Aparan Industrialdea - 31740 DONEZTEBE

Tel. 669 939 057

mutuberriazurgindegia@hotmail.es

PatxiJaurena

ZURGIN LANAK OROKORREAN
MENUISIER - CHARPENTIER

628 550 490 - URDAZUBI(Na)
ursunea@gmail.com



TEILATUAK, ESTRUKTURAK
ZAHARBERRITZEAK ETA
ZURGIN LANAK OROKORREAN



Alkerdi - 4. ind. - 103 partzela - 31711 Urdazubi - T. 660 501 584 | joxemibengotxea@yahoo.es



- tarimak, leihoak, ateak, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein
Mikel Arburua



607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI

GAUR EGUNERA EGOKITUTAKO ZURGIN-LANAK



636 701 204

ZURGIN-LANAK OROKORREAN

Salbatore karrika, 28 - ARANTZA (Na) ibarrazurgina@gmail.com



IÑIGO ETXARTE ARBURUA

- Iturgintza lanak
- Pellet eta egurrekin berokuntza instalazioak
- Gas instalazioak



Goikolanda 8A | 31760 ETXALAR
T. 657 791 507 | 948 635 256
pelletsbazarbidaso.com

ITURGINTZA

Zein berotze sistema behar dut?



Ez hain aspaldi etxea bero mantentzeko modu bakarra sua piztea izaten zen. Orain, aldiz, gure beharren arabera berotze edo freskatze sistemak ditugu

tantada 

iturgintza - fontanería

Tel.: 680 255 718 **IMANOL ECHEVERRÍA**
ERAKUSKETA Elbarren 51, LEITZA

Aire egokitua • Iturgintza orokorra
Aeroterminia • Eguzki plakak • Lurreko suak
Biomasa • Egurrezko galdarak
Peletezko galdarak eta estufak
Zoru bero-emalea • Gremioen koordinazioa
KONPROMISO GABEKO AURREKONTUAK

SALDIAS • tantadaiturgintza@gmail.com



tinkaenergiak

Pellet eta egurrezko estufa eta galdarak
Lurreko suak | Eguzki plakak
Mantentze-lan eta tximinia garbiketak
Iturgintza | Berokuntza orokorrean



Pol. Ind. Zozia Errota | **ZOZAIA** (ORONÓZ-MUGAIRI)
948 452 772 | 607 631 881 | 637 895 032

www.tinkaenergiak.com
tinka@tinkaenergiak.com

Biomasa

Biomasa gure galdaretan erregai gisa erabiliko dugun landare jatorriko materia organikoa da. Gure oihaletako hondakinetatik datorren egurra da, mendiak garbitu eta suteak saihesteko egiten diren garbiketarik sortzen dena.

Egurraren errekuntza energia iturri iraunkorra da, eta gure etxeetan betitik erabili den materiala da. Berogailu sistema hau aukeratuz gero, erregai merkeago bat erabiltzeaz gain, administrazioaren laguntzak jasotzeko aukera ere izanen dugu.

Geotermia

Lurraren gainazalaren azpian metatutako energia baliatzen duen klimatizazio-sistema da: neguan eraikinak berotu eta udan freskatzeko balio dezakeena.

Truke geotermikoa hagitz eraginkorra da eraikinen klimatizaziorako. Lur azpiko zirkuitu batean dabilen uraren bidez hartzen da zoruko energia. Sistema benetan sinplea da; lurzoruan egindako zenbait zulo ditu, eta hor instalatzen dira urak ibiltzeko erabiltzen dituen lurpeko kanalizazioak. Horizontalak edo bertikalak izan daitezke zuloak, eta kasu bakoitzean komenigarriena zein den aztertzea komeni da.

Geotermia energia garbia da, ehuneko ehun berriztagarria. Ekonomikoki ere ez da nolana hiko abantaila: etxeak berotzeko energia-kontsumoa %75 inguru jaisten da eta hozteko kontsumoa %50 inguru. Egia da hasieran egin beharreko inbertsioa nahiko handia dela, baina mantentzeko ia ez du lanik. Gainera, bizitza 50 urtetik goitirakoa da eta hamar urteren bueltan berreskuratu ohi da inbertitutako dirua.




Higroerregulazioa

Etxe edo eraikin bateko hezetasuna erregulatzeko, aireztapen egokia izatea funtsezkoa da. Horretarako, geroz eta gehiago zabaltzen ari da higroerregulazioa, bertzeak bertze, etxea ongi aireztatua edukitzen, diru dezente aurrezten eta airearen kalitatea hobetzen laguntzen duen aireztapen-sistema delako.

Haizagailuek geletatik haizea xurgatzen dute eta, ondotik, behar adina aire sartzen dute. Gainera, gailu hauek automatikoki neurtzen dute gela bakoitza hornitzeko beharrezkoa den aire emaria. Beraz, kontsumo adimendu eta neurtua da, eta aireberritu behar diren espazioei benetan behar duten erantzuna ematen zaie.

Zoru erradiatzailea

Sistema honen oinarria zoru azpian uniformeki banatutako hodi-sare bat da. Hodi hauetatik ura joan-etorrian dabil eta uraren tenperatura egokituz eraikinak berotu edo freskatzeko dira. Egun, berotze sistema hau puri-purian dago eta bezeroek gehien eskatzen duten berotze sistemetakoa bat da.



ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNeko & SUKALDEKO OSAGARRIAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Zerbitzu & Gremioen koordinazioa

JAVI PETRIRENA

Iturgintza eta elektrizitatea



ITURGINTZA



ELEKTRIZITATEA



BEROTZA



BIOMASA
PELLET - EGURRA



KLIMATIZAZIOA



GASA

Tel. 679 354 947
jpinstalazioak@gmail.com

MENDI BigMat TXURI

Leitzako Bidea, 39 · 31740 DONEZTEBE Nafarroa
T. 948 45 03 05 · F. 948 450 068



TXIMINIAK · ESTUFAK

BURDINDEGIA · PLADUR · PINTURA



ERAIKUNTZA · LOREZAINZA

ZERAMIKA ERAKUSKETA



BRIKO LIMPIEZA, SL

**Etxebizitzak eta bizilagunen
komunitateak garbitzea**

Landetxeak

Merkataritzako lokalak

Obraren amaiera

Etxeko konponketak

Lorezaintza

Pisuak hustea

Hondakinak kentzea

Mudantzak

*Zure etxea, komunitatea edo
merkataritza-lokala osasuntsu uzten dugu,
produktu ekologikoak erabiliz, ingurumena errespetatuz.
Ez fidatu edozeini zure etxeko giltzak.
Baztango bailaran finkatutako enpresa gara.*

BRIKO BAZTAN, SL

Obrak, eraberritzeak eta pintura

**Bainuontziaren lekuan
dutxaontzia jartzea**

Pinturak

Fatxadak

Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura

Birgaitzeak eta obra berriak

Lur-mugimenduak

T. 608 016 052

**San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)
briko-baztan@hotmail.com**

konfidantzazko zerbitzua

ITURGINTZA



Txorrotak: bainugelarako eta sukalderako

Txorrotak izan ohi dira gure bainugelak edo sukaldeak eraberritzen ditugunean gehiegi pentsatu gabe aukeratzen dugun elementuetako bat. Pentsa dezakegunaren kontrara, gelari estilo propioa ematen diote.

Repisa txorrotak: Txorrotak zuzenean estalkiaren gainean instalatzen da. Oro har, komunetan erabiltzen dira, baina sukaldean ere jar daitezke. Abantailen artean praktikotasuna, instalazio erraza eta aurrezpena gailentzen dira. Gainera, gehien saltzen den txorrotak mota denez merkatuan mota, tamaina eta kolore anitzekoak topa daitezke.

Paretako txorrotak: Paretako txorrotak paretetan bertan jartzen dira. Espazioa aprobetxatzea izan ohi da txorrotak mota hau hautatzeko arrazoi nagusia. Gainera, estetika klasiko, bakar eta berezia eskaintzen dute.



Biomasa galdarak
(egurra, pelleta eta ezpalak)

Geotermia eta aerotermia

Instalazioa eta mantentze lan ofizialak

Interneten bidez pellet salmenta

Autokontsumorako eguzki-plakak



Deitu konpromisorik gabe!

www.orleghy.com

info@orleghy.com

T. 948 562 604 - M. 603 417 554



PELLET SISTEMEN SALMENTA,
INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

948 450 063-620 886 443

info@berotza.es - www.berotza.es


31745 ITUREN (Na)



BEROGAILUA



GALDARA MISTOA



AEROTERMIA ETA GEOTERMIA



GALDARA

Domiko
pellet estufak eta galdarak

Pellet eta egur
berogailuetan adituak



Ökofen kalderak



Pertinger sukaldeak



Piazzetta estufak

«Kalitate goreneko produktuak»

www.domikorenovables.com · domiko.xabat@gmail.com · T. 639 914 455



Tenperatura egokia lortzeko aukera ekologiko eta eraginkorra

Merkatuan pellet berogailu ugari daude.
Batzuek, berotzeko funtzioaz gain,
kozinatzeke ere erabil daitezke.



**GALDARA MOTA
GUZTIEN MUNTAKETA**
(Gasa, gasolioa,
pelleta, egurra,
aeroterminia...)

matxako
KALEFAKZIOA • GASA • ITURGINTZA

**ITURGINTZA LANAK
OROKORREAN**

609 808 756 • BERA



**C/Legua nº 19
31760 BERA (Navarra)
Telefono: 637 15 11 70**

Egur pelleta egurra trinkotu eta lehertuz sor-
tzen den erregea da. Pellet hitza ingelese-
dator eta "bola txikia", "kaka-alea" zein "pi-
korra" erran nahi du.

Pelleta hainbat formatutan saltzen da: 15 ki-
loko zakuak (etxeko pelleten berogailuentzat
nahikoak), zaku handiak edo soltean (kontsumo
handiko biomasa-galdaretarako). Duten formatu
pikortsuari esker, pelletak leku gutxi behar du gor-
detzeko eta erraz garraiatzen da.

Abantailak

- % 100 erregai berriztagarria (pelleta) erabil-
tzen dute, eta, gainera, prezio lehiakorra eta
egonkorra eskaintzen du erregai fosilen aur-
ka.
- Pelletak bero-ahalmen handia, homogeneo-
tasuna eta osaera konstantea ditu, eta, horri
esker, energia-errendimendu handiak lor-
daitezke.
- Aire modu naturalean berotzeaz gain, bero
atsegina sortzen du.
- Kontrola modu elektronikoan egiten da. Ter-
mostato digitalen eta programagarrien erabi-
lerari esker, berokuntza-mota hori urrutitik
ere, Smartphone bidez, erregula daiteke.

Nola funtzionatzen du?

Pelletak automatikoki biltegitik zuzenean bero-
gailura sartzen dira. Lehenengo pelletak erre-
tzean, sute-ganberaren aireztapena abiarazten
da, eta airea pasatzen da errauts-hobitik, sugarra
pizteko. Berogailuek hainbat bero-sentsore dituz-
te beroa identifikatzeko. Beroa identifikatuta tru-
kagailua aireztatzen hasiko da berogailutik kan-
pora beroa ateratzeko.

Pelletezko berogailua beti kontrol-panelaren
bidez itzaltzea garrantzitsua da.

Hiru pellet berogailu mota bereizten dira:

- Airez indarturako pellet berogailuak.
- Pellet berogailu kanalizatzaileak.
- Pelletezko termoberogailuak.

gaztelu scl

ITURGINTZA

Landa Behikoa Industrialdea, 21 31880 LEITZA
T. 948 510 086
info@fontaneriagaztelu.com
www.fontaneriagaztelu.com



- **ITURGINTZA:**
 - Obra berri, erreforma eta mantenimendua
 - Diseinua zure neurria
- **KLIMATIZAZIOA:**
 - Biomasan adituak
 - Aeroterminia
 - Gas, gasoil, pellet eta egur galdarak
 - Ekoizpen sistema konbinatuak
- **ETXEBIBIZITZEN ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK**
- **KOMUNEN ERABERRITZEAN GREMIO GUZTIEN
ANTOLAKUNTZA**
- ****KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUAK**
- ****FINANTZATZEKO AUKERA**

BAINUGELAK



Erlaxatzeko momentua iritsi da



Bainugelek etxeko kideen pertsonalitatea erakusten dute. Aurreko mendeetan ia garrantzirik ematen ez zitzairen espazioak baziren ere, orain arras kontrakoa gertatzen da. Gaur egun bainugelako elementu guztiak xehe-tasun handiarekin hautatzen dira, espazio bereizi bilakatuz.

Kolorea

Orain arte, zuria izan da bainugeletan nagusitu den kolorea. Orain, aldiz, koloreek ez dute mugarik: altzariak, bainuontziak, osagarriak, parteak... kolorea nahi duenak badu non aukeratu. Urre kolorea denboraldiko nagusia izanen da. Urre koloreak kontraste polita egiten du material naturalekin.



Ura aurrezte

Txorrota motaren eta energia-eraginkortasunaren artean harreman zuzena dago. Etxeko ur kontsumoaren %70a bainugelari xahutzen da. Hori dela eta, azken urteetako aurrerapen esanguratsuenetakoa uraren kudeaketa eraginkorra izan da. Ur ekonomizatzailea da berrikuntza hauetako bat, txorrota lehen posizioan irekiz uraren %50a aurrezten ahal da. Ur kopuru hori nahikoa da erabilerari gehienetarako, baina erabiltzaileak nahi badu gehiago ireki eta emari handiago izan dezake. Modu berean, aireztatzaileak nabarmentzen dira zeinak ur emaria murrizten duten.



erran^{eus}

INDARRI

Hotz komertziala eta industrial
Aire girotua

T. 639 103 305 • Ziobi, 15 LESAKA
indharri@gmail.com

EZPELURA ITURGINTZA

Berokuntza • Gasa • Eguzki-plakak
Elektrizitatea • Zoru bero emaila
Biomasa • Aerotermia

T. 606 337 427 | OIZ
info@ezpelura.com
www.ezpelura.com

Gasa
Ura
Kalefakzioa

froling

Alemanian gehien
saltzen den egurrezko
galdara

ecoforest
markako
pelletezko estufak

PATXI MUTUBERRIA ITURRIA
Osiña karrika 14.1-A
31790 Araniza
686 23 52 30
patximutu@hotmail.com

ERAKUSKETA:
Bidasoa, 45
BERA



ULI-ZAR
ELKARTEA, S.L.

ITURGINTZA | BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA
MOBLEAK | MANPARAK
KOMUNERAKO OSAGARRIAK

Bide-ondo etxea • ARESO • Tel.: 647 525 516 • 948 610 678



BAZTAN Ferreteria

PINTURA · AROZTEGIKO GAUZAK
KRISTALAK · TRESNERIA · OPARIAK ...

T. 948 580 423

Santiago, 79 · Industrialdea
31700 ELIZONDO



- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK



- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450
LEGIA, 23 - BERA

ELEKTRIZITATEA

Etxebizitza adimendunak: etorkizuna bertan dugu

Geroz eta ugariagoak dira eguneroko lanak errazten dituzten etxetresnak. Baina, badira oraindik ere berrikuntza hauek ezagutzen ez dituztenak



Domotika erabiltzailea eta etxetresna elektrikoak konektatzen dituen sistema adimentsua da. Konektatutako etxetresnak Internetarako konexioa duten gailuak dira.

Sistema domotikoak konektatutako objektuetatik informazioa bildu, prozesatu eta aginduak ematen ditu, erabiltzaileak ezarritako ekintza automatizatuz.

Domotikaren aplikazioek erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea dute helburu.



Jaurena

Denda. 948 631 217

T. 630 136 863

Julio Caro Baroja, 6 - BERA

jaurenabera@gmail.com

**Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformat, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Antenak**

**Sukaldeak, etxetresnak
eta orain sukaldeko
diseinua 3D**

Itxialdian etxe guztietan teknologiaren erabilerak, nabarmenki, goiti egin zuen eta telelana nahiz bideo-deiek gure egunean presentzia handia izan zuten. Modu horretan, lanpostu eta harreman anitz mantendu ahal izan dira. Badirudi, egoera epidemiologikoak teknologia gaitan proaktiboagoak izatera bultzatu gaituela.

1 **Eraginkortasun energetikoa**

Etxebizitza baten kontrol domotikoari esker, energiaren kontsumo orokorra monitorizatu eta optimizatzen da. Era honetan, gure etxeko energia kontsumoan dezente aurrez dezakegu.

2 **Erosotasuna**

Etxeko lanak urrutetik kontrolatzeko eta automatikoki programatzeko aukera izateak etxeko eginbeharrak erosoago egiten ditu. Hortaz, etxetik kanpo gaudenean ere berogailua piztu edo pertsianak jautsi ditzakegu etxera iristen garenerako guk nahi dugun tenperatura izan dezagun.

3 **Segurtasuna**

Sistema domotikora konektatutako objektuen sentsoreei esker,

etxea urrutitik gainbegira daiteke. Beraz, oporraldietan gure etxea seguru eta babestuta dagoela berma dezakegu.

4 **Irisgarritasuna:**

Domotikaren helburua edozein pertsonak, bere gaitasun maila edozein dela ere, etxeko elementuak modu errazean erabiltzea da. Ezaugarri honen bidez, gazteek ez ezik, helduek ere etxetresna nahiz etxe adimendunak izatea ahalbidetzen du.

5 **Komunikazioa:**

Komunikazioa sistema domotiko guztien oinarria da, erabiltzailearen eta konektatutako gailuen arteko konexioa eta bezeroak etxebizitza domotikoaren urrutiko kontrola izatea ahalbidetzen du.

Domotikaren adibideak

- **Termostato adimendun** batekin, etxeko tenperatura edozein lekutatik erregulatu daiteke, edo berogailua edo klimatizazio-sistema piztu, norbait etxebizitzara geolokalizazioaren bidez hurbiltzen dela detektatzean.
- **Pertsiana domotikoak** urrutitik arautu daitezke edo ordutegi jakin batean ireki edo ixteko programatu, kanpoko baldintza meteorologikoaren arabera.
- Etxean inor ez dagoenean eta **kamerak** ezagutzen ez dugun pertsona bat identifikatuz gero, etxe adimenduneko erabiltzaileek leiho eta ate guztiak ixtea programatu ahal izanen du.



material elektrikoak

Tel: 948 581 261 · Faxes: 948 452 397
Santiago, 83 (Industrialdea) · ELIZONDO
eliceetxe@eliceetxe.es

Melo Pinturak



melopinturas@hotmail.com
www.pinturasmelo.com



Dufxetako manparak
Kristalezko barandak
Ate korrederak
Sukaldeko aurrealdeak
Koadroentzako markoak · Ispiluak
Beira dekoratiboak

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN
T. 943 61 30 63
info@cristaleriabidasoa.com

ELEKTRIZITATEA
ALARMAS
SEGURTASUN KAMARAK
INTERFONOAK
SUTE DETEKZIOAK

T. 666 545 069
daniinstalaciones@gmail.com

INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK
(ETXE, INDUSTRIA,
LOKALAK...)
ENPRESEN
MANTENIMENDUA
LED ARGIZTAPEN
ESTUDIOAK
TELEKOMUNIKAZIO
INSTALAZIOAK
PORTERO
AUTOMATIKOAK
DOMOTIKA

INSTALATZAILE
BAIMENDUAK

Santiago 118, Elizondo (Na) - elekkerri@gmail.com · 646854825 // 616898065



- PINTURA LANAK OROKORREAN -

Eduardo Oyarzabal
m. 630 511 488

Inzakardi, 10
DONEZTEBE/SANTESTEBAN

PINTURA

Arriska gaitezen koloreekin!



Etxea margotzeko aukeratzen dugun kolorea hagitx garrantzitsua da. Koloreek sententzio eta emozioak sentiarazten dituzte, batzuek tristura eta bertzera batzuek alaitasuna transmiti dezakete. Etxeko gelei estilo moderno emateko hona zenbait joera:

Arrosa, beixa eta grisa

Hain modan dagoen ekialdeko estiloarekin bat egiten duten koloreak dira eta ongi baino hobeki ezkontzen dira elkarrekin. Material naturala inspiratutako tonu hotz eta beroko paleta orekatua osatzen dute.

Lur kolorea eta koralak

Diseinu modernoak boho giroko estiloarekin lotzeko bidea ematen duten koloreak dira.

Goroldioaren parekoa

Egur naturalari protagonismoa ematen dioten landa giroko diseinuetan paretak berdez pintatzea gomendatzen dute: tonu ilun samarretan.

Urdin ilun iluna

Urdin ilunaren eta beltzaren artean dagoen tonua, horixe gomendatzen dute paretetako bat nabarmendu nahi bada. Emaizta hagitx dotorea da.

Horia, beixa eta berdea

Oasi bila dabilentzat paleta hau ezin hobea da. Urtaroetan oinarritzen da, eta itsaso, harea, baso eta zeruko tonu aberatsez baliatzen da.

Eta altzariak margotuko bagenitu?

Indartsu heldu den joera da. Modu honetan, etxean zaharkituta ditugun altzariei probetxua atera eta berriak bailiran molda ditzakegu. Itxura berria emateaz gain, pinturak altzariei babes kapa bat ematen die.


Egia erran, altzari batek aldaketa ikusgarria izan dezake pintatu eta argizaria emanda. Piezak duen egoeraren arabera, ez da gehiago behar.

Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

pinturasalzuyet@gmail.com
www.pinturas-alzuyet.com

- Fatxaden zaharberritzea
- Barne-dekorazioa
- Isolamenduak pladurrean
- Pintura industrialak
- Egurra eta altzarien lakatze eta bernizatzea kabinan



PATXI ZAMORANO

Leitzako bidea 31740 DONEZTEBE
948 450 734 | 606 377 424
info@patxizamorano.com



BARNIZADURAK

- Naturalak
- Tindatuak
- Zahar itxurakoak
- Suaren kontrakoak

LAKATUAK

- Horitzearen kontrakoak
- Patinatuak
- Testuratuak
- Mate-distira

ATEETAN,
ARMAIRUETAN,
ZOKALOETAN...


KANPOALDEKO UR-BERNIZAK

mota guztietako egurretan eta kalitate haundieneko materialekin leihotetan, leiho-ateetan, balkoiatan, teilatu-hegaletan...

BARNE ETA KANPO-DEKORAZIOA:

Etxebizitzak, lokalak, bulegoak, auzo-komunitateak, fatxadak...

AKABERA RUSTIKOAK, LAUSODURAK, ESTALDURAK, PATINAK, EFEKTU BEREZIAK...



«Zoritxarrez, gehienetan, termiten erasoak berandu atzematen dira»



Gure etxearen egitura hondatu eta deuseztatu dezaketen gaitzak hainbertze dira. Hona hemen gure eskualdean ohikoenak diren izurriteak eta horien kontrako tratamenduak:

Xilofagoen aurkako tratamendua

Xilofagoen aurkako bi tratamendu berizten dira:

- **Gel bidezko** tratamendua. Eskuz edota makina bidez aplikatu daiteke.
- **Injekzio bidezko** tratamendua.

Termiten aurkako tratamendua

Termiten kontrako tratamenduetan ere, bertze bi azpitalde daude:

Kanpo tratamendua

Lehenik eta behin, egituraren inguruan tarte erregularretan (2,60 metro inguru) lurlean amuak jartzen dira. Instalazio horretan zulo handi bat egiten da lurlean edo hormigoian (lurrera iritsi arte), eta hor jartzen da amua. Amua jarri aitzinetik, interzeptoreak instalatuko dira. Amuan termitak topatzen direnean, kendu egiten dira.

Barne tratamendua

Tratamendu hau, termiten erasoak jasan dako eraikuntzaren hainbat puntutan aplikatzen da. Normalean, babestu nahi den eraikineraren barnean instalatzen da, bai termitak bizirik daudela ikusten den lekuetan, baita begiz, nahiz soinu detektagailu akustikoz identifikatutako lekue-

tan ere. Tresna honek kaxa-forma du eta alde batetik irekita dago, hortik termitak sartu eta amua jan dezakete. Kaxak 8,8 zentimetroko zabalera, 14,8 zentimetroko luzera eta 5 zentimetroko altuera du.

Bi tratamenduak bateragarriak dira eta, gehienetan, elkarrekin erabiltzen dira

Noizean behin, gutxi gorabehera 90 egunetik behin, amuak nola dauden egiaztatzen da eta behar den aldi guttietan hauek biltzen dira. Eginkizun hau profesional batek egin behar du.

Termitak denbora-tarte batean amu zehatz batera hurbiltzen ez badira, amu hondarrak kendu eta prozesu osoa berriro hasten da.

Amu sistema hau termiten berezko seneari oinarritzen da. Izan ere, termitak janari iturriak etengabe bilatzen dituzte beraien habi inguruetan.



T. 667 680 238
www.desinbera.com
info@desinbera.com

DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK




Termiten aurkako tratamendua amu bidez



Makina bidezko tratamenduak

Termita, xilofago, onddo eta lizunen aurkako tratamenduak. Egur egituren bizi iraupena luzatzen lagunduko dizuegu.


Tratatu aitzinetik



Produktuarekin



Produktua xurgatu ondotik



Gel bidezko xilofagoen aurkako tratamendua

sukaDeco

estudio cocina y baño



IRURITA
Tel.: 948 580 666
www.sukaldeco.com

muebles
ORDOKI
altzariak

Plaza Zaharra, 27 | LESAKA
T. 948 637 780
Bittiria, 28 | LESAKA
T. 948 638 076
info@mueblesordoki.com



www.mueblesordoki.com

BIDASOA ALTZARIAK

ALTZARIAK · DEKORAZIOA

Altzariak, oihalak,
alfonbrak,
eta dekorazio
eskaintza berriak.

Nafarroa ibilbidea,9 IRUN
T. 943 63 29 32
info@mueblesbidaso.es
www.mueblesbidaso.es



SUKALDEAK

Tripazaleen txokoa

2020an sukalde irekien aldeko joeta nabarmendu da, koloretan beltza eta etxe tresna adimenduak. Hona hemen lau proposamen:



1 Kolore beltza nagusituko da eta nabarmentzeko egurra erabiliko da. Sukaldeetan altzari nahiz pareta beltz eta antrazita kolorekoak nagusituko dira eta nabarmendu nahi diren xehetasun tikiak egur kolore naturaletan txertatuko dira. Kolore ilunen bitartez jarraikortasun efektua lortzen da, baina, horretarako, sukaldeak argi natural dezente izatea funtsezkoa da.

2 Sukaldeak geroz eta handiagoak izanen dira. Sukaldea familiako kide guztiak batzen diren espazioa izan ohi da eta, hortaz, protagonismo eta garrantzi handiagoa hartzen ari da. Ahal den neurrian, sukaldea eta jangela konektatzea gomendatzen da espazioa bisualki handiagoa izateko.

3 Apalategiak igo eta LED argiez argiztatzen hasiko dira. Apalategiak igo egiten dira espazioari altuera handiagoa emateko eta argitasuna irabazte aldera.

4 Etxetresna adimenduak geroz eta ugariagoak dira gure etxeetan. 2020an eskari handiena izan duten etxetresnak: konektutako hozkailuak, elikagaien egoste puntua neurtzen duten indukziozko plakak eta garbigailu adimenduak dira.

Sukaldeko protagonista

Sukaldeari funtzionalitate handiagoa emateko, 2020an puri-purian egonen da sukaldean irla bat instalatzea. Hona hemen zenbait joera:

Irla, sukaldeko protagonista bilakatu da 2020an. Irlak elementu aktiboak izanen dira, etxeko kideek elikagaiak prestatzeko, otorduak egiteko edo idazmahai gisa erabiltzeko balioko dute. Etxeko sukaldeari gehien egokitzen zaion irla mota aukeratzea komeni da:

- **Irla sukaldearen erdian.** Sukaldean leku dezente izanez gero, irla sukaldearen erdian koka daiteke, hau da, suarekin paralelo.
- **U itxurakoa.** Lehenagotik dagoen altzariarekin batera U itxura eman dakioke, etxeko kideak bildu eta dibertitzeko eremu atsegin bat sortuz. Diseinuak azalera handia eskaintzen du janaria prestatzeko, jateko edo bertzelako lanak egiteko. Familia

ugarientzat edo sukaldaritza gustatzen zaienentzat aproposa da.

- **L itxurakoa.** Aurretik dagoen altzariarekin sor daiteke. Irla hau espazio gutxi duten sukaldeetan aproposa da.
- **Aulkidun irla.** Irla parean altueradun aulkiak paratuz, bertan hainbat kidek otorduak egin ditzakete. Ideia honek hagitx ongi funtzionatzen du leku gutxiko apartamentuetan. Espazio anitz aurrezten da.
- **Biltegidun irla.** Irlak aukera bikaina eskaintzen du sukaldeko tresnak gorde eta antolatzeko.

Ziurrenik, sukaldea da denbora gehien ematen dugun etxeko espazioa. Egungo joerek neurritz handitzea, eta kasu batzuetan egongelarekin konektatzea, gomendatzen dute.

Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa

"TELLETXEA"
Lorazaintza



T. 619 418 683 | LESAKA | johnnetellexea@hotmail.com
www.telletxealorazaintza.com

ZELAI-TXIKI
altzari eta muntai bereziak

Israelako Industriaidea
Errota, 13 - Zestoa
Telf: 943 14 75 32
Fax: 943 41 78 65
www.muebleszelaitxiki.com
info@muebleszelaitxiki.com



Estilo modernoak eta tradizionalak
> Altzariak
> Salak
> Logelak
> Bainuak

Bisitatu gure erakusketa



ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA

AMETS

Sukaldeak
Armairuak
Bainugelak
Egongelak
Logelak
Koltxoak
Osagarriak



www.mueblesamets.com



948 630 537



asteartetik ostirala arte:
09:00-12:30 / 14:30-18:00

larunbata:
09:00-12:30 / 13:30-17:00

Lori venta
31710 | Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Mug.: 0033 615 11 52 23
info@ventaducarrelage.com
www.ventaducarrelage.com

ZERAMIKA



Material %100 natural eta ekologikoa

Urteen poderioz, etxe barneko eta kanpoko hainbat espaziotan zeramika paratzen hasi dira, apaingarri gisa edo funtzio zehatzetarako. Inoiz modaz pasatzen ez den materiala da, batez ere, bere izaera praktiko eta iraunkorrari esker. Gainera, instalatzeko arin eta erraza denez, bertze material batzuei gailendu zaie. Zeramika hagitz moldagarria da bai ikuspegi eraikitzailetik baita dekoratibotik ere. **Formatu, kolore, akabera, tamaina eta balizko milaka konbinazio** daude merkatuan eta, horregatik, zeramika erabiltzeko muga bakarra irudimena izanen da. Gainera, zeramikak isolamendu akustiko eta termiko handia bermatzen du.

ALMACO BAZTAN

GRUP **GAMMA**
www.almacobaztan.com



Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857

'Bakarrilketa' lana plazaratu du Pleura musika taldeak

Azaroaren 3an eman zuten argitara hamar kantez osatutako diskoa


TTPI-TTAPA

2018an Ion Mayordomo elizondorak, Olaia Intziarte oronoz-mugairiak, Unai Urroz doneztebarrak eta Julen Ceballos leitzarrak osatutako Pleura musika taldeak lehenbiziko diskoa kaleratu zuen azaroaren 3an. Gitarra, ahotsa, teklatura, baxua eta bateria uztartuz, ukitu metaleroa eta bluseroa duen rocka landu du eskarmentu handiko laukoteak.

Joan den urte bukaeran hasi zituzten grabaketa lanak Drum Groove estudioarekin eta Josu Erbiti teknikari zutela. Ia urtebeteren ondotik, diskoak argia ikusi du eta hainbat webgunetan eskuragarri dago 'Bakarriketa' ('Norbere buaruaren hilketa') lana. Nahi duenak sare sozialen bidez euren harremanetan jarri ere eskura dezake.

'Bakarrilketa'

Hamar kantek osatutako lana da, gai sozialak eta pertsonalak ardatz dituenak: 'Hasiera', 'Nun zabilta', 'Errainua solte', 'Grixak', '+/-' , 'Larru onaren truke', 'Aitzinago zaude', 'Soketan', 'Deathcrush' eta 'Lokaleko argiak'. Azalaren diseinua Juan Angel Perotxenak egin du.



Azala Perotxenak egin du.



Ion Mavordomo, Julen Ceballos, Olaia Intziarte eta Unai Urroz. UTZITAKO ARGAZKIA

[illegible]



Inauterietan eta Euskararen Egunean otorduak estalpean egiten dituzte herritarrek.

Zubietako Udalak estalpeko sukaldeak berrituko du

Sukaldeko tresnerian 19.573 euroko inbertsioa egingen du eta butanoa ateratzeko etxola 2.298 euro kostako da

FERMIN ETXEKOLONEA

Zubietako Udalak estalpeko sukaldeak berritzea erabaki du. Orain dauden etxetresnak kendu eta gasezko bi sukalde (lau-na sukoak) eta labea paratuko dituzte. Horrez gain, suburua aldatuko dute eta ontzi-garbigailua eta mahai beroa paratuko dituzte. Mahaia, apalak eta

armairuak barne, sukaldeko tresnerian 19.573 euroko (BEZik gabe) inbertsioa egitea aurreikusi dute. Bide batez, butanoa sukaldetik aterako dute. Horretarako, kanpoko aldean gas instalaziorako etxolatxo bat paratuko dute, lau butano-botila gordetzeko. Honen aurrekontua 2.298,86 eurokoa da.

Hipobresibo ikastaroan 22 lagun Donamaria-Gaztelun

Donamaria-Gazteluko Udalak antolatutako emakumeendako abdominal hipobresibo ikastaroan 22 lagunek eman dute izena. Zazpi lagunek taldetan banatuko dituzte parte-hartzaileak eta Gazteluko ostatuko egoitzan emanen du ikastaroa Bego Vielak. Talde bakoitzak lau orduko saioa izanen du, bi ortziraletan.

Ipar Martxa ikastaroa ere antolatzeko asmoa zuen udalak, baina guttieneko kopurura ailegatu ez denez (hamar lagun), oraingoz ez dute ikastaroa emanen.



O. MUTUBERRIA

Narbarteko ttikiek Bertizera ateraldia egin dute

Euskaraldirako txapa liburutegian bil daiteke

M. ERDOZAIN

Euskaraldian izena eman duten herritarrek txapa Doneztebeko liburutegian biltzen ahal dute. Astelehenetik ortziralera, 16:00etatik 20:00etara dute aukera. Euskaraldian parte hartu nahi duten *ahobizi* eta *belarri-prestek* www.izenaematea.eus



karaldia.eus atarian eman dezakete izena.



O. MUTUBERRIA

Ezohiko Halloween ospakizuna Narbarten

Urriaren 31n, larunbatean, Halloween pertsonaiak izan ziren Narbarten. Aitzineko urteetan etxeetara joan ziren arren, aurten ez zuten hori egiterik izan. Egungo egoera dela eta, bakoitzak bere etxean eta bere modura ospatu behar izan zuen. Zer-nolako beldurra!

Ikasturte arraroa izan arren, ez da dena txarra izan. Narbarteko eskolako haurrek urriaren 30ean eguraldia aprobetxatuz Bertizera ibilaldia egin zuten. Oinez joan, bertan goiza pasatu, bazkaldu eta buelta egin zuten.

Jubiloteka zerbitzua martxan Igantziko Baratzondon

Parte-hartzaileek lehenbiziko hilabeteen ez dute deus ordaindu beharrik izanen

P. IRASTORTZA

Igantziko Udalak eta gizarte zerbitzuek, bertze elkarteekin laguntzarekin, jubiloteka zerbitzua emanen dute herrian. Baratzondo elkartera bertaratzen direnek memoria eta gorputza lantzeko, solasean aritzeko, esku-lanak eta soinketa egiteko, kafetxo bat hartzeko... aukera izanen dute.

Asteartero

Astean behin, asteartetan, 16:00etatik 18:30era egina dute hitzordua eta adinekoak arduradun batekin bilduko dira. Igantziarrez gain, bortziritarrek edo Bortzirietatik kanpo bizi diren erretiratuek parte hartu ahal izanen dute. Azaroaren 3an ireki zituzten ateak eta parte-hartzaileek lehenbiziko hilabete honetan



Baratzondon elkartuko dira.

ez dute deus ordaindu beharrik izanen (udalak bere gain hartuko ditu azaroko kostuak).

Arkupeak elkarteak, lerro hauen bidez, inguruko herritarrek parte hartzea animatu nahi izan ditu: «biziak bizi jarraitu behar duenez, garunak eta gorputzak lantzeko eta ingurukoekin harremantzeko bertara zaitezte jubilote kara, ez zarete damutuko!».

Ikastaroetan izena emateko azken egunak

P. IRASTORTZA

Ikasturte hasierarekin batera abiatu ohi diren ikastaroak martxan jartzea atzeratu egin da aurtten. Jende aunitzen lanari esker, egin beharreko egoitzapen guztiak eginda, lortu da aitzinera egitea. Hala, elkar-teak ikastaro aukera zabala du, hainbat egun eta ordutegitan.



Hainbat ikastaro dituzte aukeran.

Parte hartzeko

Parte hartzeko aski da Doneztebeko bulegora deitzea (948 45 08 78 edo 618 56 78 37). Hainbat herritako toki, areto, kiroldegi... ematen diren saioe-

tan jende kopurua, distantziak, garbitasuna eta bertzelako arauak zaintzeko, izen ematea derrigorrezkoa dela eta Arkupeak elkarreko kideei jarduerak guztietarako deskontuak ditzutela oroitarazi nahi izan diete.

Bartzelona bisitatzeko bidaia bertan behera utzi dute

P. IRASTORTZA

Elkarteak joan den maiatzera-ko prestatua zuten Bartzelonarako bidaia azarora gibelatua zuen. Egunak hurbildu ahala, egoera lagun ez duela ikusita, bertan behera uztea erabaki du: «etorkizunari argi izpirik ikusten ez zaionez, maiatzean

Bartzelona bisitatzeko egitekoa genuen bidaia bihotzeko minez bertan behera utzi behar izan da». Elkarteak dirua berreskuratzeko eta izena emana zuten lehenbailehen bueltatzeko eginahalak egingen dituela jakinarazi du, baina hori «bidaia-agentzien esku» dago.



UTZITAKOA

23 mendizale Aizkolegin izan dira

Urriaren 20an elkarreko 23 mendizale Bertizko natur parkean elkartu ziren. 08:15ean aparkalekutik abiatuta Aizkolegira joan ziren. Plazazelaiko eta erreka baten bidez, bortz bat orduko itzulia osatu zuten eta mendizaleek inguruak eskaini zituzten udazken koloreez gozatzeko aukera izan zuten.

Ekoizleen azoka igande honetan izanen da

Azienda erakusketarik ez da egingen baina ekoizleen hemezortzi postu jarriko dituzte

JM BARRIOLA

Osasun egoerak hala behar-tuta, berrikuntzekin egingen dute aurtengo ekoizleen azoka. LeitzEko kontsumitzaileen taldeak udalaren laguntzarekin antolatzen duten azoka berezia, igande honetan, azaroaren 15ean, izanen da eta seigarren edizioa beteko du.

Segurtasun neurriak hartuta, 10:00etan zabalduko dituzte azokako ateak eta 14:00 bitarte Amazabal pilotalekuan eta eskola atarian jarri duten karpan hainbat produktu ikusi eta erosteko aukera izanen da. Guztira 18 postu izanen direla iragarri dute antolatzaileek: barazkiak, banabarrak, babak, sagarrak, intxaurrak, arrautzak, gazta, eztiak, gozoak.... Taloak eta axuria burrunztian erreka etxera eramateko aukera ere izanen da.

Aresoko ekoizleek aldi honetan parte hartuko ez badute ere, laguntzen ibiliko dira. Ekoizleen azoka mantendu badute ere, azienda erakusketak alde batera uztea erabaki dute. Azokaren ondotik urtero egin ohi den ekoizleen bazkaririk ere ez dute egingen.

'Baserritik etxera'

Baserritik etxera dinamikari segida emanez eta eskaintza urte guzira zabalduz triptiko berria prestatu dute LeitzEko hagei ekoizleren informazioa bildu dute, horietako bakoitzaren eskaintza eta informazioa bilduz. Leitzekotik mezu argia luzatu dute, «guztion onerako kontsumitu dezagun modu arduratsuan eta eraiki dezagun elikadura eredu osasuntsua, burujabea eta justua».


Karrape irratia Internetez aditu daiteke

Udaletxeko teilatua moldatzeko, Karrape irratiko antena kendu dute eta, orain Internet bidez bakarrik aditu daiteke. Antena berriz paratu artean, www.leitza.eus/irratia webgunean aditu daiteke. Saio bereziak www.leitza.eus podcast zerrendan daude entzungai.



'Badakizu eserita ere dantzatu daitekeela?'

Azaroaren 21ean, *Badakizu eserita ere dantzatu daitekeela?* ikuskizuna antolatu du udalak. Haurrentzako ikuskizuna da eta 17:00etan izanen da, Amazabal pilotalekuan. Musika lagun, istorio eta pasarte dibertigarriak kontatuz ordubete saioa egingen du Miruk.



Guraso elkarteak bildutako 192 sinadurak erantzunaren zain

TTIPI-TTAPA

Erleta eskolako kontingentzia planean ikasleen beharrak kontuan hartu ez zirela iritzita eta herriko errealitatera egokitzeko eskatuz sinadura bilketa egin zuen duela aste batzuk Denak Bat guraso elkarteak. Guztira 192 sinadura bildu

zituzten eta horiek Gil Sevillano Hezkuntza zuzendariari bidali dizkiote, guraso elkartetik adierazi dutenez, bai fisikoki baita digitalki ere, neurriak hartzeko «autonomia eskolari aitortzeko» eskatuz. Are gehiago, Nafarroako Arartekoaren atea ere jo dute.

Itzaire udal haur eskolaren logoa aldatzeko lehiaketa antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Eraberritze prozesuan dagoen Itzaire udal haur eskolaren logoa aldatzeko, lehiaketa antolatu dute udalak eta haur eskolak. Edonork parte hartzen ahal izanen du eta nahi adina diseinu aurkeztuz.

Lanak paperean 4x4 cm eta A3 neurrietan aurkeztuko beharko dira eta gerora, finalistei irudia formatu digitalean helarazteko eskatuko zaie. Proposamenak abenduaren 1a baino lehen udaletxean edo haur eskolan aurkeztu beharko dira, baita parte-hartzailearen

ren datuak gutun-azal itxi batean eta diseinuaren azalpen laburra ere.

Haur eskolako, udaleko eta gurasoen ordezkariak osatutako epaimahaiak hiru finalista aukeratuko ditu eta herritarren bozketak bidez erabakiko dute diseinu irabazlea. Irabazleak herriko dendetan gastatzeko ehun euroko bonua eta bertako produktuen saskia jasoko ditu eta bigarren eta hirugarren sarituek herriko jatetxe edo taberna batean bi lagunentzako otordua jasoko dute saritzat.



UTZITAKOIA

Errigoraren alde lanean

Beste urte batez, Leitza ere bultzada bat eman nahi izan diote Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpainari eta horretan aritu da argazkiko lantaldea. Azaroaren 12ra arte egin daitezke eskaerak (www.errigora.eus) eta azaroaren 27an Suhizpi pabiloian banatuko dituzte.



Joan den urtean herritarrek jubilotekan.

Jubilotea zerbitzua astelehenetan izango da

Momentuko osasun egoeraren arabera erabakiko dute zerbitzua nola eman

TTIPI-TTAPA

Gizarte Zerbitzuak jubiloteka eskaintzen hasi dira berriz ere. Azaroaren 2an egina zuten hitzordua 09:45ean udaletxeko erabilera anitzeko gelan, baina egungo osasun egoera tarteko taldea aurrez aurre elkartu beharrean etxetik etxeko zerbitzua eskaintzea erabaki zuten.

Hainbat ariketekin txostena osatu eta izena emana daudenei etxera eraman zien gizarte langileak, ariketak eginez burua trebatu eta ongi pasatzeko aukera emanez. Aurrerantzean astelehenetan 09:45etik 13:15-era eskainiko dute eta momentuko osasun egoerak baldintzatuko du nola izango den.



ARTXIBOA

Euskararen Egunari begira

Abenduaren 3aren bueltan festa egun handia izaten da urtero, Euskararen Eguna ospatzen baita. Aurten ere egoerak ahalbidetzen badu ekitaldiren bat antolatzea da asmoa eta gaiak hitz egiteko udalak Festa Batzordea deitzeko asmoa du. Aurretik, Euskaraldian parte hartzeko deia luzatu die herritarrei.

Errigorako saskien banaketa azaroaren 27an

Azaroaren 12ra arte eskatu daitezke Errigorako saskiak udaletxean, Sastinean edo Internet bidez. Saskien banaketa azaroaren 27an egingo dute plaza zaharrean 19:00etatik 20:00etara. Saskia eskatzen dutenei aurreko egunetan bidalikoko diete abisua.

Eskoletxeko leihoak ondoko asteetan aldatuko dituzte

Eskoletxeko leihoak aldatuko dituzte datozen asteetan. Aurreko urtean egin zuten obraren esleipena eta Florencio Suescun Construcciones SL enpresaren aldekoa izan zen. Osotara proiektua 71.151 euro kostako da eta dirulaguntzen bidez finantzatuko da.

Egur loteen prezioa jaitsi dela adierazi du udalak

Udalak 2019an banatu gabe geratutako egur loteak banatu direla eta orduan lotea etxean jasotzea 248 euro kostako zela aurreikusitako bazuen ere, gastuei erreparatuz, 230 euro kobratuko dela esan du. Helbideratua ez dutenek abenduaren 2ra arte dute ordaintzeko tartea.

Liburutegi ibiltariaren azaroko hitzordua atzeratua

Azaroko azken ostegunetan izaten du hitzordua Leitzako liburutegi ibiltariak Areson, 14:15etik 15:00etara. Azaroko hitzordua, ordea, abendura pasako dutela adierazi dute. Eguna aurrerago zehaztuko dute eta horren berri izatean halaxe jakinaraziko dugu.

Eskualdeko gazte plana osatzeko galdetegia zabalduta dute

TTIPI-TTAPA

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko prebentzio zerbitzuak bultzatuta, datozen hilabeteetan eskualdeko gazte plana idatziko dute. Prozesu baten emaitza izanen da, eta prebentzio programatik adierazi dutenez, «lau herrietako 12-30 urteko gazteen partaidetza zuzena bilatuko du, eta udaletako langileekin elkarlanean osatuko da, horiek direlako beharrei erantzuna ematen ahaileginduko direnak».

Hasteko galdetegia bete

Helburu horrekin, lehenik, eskualdeko gazteen errealitatea ezagutzeko diagnostikoa egiteari ekin diote. Fase honetan «garrantzia berezia» hartuko du gazteei zuzendutako online galdetegiak, eta horregatik, 16 urtetik gorako gazteei beren ekarpena egiteko eskatu diete, azaroaren 22a baino lehen galdetegia betez (labur.eus/gazteplana). Galdetegia anonimoa izanen dela azpimarratu dute. 12-16 urte bitarteko gazteen kasuan, berriz, institutuan betetzeko aukera izanen dute.

Gero ekintza plana

Hurrengo faseetan gazteekin zein udal langileekin ekintza plana definitzeko pausoak ematen dituztela adierazi dute eta hori egiteko, alde batetik, hainbat gazteri elkarrizketak egingen dizkiete, eta bestetik, jasotako proposamenak udaleko langileekin landuko dituzte.

Azkeneko fasean bilera irekiak egiteko asmoa bazuten ere, Covid-19a dela eta, ez egitea erabaki dute eta beste-lako metodologia erabiliz jarraituko dute aurrera.

Goxaliren beste denboraldi bat abiatu dute

3 eta 14 urte bitartekoek parte har dezakete eta Internetez eman beharko dute izena, azaroaren 16a baino lehen

TTIPI-TTAPA

Martxan da Goxali haur eta gazteei zuzendutako aisialdi gunea, jolaserako, harremanak eraikitze eta irakurketa eta etxeko lanak sustatzeko espazioa. 3 eta 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua da eta udalak, eskolak, guraso elkarteak eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Prebentzio Programak elkarlanean antolatatu dute, haurren autonomia, kritikotasuna, sormena, arduraren, integrazioa... lantzeko.

Multzoekintza

Astelehen eta ostiraletan, Goxali ludoteka Multzoekintza Goxali bihurtuko da. Astelehenetan 17:00etatik 18:00etara LHko 1. eta 2. mailakoentzat egonen da irekia eta 18:00etatik 19:00etara LHko 3. eta 4. mailakoentzat. Ostiraletan, 17:00etatik 18:00etara LHko 5. eta 6. mailakoek hartuko dute lekukoa eta ondotik, ordubetez, DBH 1. eta 2. mailakoek.

Liburutegia

Hilero Leitzako liburutegitik liburuak ekarriko dituzte, Goxali

ralin irakurtzeko. Maileguan eraman nahi duenak hilabetezko azken ostiralean, 14:30etik 15:30era izanen den liburutegi ibiltarira jo beharko du.

Joko tailerrak

Hilabetezko azken ostegunean Haur Hezkuntzako ikasleei eta haien gurasoei bideratutako joko tailerrak egingen dituzte. 17:00etatik 18:00etara izanen dira azaroaren 26an, abenduaren 17an, urtarrilaren 28an, otsailaren 25ean, martxoaren 25ean, apirilaren 29an eta maiatzaren 27an.

Eskola laguntza

Eskolak eta gizarte zerbitzuek kudeatuko dute zerbitzu hau eta informazioa haiei eskatu beharko zaie.

Izen-ematea

Edukiera mugatua izanen dela argitu dute antolatzaileek eta izen-ematea Internetez egin beharko da (<https://forms.gle/Erdb4WtvD1HmKvSG7>), azaroaren 16a baino lehen. Segurtasun eta higie-ne neurriak ere beteko dituztela adierazi dute.

Liburutegi ibiltaria azarotik abendura atzeratu dute

Hilabete honetako liburutegi ibiltariaren hitzorduak bertan behera utzi dituzte eta abenduan izanen da hurrengoak. Leitzako liburutegitik adierazi dutenez, «liburutegi ibiltaria ziurrenik abenduaren 11n egonen da Aranon eta Goizuetan».



Liburutegi ibiltaria herrian.

Kultur ekintzak sustatzeko 2.000 euro jaso ditu udalak

Artea eta Kultura 2020 programaren barne, kultura eta arte jarduerak antolatzearen truk, udalak 2.000 euro jaso ditu Nafarroako Gobernuaren eskutik. 2019ko azarotik 2020ko azarora bitartean egingen dako kultur ekitaldiengatik eskatu zuen dirulaguntza, horien artean, ikastaroak, haur eta helduentzako film emanaldiak, Dama Beltzak eta Puro Relajo taldeen kontzertuak... antolatzeko. 4.000 euroko gastua egin du udalak eta gobernuak 2.000 euroekin diruz laguntzea erabaki du.

Errigorako saskiak Internetez edo Amaiarenean

Azken egunetan da Errigoraren udazkeneko kanpaina. Hiru saski jarri dituzte aukeran, beltza –betikoa–, berdea –ekologikoa– eta zuria –bereziak, eta ostegun hau bitarte, azaroaren 12a, eska daitezke www.errigora.eus webgunean edo Amaia kafetegian.

Herri sarreretako koskak kendu dituzte

Nafarroako Gobernuak mota horretako koskak legea betetzen ez dutela adierazi eta kentzeko agindua eman ondotik, udalak herri sarreretan zeuden abiadura moteltzeko koskak kendu ditu. Aurrerantzean zein neurri hartu aztertuko du udalak, baina bitartean, herrigunean abiadura muga zaintzeko (40 km/h) eskatu du. Bide batez, herri-tarrei bidegorrian –bertakoak izan ezik– eta Errekaundi pasealekuan motordun ibilgailuetan ibiltzea debekatua dagoela oroitarazi die.



Herri sarreretan orain ez dago koskarik.

'Zaintza pandemia garaian' izenburupean argazki lehiaketa

TTIPI-TTAPA

«Zaintzak eta tratu onak balore jarri eta pandemia garaian izan duten garrantziaren inguruko hausnarketa bultzatzeko» Bhutan proiektuaren barne argazki lehiaketa antolatu dute gizarte zerbitzuen mankomunitateak eta Goizueta eta Aranoko Prebentzio eta Berritasun batzordeak.

Argazkiak Goizueta eta Aranoko kokatuak izan beharko dute eta 15 urtetik gorakoek ateratakoak. Bakoitzak gehien argitaratu gabeko bi argazki aurkezten ahaliko ditu.

Argazkiak azaroaren 12ra bitarte aurkeztu beharko dira lagatratuonak@gmail.com bidalita eta parte-hartzaileen artean bi sari banatuko dituzte: bat epaimahaiak aukeraturako argazki sarituarentzat izanen da eta bestea parte-hartzaileen artean egindako zozketa bidez aukeratua. Azaroaren 20an jakinaraziko dute argazki irabazlea zein den eta hilaren 30ean sari banaketa ekitaldia egingen dute, udaltxean. Antolatzaileek aurkezten diren argazkiekin erakusketa bat egiteko asmoa dute.



Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean izanen da emanaldia 19:00etan.

Genero indarkeriaren aurka antzerkia eta bizikleta martxa

Azaroaren 22an antzerkia izanen dute eta 25ean bizikleta martxa

TTIPI-TTAPA

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, antzerkia eta bizikleta martxa izanen dute azaro hondarrean Baztanen.

'Birritan bortxatua' antzezlan

Baztango Udaleko Berdintasun eta Kultura Batzordearen eskutik, azaroaren 22an, igandean, Aldatzen laguntzen antzerki taldearen *Birritan bortxatua* lanaz gozatzeko aukera izanen dute Iruritan. Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean dute hitzordua 19:00etan (emanaldia ikusi

ahal izateko gonbidapenak 18:00etatik aitzinera jaso ahal izanen dira). Antzezlanak bortxaketa bat pairatu duen Nagore izeneko emakumezko baten bizipena du ardatz eta eraso zein epaiketa nola bizi dituen eta ondorioei nola aurre egiten dien jasotzen du.

Bizikleta martxa

Asteazkenean, hilaren 25ean, berriz, Baztango Talde Feministak antolatutako bizikleta martxa izanen dute. Eguna hurbildu ahala, informazioa sare sozialetan partekatuko dutela iragarria dute.

'Motxilaren umea' filma pantailaratuko dute Elizondon azaroaren 20an

TTIPI-TTAPA

Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunaren harira, *Motxilaren umea* film pedagogikoa pantailaratuko dute azaroaren 20an, hurrengo ortziralean. Elizondon, Arizkunenea kultur etxean, ikusi ahal izanen da, 17:00etan.

Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuek antolatu dute hitzordua, eta koronabirusa tarteko, edukiera mugatua izanen dela oroitaraztearekin bat, aitzinetik izena emateko deia egin dute (689 03 50 78 telefonora deituz).



Sinopsia

Filmak ama espetxean duen Maider izeneko neska adingabe baten historia du ardatz. Ama eta alabaren arteko harremana, haurraren garapen pertsonala eta gurasoak hezia izateko eskubidearen urraketak ditu ardatz.

Baztan Kantuz Arraiozen igande eguerdian

Joan den urtean abiatutako Baztan Kantuz egitasmoaren hurrengo hitzordua heldu den igandean, azaroaren 15ean, izanen dute Arraiozen. Musikarien doinuek eta herritarren eztarriek bat eginez, herria girotuko dute. Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako hitzorduaren aitzakian, herritarrak 12:00etan plazatik abiatuko dira eta ordubetez karrikaz karrika ibiliko dira. Kantuak maite dituen oro parte hartzeri gonbidatu nahi izan dute: «Gustuko duzu abestea? Etor zaitez, zain gaituzu!».

Jorge Riechmannen solasaldia larunbatean Elizondon

Energia ona eta Hazitik Hozie elkarteek antolatutako *Landa begiradak* jardunaldien barne, klima larrialdiari eta krisi ekonomikoari buruzko solasaldia prest da. Azaroaren 14an, dute hitzordua 12:00etan Arizkunenean. Joan nahi dutenek aitzinetik erreserbatu behar dute.

Gontzal Mendibilen kontzertua igandean Arizkunenean

Baztango Udaleko Kultura Batzordeak, 2020 Arte eta Kultura programaren laguntzaz, antolatutako Folk Ametsetan zikloa borobiltzeko, Gontzal Mendibilen kontzertua izanen dute heldu den igandean, azaroaren 15ean, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. *Biok* izeneko diska ardatz duen emanaldia izanen da eta entzuleek 18. lan horretako kanta hunkigarriez gozatu ahal izanen dute. Arizkunenea kultur etxean dute hitzordua 19:00etan eta sarrera dohainik izanen da edukiera bete arte.

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Garbitze lanetan aritzeko enpresa sortzeko lanean

Haur eskolako langileen egoera egonkortzeko «kudeaketa publikoaren alde egitea beharrezkoa» delakoan daude

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak herrietako hamar eskolak eta sei mediku kontsulategiak, Elizondoko eskola eta Baztan ikastola (bi eraikin) garbitzeko enpresa publikoa sortzeko batzordea osatzea erabaki zuen urriaren 22an egindako osoko bilkuran. EH Bildu, Ezkerra eta Geroa Baik alde bozkatu zuten (10 boto guztira); Navarra Sumak, berriz, aurka (boto bakarra).

Enpresa sortzeko batzordea lanean

2019ko azaroan aipatutako eraikinak garbitzeko azterketa ekonomikoa egitea erabaki zuen Baztango Udalak, EH Bilduren proposamenari kasu eginez. Azterketa horrek kudeaketa ereduak alderatu behar zituen, ekonomikoki hoberena zein zen ondorioztatu ahal izateko.

Urrian aurkeztu zen txostenak erakutsi zuen «ekonomikoki kudeaketa aukera eraginkorrena enpresa publikoarena dela». Hori horrela, indarrean den prozedura administratiboari jarraiki, enpresa eratzekeo batzordea sortu dute. Batzordeak

jardueraren alderdi sozial, tekniko eta finantzieroak aztertuz memoria idatzi beharko du. Batzorde horretan alderdi guztietako ordezkari bana, udaleko idazkari eta kontu hartzaileak eta udaleko aholkularitza juridikoak parte hartuko dute.

Haur eskolaren kudeaketa aztergai Bertzalde, bilkuran haur eskolari buruzko azterketa ekonomikoa egitea onartu zuen, azterketaren ondorioen arabera kudeaketa publikoa egiteko. Erabakiaren alde EHBilduk eta Navarra Sumak egin zuten (9 bozka). Kontra, berriz, Ezkerrak eta Geroa Baik (4 bozka).

EH Bilduren ustez «haur eskola oinarritzko zerbitzu publikoa da eta gainera izaera hezitzailea du. Horregatik, proiektu pedagogikoaren jarraipena segurtatzeko eta kalitatezko zerbitzu publikoa izateko langileen egoera egonkortzeko, kudeaketa publikoaren alde egitea beharrezkoa da». Gaineratu dutenez, azterketaren emaitzak «erranen du kudeaketa publikoa egiten ahalko ote den».



Astegun bakoitzak bere koloreko musukoa dauka.

Elizondoko Lanbide Eskolan musukoak diseinatu eta banatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolan, ikasturtea Covid-19ak eragindako egoerara egokitzeko, hainbat koloretako musukoak diseinatu dituzte.

Egun bakoitzean kolore jakineko musukoa jantzi behar dute: astelehenetan beltza; asteartetan urdin argia; as-

teazkenetan zuria; ortzegunetan urdin iluna; eta ortziarletan gorria.

Horrela, ikasle zein irakasleek egunero musukoa aldatzen dutela ziurtatzen dute. Astea akitzen delarik, musukoak etxera eraman, garbitu eta hurrengo asterako prestatu behar dituzte.

Jarduera kulturalak sustatzeko 12.265 euroko laguntza

Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol Departamentuak, Artea eta Kultura 2020 programaren barne, jarduera artistiko eta kulturalak antolatzekeo dirulaguntzak eman ditu. Guztira 537.000 euro banatu ditu eta, Baztani dagokionez, Elizondok 12.265 euro jaso ditu.

Su-egur loteak eskatzeko aukera ireki dute

Baztango Udalak 12 tonako 165 su-egur lote banatuko ditu. Bi aukera daude eskatzeko: eskaera egin eta 12 euro ordaindu ondotik eskatzaileak atera eta etxera eramatea; edo enpresa batek su-egur lotea atera eta etxera eramatea. Bertan erroldatuek eska dezakete.

Euskaraldia '15 egun, 15 herri' erronka martxan

Euskaraldiaren harira, '15 egun, 15 herri' ekimena abiatu dute Baztanen. Erratzuarrek argazkia atera eta iruritar eta lekaroztarrei luzatu zieten erronka... Eskuz esku eta ahoz aho euskara dantzarazteko prest daude!



BAZTANGO EUSKALGINTZA



Piriniotar arrazako behien artean izan den handienetarikoa gizendu du azpilkuetarrek. UTZITAKOA

«Bertako produktua gehiago baloratu beharko litzateke»

FERMIN BARAZABAL IRIGOIEN AZPILKUETAKO ABELTZAINA

Behiak gizentzea maite du Barazabalek. Azkena 1.200 kiloko piriniotar behia izan da, «inoiz izan den handienetarikoa». Hurrengo buruan du: «1.500 kiloko idia egin nahiko nuke»

TTIPI-TTAPA

Ameriketan artzain ibili zen eta Euskal Herrian unai dabil Fermin Barazabal Irigoien (Azpilkueta, 1948). 1975ean, herrira bueltatu zenean, etxe-koei segida eman nahian behi piriniotarrekin aitzinera egitea erabaki zuen: «fabrikako lanetik kanpo egiten nituen lanak». Hogei buru ingururekin hasi zen eta, gaur egun, afizioari eusten dio.

Ferien beharra

Mundu horretaz goatzeko eta aitzinera egiteko, lan handia eginga da baztandarra. Izan ere, 1964az geroztik behi-azienda piriniotarraren lehiaketa-enkantean parte hartu du: «hasmentan behiak eramaten nituen eta antolatzen laguntzen nuen. Azken 35 urteetan, berriz, antolakuntza aritu naiz». Ez da nolanahikoa «dirulaguntzak bil-

tzen, lekua prestatzen eta hornitzen» egiten duten lana. Baina, gaineratu duenez, horretarako, Baztango Udalaren «laguntza handia» izaten dute.

Urtez urte, udazkeneko lehiaketa-enkanteak izan duen bilakaera positiboki baloratu du Barazabalek. Kantitateak beheiti eginagatik, kalitatea hobetu delasumatu du: «lehiaketa 500 buru izatera ailegatu izan da eta krisiaren ondorioz, 300 ingurura jaitsi zen. Hala ere, sekulako kalitatea ikusten da, urtetik urtera maila handiagoa da».

Aurten ez udaberriko, ez udazkeneko, ez enkanterik ez da izan. Horren falta na-

baria izan da: «enkantean jende aunitz elkartzen da eta zonaldeari mugimendua emateaz gain, feriak salerosketa bultzatzeko lagungarri dira...». Birusak agertokirik gabe utzi ditu aziendak, eta, zoritxarrez, ez da hori izan eragin duen kalte bakarra: «prezioa %15 jaitsi da...».

Azpilkuetarren arabera, abeltzaintza hondarreko urteetan «gibelerat» egin duen sektorea da. Horrek bereziki «nekazaritzatik bizi direnengan» eragin zuzena du eta hauek babesteko «dirulaguntzak haiendako bakarrik» izan beharko liratekeela eta «kopuruari baino azienda kali-

«ENKANTEKO AZIENDAREN KALITATEA URTETIK URTERA HOBEA DA»

«DIRULAGUNTZAK AZIENDETATIK BIZI DIRENENDAKO IZAN BEHAR DIRA»

tateari» erreparatu beharko lioketela iduritzen zaio.

Kalitatea

Kalitatea izan du berak oinarri eta horri begira zaintzen ditu egun dituen «hamar buruak». Bata bertzea baino ederragoak dituen arren, izan du bere handitasunagatik nabarmendu denik: «azaro hasieran inoiz izan dudan handiena kendu nuen, 1.200 kilo ingurukoa». Piriniotar arrazako behia dela kontuan hartuz, handienetarikoa da berea: «blonda, txaloresa eta bertze arraza batzuetakoak handiagoak izaten dira, hezur handiagoak izaten dute, eskeleto handiagoa eta arraza horietan haragi gehiago saltzen da. Piriniotarren artean nik ez dut horren handirik ezagutu...».

Gaineratu duenez, ez da nolanahi gizendua izan: «pentsu hoberena eman diot, naturala, garbia, eta mimo aunitzez zaindu dut». Hasmentan «egunean 15 kilo pentsu eta azken aldian sei bat» eman dizkio eta «geldiago egoteko eta haragi hobea izateko», barrenean gizendu du: «be-laiari ibiliz gero haragia zailagoa da eta, noski, pentsuaren kalitateak garrantzi berezia du». Horrez gain, «kamaina gure ohatzearen parekoa izan da, lastoz egindakoa».

Behiak gizentzea gustuko du Barazabalek eta urtero «baten bat» gizentzen du. Azken hori, Nafarroako kooperatibara saldu du. Eta, gaur-gaurkoz, saltzeko arazorik izan ez duen arren, bertako aziendaren etorkizuna ez du nahiko lukeen bezala ikusten Barazabalek: «bertako produktua gehiago baloratu beharko litzateke».

Berak, ahal duen heinean, horri eutsi nahi dio: «behi horren lau ume ditugu etxean eta horietako bat zikiratu eta idia egin behar dut. Ongi bainago behintzat 1.500 kiloko idia egin nahi dut».

'Ez dok ero' antzerki emanaldia Iruritan azaroaren 20an

Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean izanen da emanaldia 19:00etan

TTIPI-TTAPA

Jokin Oregiren zuzendaritza-pean, Patxo Telleriak egindako eta Mikel Martinezekin batera eskainitako *Ez dok ero* antzez-lana izanen da Euskaraldiaren iragarle Baztanen. Azaroaren 20an Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean ikusi ahal izanen da 19:00etan (gonbidapenak 18:30ean hartu ahal izanen dira).

Sinopsia

Mikelote eta Pantxo bikote artistikoa desegin da. Haien formula komikoa gastatua zegoen, eta hurrengo belau-naldiek haien tokia okupatu dute. Pantxok ongi hartu du behartutako erretiroa. Eskenatokitatik urruntzeko gogoazuen aspalditik, bizimodu lasai eta normalizatua desiratzzen zuen, artearen eromene-



tik urrun. Mikelotek ez du bukaera onartu nahi eta burua galtzeraino eramanen du.

Egun batean Mikelote, *antzerkilari andante* estra-falariora, Pantxoren bila joango da, trasteak prestatu eta Euskal Herrian barna joateko, herriz herri antzezttera, *Euskal Antzerkiak Behar Gaitu* uste inozoarekin.

Horrela ibilbide fantastiko bat egingo dute Euskal Herrian, hamaika abentura ero biziz. Mikeloteren imaginazioak sorturiko pertsonaia harrigarriak ezagutu eta egoera korapilatsuetan endredatuko dira.

'Printzesa edo igela nire aukera' ipuina azaroaren 26an

Baztango Udaleko Gizarte Zerbitzuen eskutik, *Printzesa edo igela nire aukera* haurrentzako ipuin-antzeztua izanen dute azaroaren 26an, ortzegunean, Arizkunenea kultur etxean. Conchi eta Maite Redinek, Adriana Olmedok eta Ainhoa Ruizek osatutako T Diferencia taldearen emanaldia 17:00etan hasiko da eta koronabirusak eragindako egoerara egokitze-ko, edukiera mugatu eta neurri guztiak beteko dituzte. Hortaz, bertaratu nahi dutenek aitzinetik 689 03 50 78 telefonora deituzizena eman beharko dute.

Bigarren eskuko arropa eta objektu bilketa gaztetxean

Etxean erabiltzen ez diren eta bertezendako erabilgarri izan daitezkeen arropak eta objektuak biltzeko deialdia egin du Baztango gazte asanbladak. Nahi dena eraman ahal da ortziraletan 18:00etatik 20:00etara eta gaztetxean bertan gordeko dute. Bertaratzen direnek bertzeek eramandako objektuak erosteko aukera izanen dute. Urriaren 30ean abiatu zuten bilketa eta jakinarazi dutenez bildutakoa Eguberrien bueltan egingen den bigarren eskuko azokan salgai paratuko dute.

'Bizitzaz Gozatu' diskoa aurkeztuko du Trikidantzek abenduaren 3an

TTIPI-TTAPA

2020 Arte eta Kultura programaren barne, Trikidantz taldeak egindako azken diskoa, *Bizitzaz Gozatu*, aurkeztuko du abenduaren 3an, ortzegunean.

Arizkunenea kultur etxean dute hitzordua. Emanaldia 18:00etan hasiko da eta kontzertuaz gozatzeko ez da sarrierarik ordaindu behar izanen. Hala ere, edukiera mugatua izanen da eta tokia gordetzea nahi dutenek, erreserbatzeko 685 63 31 95 telefonora deitu dezakete.



'Bizitzaz gozatu'

Bizitzaz gozatu hamar kantu polit, alai eta dantzagarri osaturiko diskoa da, Trikidantz taldeak Elizondoko Xabier Maia eta bertze bertsolari haundi batzuen letrak musikatuz osatu duena.



UTZITAKOA

Lehen arretaren aldeko aldarria

Nafarroako Osasun Plataformak deituta, asteazkenetan lehen arretaren aldeko elkarretaratzeak egiten ari dira osasun etxeetan. Elizondoko osasun etxeko langileek eta Arizkun, Amaur eta Erratzuko kontsultategietako kideek eta erabiltzaileek deialdiarekin bat egin zuten urriaren 28an.

MARMOLES SOULE
www.marmollessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmollessoule@gmail.com

Zaindu maite duzun hori...

Osasun aseguruak orain %25a merkeago (abendurarte)

Neli eta Maite
hurbiltasuna eta konfiantza

GENERALI

Santiago 72B, ELIZONDO • M. 669 32 63 33

Akordeoi eta klarinete irakasleen zerrenda irekita

Eskabideak azaroaren 12ra arte aurkez daitezke Baztango Udaleko erregistroan

TTIPI-TTAPA

Urriaren 21ean egindako bilkuran, lehiaketa-oposizio bidez, akordeoi eta klarinete irakasle lanpostuan aritzeko izengai-zerrenda bat osatzea erabaki zuen Udalak. Intereza dutenek azaroaren 12ra arteko epea dute.

Izengaiek, eskabideak aurkezteko epea akitzen den egunean, adinez nagusiak, 1966 planeko erdi mailako titulua, LOGSEko musika-tresnako goi-mailako titulua edo horren baliokidea izan beharko dute (atzerriko titulazioen kasuan homologazio-egiaztagiriarekin). Horrez gain, behar bertzeko gaitasun fisiko eta psikikoa izan eta euskaraz jakin beharko dute.

Eskabideak Baztango Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dituzte azaroaren



Baztango akordeoilariak.

12a, ortzeguna, bitarte. Eskabideekin batera, Nortasun Agiri Nazionala, musika-tresnaren eta euskararen (C1) ezagutza neurtzen duen titulua eta merezimenduak aurkeztu beharko ditu.

Eskabideak aurkeztu ondoren, behin-behineko eta behin betiko zerrendak udalaren webgunean zintzilikatuko dituzte.



Helduen taldea berreskuratu nahi luke SPUC eskubaloiko zuzendaritza berriak.

Zuzendaritza berria hautatu dute SPUC eskubaloiko taldeko kideek

PIERRE BASTRES

SPUCeko eskubaloiko sailak lehendakaria behar zuen hautatu aurretik. Mathieu Larremendy eta Julien Garciarekin izan dira lehendakari-kideak. Bulegoko bertze kideak, berriz, Guillaume Etchelecou, Katia Harocarene, Caroline Lassaga eta Mathilde Beau.

Mathieu Larremendy, Senperen ezkondua izanik ere, irisartarra da jite, eta hango eskubaloiko talde ezagunean aritu izan da 27 urtez: «Horrenbertze urte etxeko klubean egin nituen, Senperekoan bostz urtez ere aritu izan naiz joka-

lari gisan, eta laketu naiz izi-garri. Ondotik trebatzailea izan naiz, hamaika urtez azpiko nesken taldearekin. Elkarteko antolakuntzan sartuz, ohartu naiz zaletasun handia bazela hemen ere, eta gauzak hobetzen ahal zirela. Egia erran, Irisarrin ikusi eta ikasitako kirol kultura eta erakargarritasuna miresten ditut beti, badakit ezinezkoa dela hemen errepikatzea han egiten dena, baina gisa batez eredutzat har dezakegu, hemengo kulturari egokitzu bistan dena».

ondoko orrialdean segida →

ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com

→ Honenbertzez, hauteskundeak zirelako, zerrenda baten sortzea erabaki du Mathieuk, bere ikusmoldea indarrean ezarri ahal izateko «Elgarlana izanen da klubeko bizkarrezurra–dio–. Hasteko, erdietsi nahi ditugun helburuak, eta antolakuntza zerrendako kideekin finkatu ditugu, osoki. Egiteko lanak komisioetan zatitu ditugu; eta komisioetako buruak askatasun osoz arituko dira».

«Etxean bezala sentitzeko gunea izan behar du klubak»

Bertzalde, Larramendyren ustez, kluba ez da izan behar bakarrik kirolean aritzeko gunea, baizik eta goxo-goxoan, etxean balitz bezala sentitzen den gunea: «jokolari, trebeak zein hain trebeak, guraso, epaile, etab... bakoitzak adierazi ahal izan behar du, eta denetaz artatu behar dugu. Klub batek iraun nahi badu, hau da gakoa ene ustez: adiskidantza, elkartasuna, oroitzapen onak, irriak, partiduen ondoko bestak...». Azkenik, gazte eta helduen artean loturak azkartuko dituzte: «helduak gazteen taldeen aitabixiak bilakatuko dira adibidez. Ona da gazteen konfiantza garatzeko».

Irisartarrak ez du ahanzten kirola eta lehia: «Kirolari dagokionez, ez dugu talderik helduetan eta 18urtez azpikoetan: sinesten dut laster sor ditzakegula. Eta sei urteren buruan, departamentu mailatik eskualde mailarat nahi genuke upatu. Hori erdieste-ko, adin guzietako jokolarien maila eta beren joko jakintza beharko ditugu hobetu».

«KLUB BATEK IRAUN NAHI BADU ADISKIDANTZA, ELKARTASUNA... DIRA GAKOAK»

MATHIEU LARRAMENDY, SPUC ESKUBALOIA

Lezean eta museoan egin diren lanendako dirulaguntza

MARIFA ETA KORO

Lezea eta Sorginen Museoa hetsita egon zirenean (apirila eta ekaina bitartean) lan politak egin zituzten bi toki haue-
tan: lezeko eremu batzuk moldatu, ibilbidea berrantolatu, ateka berri bat jarri, QR kodeak jarri, errotulazio berriak eman, sarrera telematikoak eskaini, eta gisa horretakoak.

Hau guztia posible izan da, Nafarroako Gobernutik dirulaguntza polita jaso delako. Lezea eta museoak Nafarroako Explora Sarean sartuta daude eta horri esker, egindako gastuaren %80 ordaindu ahal izan da, hau da, 21.087,67 euroko dirulaguntza hartu da.

Explora Sarea

Izan ere, noranzko bakarreko ibilbidea sortu beharrak, ezinbertzean, hainbat esku-hartze egitea eragin du: leize txikiak ixtea, seinale berriak... Era berean, bisitarien pilaketak saihesteko harrera-gunean hainbat hobekuntza egin dira, eta hondaturik zeuden zenbait itxitura konpondu dira.

Nafarroa ezagutzeko Explora Sarea ekimenaren helburua landa eremuan dauden naturgune eta interes espazioak dinamizatu eta erakargarri bilakatzea da.

ZUGARRAMURDI



MARIFA ETA KORO

Domisaindu egunean hilerria apain

Domisaindu egunean, aitzakia hartzen da familiaren «bigarren etxea» ere apaintzeko, hau da, kanposantuko hilibia. Ikusgarri izaten dira gure kanposantuak egun horretan, lorategi batean pasaletan ibiltzea bezala izaten da. Aurtengoa egun eguzkitsua izan zenez, toki triste hauek alaitu zituen pixka bat.



MARIFA ETA KORO

Kalteak eragin ditu haizeteak

Urriaren 20ko haizeteak hainbat kalte sortu zituen. Kaltetuenak mendietako zuhaitzak izan dira, baina karrikan ere etxeren batean makurrak izan dituzte, eta herriko sarrerako kartela desmuntatu eta lurrera bota zuen. Horretaz gain, hamabortz orenez argindarrak gabe egon ginen.

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irun

LUZAIDE
31660 Luzaide

DANTXARINEA
31712 Urdax

EGUNERO IREKIA,
ASTELEHENETIK
IGANDERA ARTE

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

Udalak gaitasun anitzeko teknikaria xerkatzen du

Hautagaitzak azaroaren 18a baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko Etxean eta lanpostuan berehala hasiko litzateke

TTIPI-TTAPA

Eraikitze eta berritze lanetan jarduteko eta bederatzi pertsonen osatutako talde bat gainbergiratu duen langile bat xerkatzen du Herriko Etxeak. Langilearen ezaugarrien artean: egokitze ahalmen handia, antolatua, xeheki aritzea, taldeetara erraz egokitzea, tenorekoa, isil eta zuhurra izatea hobetsiko da.

Profila

Interesatuak etxegintzan esperimentzia handia ukan dezala eskatzen da, baita, erai-kinen mantentze teknikak (iturgintza, pinturak, zurgintza, igeltsua...) nahiz, produktuen hornikuntzen eta materialen erabiltze arauen eza-gupen eta betetzea.

Zerbitzuaren jarraipena egiteko behar diren dokumentuak,

betetzen jakitea funtsezkoa izanen da. Era berean, leku garaietan eta zama-lanak egiteko gai izan behar da.

Baimenei dagokionez B mailako gida baimena izatea eta euskara ongi ezagutzea ezinbertzekoa izanen da. Aldiz, C-CE eta CACES gidabaimenak izatea eta gazteleraz jakitea kontuan izanen diren ezaugarriak dira.

Lanpostua

Lanpostu iraunkor eta lanaldi osokoa eskaintzen da, eta lanean berehala hasiko litzateke.

Hautagaitza aurkeztu nahi dutenek curriculum motibazio-gutunarekin igorri beharko dute direction@sare.fr helbidera edo aurrez Herriko Etxean azaroaren 18a baino lehen.

Elkarlana harremanen oinarria dela aldarrikatu du Herriko Kontseiluak

TTIPI-TTAPA

Urriaren 27tik aintzina Sarako Herriko etxean biztanle guztientzat zerbitzu berri bat eskainiko da.

Jardun administratiboak egiteko zailtasunak dituztenek: eskutitzak idatzi, administrazioa batzuetara dei egitea... Herriko Etxera jo dezakete laguntza eske. Bertan, boluntario talde batek laguntza eskaintzen du eginkizun hauek betetzeko. Laguntza behar dutenek 05 09 54 20 28 telefonora dei dezakete eta ahal bezain laister, gizarte arloko



langile bat eskatzailearekin harremanetan jarriko da.

Laguntzarik behar ez duten herritarrek, baina, aldiz, beraien laguntza eman nahi dutenek Sarako Herriko Kontseiluarekin harremanetan jartzea eskertuko lukete denen artean elkar laguntzeko asmoz.



Sarako hilerria Omiainsandu egunean lorez apaindua. UTZITAKO ARGAZKIA

Lorez beteriko eta bisitari gutiko ez ohiko Omiainsandu ospakizuna

GANEX

Azaroaren lehen igandean ospatu zen Omiainsandu eguna, eta bertze herri gehienetan bezala, bertze urteetan baino jende gutiago ibili zen Sarako hilerri nahiz eliza inguruetan. Omiainsandu egunez, urtero urtero ohikoak izaten dira herrian bizi ez diren baina familiako kideak nahiz lagunak

hilerrian dituzten pertsonen bisitak.

Aurten, aldiz, osasun neurri eta edukiera mugatuaren ondorioz, Sarako hilerri eta elizkizunak bisitari guti izan zituen.

Bertzalde, herritarrek hilerriara joateko eta bertako hila-riak apaintzeko ohitura mantentzen dutela ikusi ahal izan zen.

Hiru saratarrek 'Kilima', euskarazko haurtzain etxea zabaldu dute Azkainen

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 2an, astelehenarekin, ireki zituen ateak 'Kilima' haurtzain etxe berriak. Azkainne erdigunean kokatzen da eta 0-6 urte bitarteko hamabi umeentzat edukiera du.

Proiektu berri hau Maite Goyeneche, Isah Hiribarren eta Mirentxu Errandonea saratarrek abian jarri dute. Inguruko herrietako familia euskaldun anitzek haurtzain euskaldunak xerkatzen dituztenaren eskaera asetzeko asmoz, sortzaileek zerbitzu hau eskaintzea erabaki zuten.

Horrela, bakoitzaren esperimentzia profesionalak bateratu eta euskarazko haurtzain etxea sortzea erabaki zuten. 170 metro karratuko euskal etxe argitsu bat hautatu eta umeak jasotzeko baliabideez hornitu

zuten. Eta, jada, emaitza jaso dituzte. Izan ere, Sara, Ziburu, Azkaine nahiz Senpereko hainbat familiekin haien haurrak bertara eramaten baitituzte.

Baloreetan hezi

Maite, Isah eta Mirentxuk balore berdinek partekatzen dituzten heinean, arrunt ongi dakite *Kilimaren* jarduerak zertan oinarritu behar diren.

Leku paregabean ireki dute haurtzaindegia, hondartza nahiz mendiak hurbil baitaude. Umeak kanpora begira hezi daitezten nahi dute animalia nahiz naturarekiko loturak sendotuz. Hau asetzeko asmoz, baratze bat jorratzeko asmoa ere badute.

Informazio gehiago nahi dutenek 06 78 13 14 47 telefonora dei dezakete.



Julio Salinas Lesakako albaitariak Arantzako Egusuta baserriko ardiei txertoa paratu zien joan den astean. JOSE RAMON AMOROS

Mingain urdinaren kontra buru-belarri

Joan den hilabetea Bastango ixtegi batean mingain urdinaren gaitzean kasu positibo bat agertu ondotik animalien mugimenduak mugatu dituzte 50 kilometroko eremuan. Birusaren kontrako txertaketa kanpaina bete-betean ari dira eskualdeko albaitariak

G. PIKABEA

Bai abeltzainak bai albaitariak «ustekabeen» harrapatu ditu mingain urdinaren gaitzak. Halaxe aitortu digu Josu Sarobe Karrikas Nafarroako Gobernuak Abeltzaintzako Departamentuko albaitariak. «Egun batetik bertzerera, bat-batean» agertu dela dio, «eta ez genuen espero». Halere, neurriak hartuta bete-betean sartu dira mingain urdinaren kontrako txertaketa kanpaina. Nafarroako Gobernuak 800.000 euroko inbertsioa egin du eta 350.000 animalia txertatuko dituzte.

Culicoides izeneko Moskitoen bidez kutsatzen den eritasuna da mingain urdina, bereziki hausnarkariei eragiten diena. Josu Sarobe, Doneztebeko Albaitaritzako Zentro Teknikoko Juan Ramon Ostiz Apeztegia eta Elizondoko Albaikide al-

baitaritzako Oier Usandizaga Larrañaga albaitariak azaldu digutenez, «ez da gizakiei transmititzen eta bereziki, ardi-, ahuntz- eta behi-aziendei eragiten die». Moskitoak animalia horiei ausiki egiten dielarik hainbat sintoma izaten dituela azaldu digu Sarobek: «arnas aparatuari eragin eta birrikak betetzen zaizkie, burua eta mingaina hanpatzen zaizkie, ahoan eta atzaparretan ultzera ttiki batzuk ateratzen zaizkie, ahoan petekia edo puntu gorri batzuk agertzen zaizkie...». Ostizek gaineratu duenez, «nahiko sintoma argiak dira».

Lehenbiziko positiboa Bastanen

Mingain urdina kontrolatzeko programaren barne, Nafarroako Gobernuak egiten dituen kontrol batean hasi zen dena. Sarobek kontatu digutenez, «zen-

tinela deitzen zaien ixtegi batzuetako animaliak txertatu gabe uzten ditugu, antigorputzik gabe, eta hilabetero odola hartzera joaten gara, eritasuna kontrolatzeko». Hain zuzen, «Malerrekan dagoen zentinelan batean agertu zen Nafarroako lehenbiziko kasua. Horrek alerta piztu zigun. Gerora, albaitari kliniko batek Bastango behi-azienda bati mingain urdinaren sintomak ikusi zizkion eta lagina hartu genuenean baieztatu genuen positiboa zela. Malerrekakoa ez zen kasu garbia, baina Bastangoa arras garbi gelditu zen».

Mugikortasuna mugatua

Mingain urdina derrigorrez aitortu beharreko gaixotasuna da, eta positiboa baieztatzearekin batera, izendapena indarrean jarri zuten eta, gisa

berean, fokuari 50 kilometroko eremuan mugimenduak mugatu zituzten, Nafarroa erdialdean eta iparraldean eta Gipuzkoan Goierriaraino eta Debaraino. Abeltzainek ezin dituzte animaliak mugatutako eremutik kanpo merkaturatu. Sarobek erran digutenez, «mugatutako eremuaren barnean mugimenduak egin daitezke, baita eremu garbitik kaltetutakora ere, baina kaltetutakotik ezin dira aterara».

Zenbait baldintza betetzen badituzte soilik atera daitezke mugatutako eremutik. Sarobek, Ostizek eta Usandizagak azaldu digutenez, «txertoa emana baldin badute, edo bertzela, 14 egunetz desinfektatzaile batekin egon eta ondotik, PCR proban negatibo ematen badute atera daitezke».

Txertoa

Duela aste pare bat hasi ziren albaitariak txertaketa kanpainarekin. Usandizagak kontatu digutenez, «gobernuak hala eskatuta, arrisku handiena izan zezaketen ixtegieta hasi ginen txertoak paratzen. Joan den astean, berriz, denendako txertoak jaso genituen eta orain, horretan ari gara». Abeltzain bakoitzak «gobernuak izendatutako albaitari kliniko» omen du eta horrekin lotuta, Sarobek «txertatzeko abeltzain bakoitzak bere albaitari pribatuarekin harremanetan jarri behar duela» oroitarazi du.

Aldaketak ere izan dira txertoan. Ostizek azaldu digutenez, «lehen txertoa eman eta handik hiruzpalau astera berriz eman behar izaten zitzairen. Orain, ardien kasuan, txertoa behin ematearekin aski da. Behietan, berriz, txertoa eman eta hiru asteren buruan errepikatzen dute». Bere irudiko txertoak «gero eta hobeak» dira.

Mingain urdinak «24 serotipo» dituela argitu digute Sarobek eta Usandizagak. «Frantziako estatuan, adibidez, laugarrena eta zortzigarrena dituzte, eta Espainiako esta-

tuan, Extremadura eta Andaluzia aldean, lehenbizikoa eta laugarrena. Baztanen izan den agerraldian zortzigarrena agertu da», dio Sarobek. Usandizagak, bere aldetik, «behietan zortzigarren tipoa bi alditan eta ardietan laugarren eta zortzigarren tipoa dosi bakarrean» txertatzen ari direla kontatu digu. Bi kasuetan «urtebeteko eraginkortasuna» duela gaineratu du, nahiz eta «administrazioak irizpide horiek alda ditzakeen egoeraren kontrola galtzen hasten bada».

Gaitza «bat-batean eta txertoa prest izan gabe» agertu izanak «abeltzainen artean eragozpenak eta nahigabea sortu dituela aitortu digu Ostizek. Albaikidekoak «nahiko lanpetuak» ari direla aipatu digu, «hasieran jendea larritu delako». Horregatik, «jendea-ri pazientzia izateko» eskatu die Doneztebeko al baitariak, eta baikor mintzatu da: «txertoak nahiko ongi funtzionatzen du eta gaitza kontrolatu izan da. Jendea baikorra izan da. Jendea epe laburrean kontrolatzen ahal dugun». Bere esperientzian oinarrituta, «galera ekonomikoaren beldur, bizpahiru urtez txertoa eman beharko dela» iruditzen zaio, eta behin epe hori pasatuta, «kasurik agertzen ez bada, txertoa emateari utziko diote».

Bertzalde, kanpaina «garestia» dela azaldu du Usandizagak, «txertoak direla, al baitarien lana dela... azpiegitura handia da eta gastu handia sortzen du». Hortaz, «aitzine- ra begira kanpainaren iraupena eritasunak baino gehiago ekonomiak erabakiko duela» iruditzen zaio.

Txertoaren bueltan aziendek izan ditzaketen ondorioak ere aipatu dituzte. Usandizagaren



Juan Ramon Ostiz Doneztebeko al baitaria Oronozko Jorge Oteizaren ardiei txertoa paratzen. UTZITAKOA

ustez, «aunitzetan, eritasunak baino kezka handiagoa sortzen dute txertoen ondorioek. Txertoa emateko momentuak ardiengan estres handia sortzen du eta gerta daiteke horren ondorioz, ardiren batek abortua izatea edo lehendik ahul dagoen ardi bat txertoa eman eta bi egunen buruan hiltzea. Halakoak gerta daitezke, baina ez dira ohikoak».

Ondorio ekonomikoak

Mingain urdinaren eragin ekonomikoaz ere mintzatu dira hiru al baitariak, Sarobek dioenez, «herrialde bakoitzeko legedia diferentea» delako. Usandizagaren hitzetan, «Nafarroan, txertatua baldin badago edo babes neurriak hartuak baldin badira, ez dago animalia kaltetutako eremutik ateratzeko arazorik. Kanpora egiten diren esportazioek sor dezakete arazoa. Turkiak, adibidez, estatu espainiarretik haragirik ez duela erosiko erran du». Sarobek honela azaldu

digu: «Erriberakoek aratze eta ardiak Libano, Libia, Aljeria eta Egiptora mugitzen dituzte eta hemen mingain urdina izanda, esportazio horiek alde batera utz ditzakete, baita bi urtez ere». Hortaz, berez, eskualdean «eragin ttikiagoa» izanda ere, «dena kate baten baitan» dagoela nabarmendu du gobernuko al baitariak, «hemendik Erriberara eramaten delako». Hortaz, «ez dela huskeria eta Nafarroako abeltzaintzan eragin ekonomiko handia izan dezakeela» ohar-tarazi du.

Abendura arte

Momentuko egoerari erreparaturaz, arazoak «abenduratsura arte» iraunen duela iruditzen zaio Saroberi, «moskitorik ez badago, estatu mailako buletin ofizialean aldi baterako eremu libre izendatuko dute eta neurriak arinduko dituzte». Baina berez hotzarekin desagertzen diren moskitoak ikusi egin behar

zein bide hartzen duten: «gero eta negu suabeagoa egiten duelako», dio Ostizek. Sarobek, berriz, hainbat tokitan moskito horiek kontrolatzeko gobernuak dituen tranpen gaia ateratu du: «Beran dagoen tranpan moskitoak atzemanaz gero, Malerreka eta Bortziria ez dira eremu libreria pasako».

Kontuak kontu, «lehenbailen txertoa ematearen garrantzia» aritu dira hiru al baitariak. Eta bereziki ardiengan jarri du arreta Sarobek: «2008an gaitzak ardiaren %20-30 hil zituen. Behietan aise motelagoa da eritasuna eta ez du aparteko arazorik sortzen».

Usandizagak gehiago ere erran du: «ardietan umatu baino lehen txertatzeko aholkatuko nuke. Artzainei beldurra ematen die umatu baino lehen txertoak abortuak eragin ditzakeelako. Baina gero, esnea produzitzen ari direnean, ez dakigu ekoizpena jaitsi daitekeen edo ez, eta ardi bati ekoizpena jaitzen zaiolarik gero ez zaio bueltatzen». Areago: «parasitoen kontrako edo enterotoxemia txertoak emateko ohitura dutenei, mingain urdinarena baino lehenago paratzeko» gomendatu die, «arazo guttiago sor daitezkeela» uste duelako.

«EKONOMIKOKI ERAGIN HANDIA IZAN DEZAKE»

JOSU SAROBE, ALBAITARIA

«TXERTOAK ONGI FUNTZIONATZEN DU»

JUAN RAMON OSTIZ, ALBAITARIA

«TXERTOAK LEHENBAILEHEN EMATEA HOBE DA»

OIER USANDIZAGA, ALBAITARIA

Dantxarineko mugak eta dendek irekita segitzen dute

Ostatuak, aldiz, itxita daude eta horregatik gibelatu behar izan dute hasia zen Pintxoaren Hamabortzaldia

ARANTXA ETA IRAIA

Nafarroako segurtasun neurri zorrotzagoengatik hainbat nahasmen sortu ziren Urdazubin urriaren 21ean. Nafarroak mugak eta osatuak itxi bazituen ere, iparraldeaz bereizten gaituzten mugek irekita jarraitzen dute. Honela, Iparraldeko bezeroekin nahastura handia sortu zen, mugak itxiko zirela uste baitzen. Honen bi egunez Dantxarinea jendezlepo egotea eragin zuen. Hortik aurrera, aldiz, Frantziak konfinamendua ezarri duela gaineraturik, jende gutti ibili da eta inoiz baino asteburu tristeagoa sumatu da auzo horretan.

Dantxarineko pintxo hamabortzaldia gibelatua

Urteroko Dantxarineko Pintxoaren Hamabortzaldia urria-

ren 15ean hasi bazen ere, Nafarroan indarrean sartutako neurrien eraginez gibelatu egin behar izan dute. Ostatuak eta jatetxeak hertsia egonik, ezin zitekeen ekimen hau aitzinerat atera eta beraz, egoera hobe batean egingen dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Haizetearen eraginez herria argirik gabe gelditu zen

Urriaren 20ko gauean ikaragarriko haizeteak egon ziren herrian. Horren eraginez, goizaldeko 03:30etik aitzinera herria argi gabe geratu zen. Arazoa konpontzen saiatu ziren arren, Iparraldetik zetorrela ohartu ziren eta ondorioz, herriko langileek ezin izan zuten ezer egin. Zorionez, goizeko hamaiketan arazoa konpondu eta berriro argia itzuli zen herrira.

Patxi Bidaurrek eta Sagrario Elizetxek urrezko ezteiak

Patxi Bidaurrek eta Sagrario Elizetxek 50 urte egin dituzte ezkondu. 1970eko urriaren 26an ezkondu ziren eta ordu-tik Dantxarineko Venta Pacon bizi dira. Ospakizunak itxaron beharko badu ere, eguna ahalik eta hoberen pasa zuten. Zorionak bie!

Domisaindu egun berezia izan da aurtengoa

Kanpoan bizi diren herritarrek edo familikoek ezin izan zuten etorri Domisaindu egunean eta horrek egun honetan ohiko diren hainbat familia elkartze galarazi zituen. Halere, kanposantua lorez apainduta agertu da, joan direnak gogoratzen dituztela erakutsiz.



Lurramarik ezean laborantza herrikoia aldeko kanpaina

TTIPI-TTAPA

Lurrama eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara elkarteak elkarlanean ari dira laborantza sustatu eta garatzeko, Iparraldean. Departamentuko osagarri-egoerak eta konfinamenduak 2020ko Lurrama edizioa hunkitzen dute. Lurramarik ez da egingen aurtengoa.

Lurramara joango zutenek (bisitari, laguntzaile) eta bi elkarrekin sostengatzen duten laborantza herrikoia eredu defendatzen duten Lurramarekin duten atxikimendua erakusten ahaliko dute eta Euskal Herriko Laborantza Ganbararen ekintzak defenditzen ahaliko, dohaintza baten bidez.

Euskal Herriko Laborantza Ganbarak laborantza herrikoia garapeneren alde lan egiten du eta Euskal Herriko laborariak praktika agro-ekologikoak plantan ezartzen laguntzen ditu, landareen eta animalia ekoizpeneri buruzko formakuntza eta animazio teknikoak eskainiz.

Elkarteak laborantzaren plan-tatu nahi duten gazteak neurri onargarriko etxaldeetan instalatzen eta erretretara sartuko diren laborariak haien etxaldeak transmititzen laguntzen ditu. Laborantza-belaunaldien berritzea lurralde dinamika segurtatzeko giltza da.

Aurtengoa lehen oihartzuna emateko, *Biharko mundua*, *gaurko hautua*, eta diskurtso-ekintzetara pasatzeko, bakoitzak jarduera bat egin dezake beraien lanaren alde, gizakia eta natura errespetatzen dituen laborantza baten alde, kalitatezko elikadura baten alde. Kanpaina bat eramana izanen da zentzu hortara, azaro osoan. Informazio gehiago eta laguntza: www.ehlgbai.org.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen arretaren aldeko elkarretaratzea

Nafarroako Osasun Plataformak lehen arretaren alde egiteko elkarretaratzeak deitu zituen urriaren 28an. Urdazubin ere elkarretaratzea egin zuten. Bertan lehen arretaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuten.



Kategoria nagusian garaile izan zen Marc López jaurtiketa batean. UTZITAKOA

Sherpa.ai finaletik kanpo gelditu dira Rekondo eta Saralegi

Azaroaren 29an jokatzekoa da aizkolarari txapelketa nagusiko finala Bilboko Bilbao Arenan

TTIPI-TTAPA

Sherpa.ai Aizkolarari Txapelketa Nagusiaren sailkapen txanda jokatu zuten urriaren 24an Zestoan (Gipuzkoa). 260 ikusle elkartu ziren, segurtasun neurriak betez. Mikel Larrañaga azpeitiarra izan zen bizkorrena (18:46). Berarekin batera, azaroaren 29an Bilboko

Bilbao Arenan jokatu den finalerako Iker Vicente (19:31), Eneko Otaño (19:45), Julen Alberdi *Txikia IV.a* (19:51), Aitzol Atutxa (20:01) eta Jon Irazu (21:01) sailkatu ziren.

Finaletik kanpo gelditu ziren, aldiz, Jon Rekondo leitzarra (21:52), Ugaitz Mugertza (22:18). Jexus Mari Mujika

SHERPA.AI

EMAITZAK	
1. Mikel LARRAÑAGA	18.46
2. Iker VICENTE	19.31
3. Eneko OTAÑO	19.45
4. Julen Alberdi, TXIKIA IV.a	19.51
5. Aitzol ATUTXA	20.01
6. Jon IRAZU	21.01
7. Jon REKONDO	21.52
8. Ugaitz MUGERTZA	22.18
9. Jexus Mari MUJIKA	24.46
10. Ruben SARALEGI	25.01

Sei lehenbizikoak azaroaren 29ko Bilboko finalerako sailkatuak

(24:46) eta Ruben Saralegi leitzarra (25:01).

Finala azaroaren 29an Bilbon
Aipatu bezala, lehen aldiz antolatu den Sherpa.ai Aizkolarari Txapelketa Nagusiaren finala azaroaren 29an, eguerdiko hamabietan jokatu dute Bilboko Bilbao Arenan. Sailkatutako lehen mailako sei aizkolariez gain, bertze zortzi aizkolarik lehen mailarako promozioa lortzeko lehia izanen dute: Eneko Saralegi leitzarra eta Asier Pellejero aresoarra izanen dira eskualdeko ordezkariak eta beraiekin batera Larrea III.a, Corchero, Jauregi, Aratz Mugertza, Ioritz Gisasola *Zelai IV.a* eta Julen Kañamares ariko dira.

Aizkolarari nafarrik gabe jokatu dira hirugarren mailako azken kanporaketak

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko hirugarren mailako aizkolarari txapelketa-ko azken bi kanporaketak jokatu zituzten urriaren 24 eta 25ean Araban. Nafarroako konfinamendu egoeraren ondorioz, aizkolarari nafarrek (Beintza-Labaiengo Jon Telletxea eta Etxarri Aranazko Goizeder Belza aritzekoak ziren Agurainen, eta Berako Oier Larretxea, Arribeko Ibai Soroa eta Uharte-Arakilgo Iker Gorriti Aramaion) ez zuten parte hartzerik izan.

Kanporaketei dagokienez, Segoviako (Espainia) Alvaro Garciak eta Unai Otaegi gipuzkoarrak lortu zuten finalerako txartela Agurainen eta Aramaion, Arabako Luis Polancok eta Gipuzkoako Julen Aranberrik. Beraiekin batera, astebete lehenago txartela lortua zuten Arribeko Txomin Amundarain eta Leitzako Julen Olano ariko dira oraindik lekua eta data zehaztu gabeak dituen finalean.



JUAN MARI ONDIKOL

Baztan Futbol Taldea bakarrik lehian

Giltxaurdi futbol zelaiko atea itxita bada ere, lerro hauek idazterakoan eskualdeko kirol taldeen artean hirugarren mailan ari den Baztan Futbol taldea bakarrik ari da lehian. Argazkian ageri denez, zelaiaren kanpoko aldetik ikusten dituzte zale batzuek partidak.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Oinatz Bengoetxea buruz burukoan

Aimar Olaizola goizuetarra ez da ariko eta Oinatz Bengoetxea izanen da eskualdeko pilotari bakarra buruz burukoan. Leitzarrarekin batera, Baikoko Urrutikoetxea, Bakaikoa, Peña II.a, Agirre eta Aranguren, eta Aspeko Irribarria, Ezkurdia, Elezkano, Altuna, Jaka eta Dario ariko dira.

AGENDA

AZAROAK 12-26

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

SOLASALDIAK

ELIZONDO

'Soiltasunaren indar eraldatzailea'

Jorge Riechmannen eskutik.
Arizkunenean, azaroaren 14an,
12:00etan.

IRURITA

Amets Arzallus eta Ibrahima Balde

'Miñan' liburuaren aurkezpena.
Damaso Zabalza Gizarte
Bilgunean, azaroaren 14an,
18:00etan.

Frankismoaren esklaboak Artesia gako bidean

Gizarte bilgunean, azaroaren
21ean, 18:00etan.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Gontzal Mendibil

Arizkunenean, azaroaren 15ean,
19:00etan.

ARRAIOZ

Batzan kantuz

Plazatik abiatuz, azaroaren
15ean, 12:00etan.

ELIZONDO

'Bizitzaz gozatu' diskoaren aurkezpena

Arizkunenean, abenduaren 3an,
18:00etan.

TAILERRAK

EZKURRA

Adinekoen bizi kalitatea aztertzeko tailerrak

Iratxo ludotekan, abenduaren
2ra arte asteazkeneko,
11:00etatik 12:00etara.

AZOKA



UTZITAKOA

BERA Kafe Antzerki Zikloa

'ZuTuberrak' eta 'Ez dok hiru akustikoa' antzezlanak.
Azaroaren 22an eta 29an hurrenez hurren, kultur etxean.

LEITZA

Ekoizleen azoka

Frontoian eta eskola atariko
karpan, azaroaren 15ean,
10:00etatik 14:00etara.

ELIZONDO

Arropa eta objektu bilketa

Gaztetxean, ortziraletan,
18:00etatik 20:00etara.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE

Ipuinen txokoa

Haizea Loiraren eskutik.
Astearteko, 11:00etatik
12:00etara.

ELIZONDO

'Motxilaren umea'

Arizkunenean, azaroaren 20an,
17:00etan.

'Printzesa edo igela nire aukera'

Arizkunenean, azaroaren 26an,
17:00etan. Izen-ematea: 689 03
50 78.

IRURITA

'Ez dok ero'

Gizarte bilgunean, azaroaren
20an, 19:00etan.

'Birritan bortxatua' antzezlan

Gizarte bilgunean, azaroaren
22an, 19:00etan.

Bertso saioa

Gizarte bilgunean, azaroaren
28an, 18:00etan.

BERA

'ZuTuberrak' antzezlan

Kultur etxean, azaroaren 22an,
18:00etan. Sarrera: 3 euro.

'Ez dok hiru' akustikoa

Kultur etxean, azaroaren 29an,
18:00etan. Sarrera: 3 euro.

KIROLA

BAZTAN

Indarkeria matxistaren kontrako bizikleta martxa

Azaroaren 25ean.

LEHIAKETAK

LESACA

Ipuin lehiaketa

Lehen Hezkuntzako 3.mailatik 6.
mailara bitartekoentzat.
Azaroaren 20ra arte.

LEITZA

Itzaire haur eskolako logoa aldatzeko lehiaketa

Abenduaren 1era arte,
udaletxean edo haur eskolan.

GOIZUETA-ARANO

Zaintza pandemia garaian

Azaroaren 12ra arte,
lagatratuonak@gmail.com
helbidean.

IKASTAROA

BORTZIRIAK

Euskaraldiaren bigarren ediziorako online formakuntza

Azaroaren 10ean (11:00-12:00),
11n (19:00-20:00) eta 13an
(17:00-18:00).

Nire aukera

«Zorioneko eta zorteko sentitzen naiz Txorieneko familian»

JAIONE MARIEZCURRENA LOPEZ LEITZARRA



Leitzarra da sortzez eta bihotzez, baina aspaldian herritik kanpo bizi da Jaione Mariezcurrena (Leitza, 1981): «16 urterekin alde egin nuen eta ondoren Amezketako baserri batera ezkondu nintzen».

Herriatik kanpo egin du bere habia: «goizean goiz jaiki eta hiru umeen atzetik ibiltzen naiz, etxe inguruko lanetan eta baratzean...». Tarte libreetan «eskulanak egitea eta margotzea» du gustuko. Badu, denbora faltagatik, alde batera utzi duen eta oraindik probatu gabe duen arlorik ere: «mendia utzia dut eta buztina lantzen ikasi nahiko nuke».

Erredakziotik pantailara

Egunerokoarekin eta zaletasunekin lotuta, leitzarrek telebista du azken urteetan ogibide. EITBko Txoriene telebista saioan lau urte daramatza, burua eta eskuak horren gustuko duen sukaldaritzari lotuta: «Zigor lehendik ezagutzen nuen eta probatzeko proposamena egin zidan. Halaxe hasi nintzen,

gidoilari lanetan eta hiru denboraldiz horretan aritu naiz». Laugarrena du aurtengoa eta berezia izaten ari da, kamera aurrean egotea egokitu baitzaio: «gogotsu eta dudaz josita eman dut pausoa».

Hasieratik taldearen babesa sumatu du eta horri esker, «eroso» sentitu da: «famiilatxo bat gara, elkarri asko laguntzen diogu. Orain arte lau izan gara eta orain bost gara. Zorteko eta zorioneko sentitu naiz eta gurekin hasi den Mirari lankidea ere hala sentitzea espero dut».

Sukaldaritzaz letasun eta ogibide

Lehendik ere jendaurrean ari-tua da Mariezcurrena: «Aurreko hamarkadan Leitza antzerkia egin nuen. Telebistarekin

«TABERNETARA JOATEAN PINTXOAK NOLA EGIN DITUZTEN BEGIRATZEN DUT»

ez du lotura zuzenik ere... Horrez gain, casting batzuk egin izan ditut eta Goenkalen parte-hartze txiki-txiki batzuk ere egin nituen».

Mundu hori utzita zuela berriz ere sartzeko aukera izan zuen eta ezin izan zion uko egin. Izan ere, «sukaldaritzari betidanik pasioa izan da... Taberna batera joan eta pintxoak edo platerak nola eginda dauden asmatzen saiatzen naiz, etxean egiteko». Urte luzez ostalaritzan lan egin da leitzarra eta «ekialdeko medikuntza, naturopatia eta elikadura» alorreko formakuntzak jaso ditu. Osasuntsu egoteko osasungarria denari begira ibili izan da.

Ikasketen eta jendaurreko esperientziaren uztartzeak eraman du Txoriene saioan hasi berri duten etapa horretara: «ohitzen ari naiz. Elkarriketa batean murgiltzen zarenean, Zigor bezalako hiltun batekin, zaila da kame-rez oroitzea. Aldi berean, zaila da buruari hitzak erraz ateratzen uzteko agintzea...». Hala ere, duen laguntzari esker, ikasten ari da.

Errezeta ugari

Hasieran «osagai bat hartu eta bakoitzak bere bertsioa, bere platera, egiteko asmoa» zuten baina oraingoan, elkar laguntzen eta erronkak paratzen ari dira. Batzuetan bere errezetak eta besteetan Zigorrenak egingen dituzte eta momentuz ideia eskasiarik ez dute: «osagaiak, interesa eta jateko gogoia mugagabea da».

Bakoitza bere estilotik, ederki moldatzen dira: «Zigorrek errezetaren oinarria tradizio-nalagoa izan arren, abangoar-

distago edo itxurosoago egiteko dohaina du: atonketan, apainketan... Teknikak eta gehiago ezagutzen ditu».

Astelehenetik ostiralera

Bien onena ikusiz ikasteko aukera izanen dute ikusleek eta, denen gustua asetzeko, gisa guztietako platerak egingen dituzte: «astelehen alda-patsuari aurre egiteko gozogintzarekin lotutako saioa izanen dugu; astearteetan baratze kontuak, garaiko eta sasoiako produktuak izanen ditugu oinarri». Asteazkenak kutxazkena izanen dira: «Zigorrek kutxa batean osagai batzuk izanen ditu, nik jarriko dizkiot eta berak ez du zer dagoen jakinen. Horrekin batera, gai bat emanen diot, pertsona eta egoera bat hartzerara behartuz». Ostegunetan «errezeta liburuetatik ateratako errezetak» kozinatuko dituzte, eta «helburua jendea herriko liburutegietan errezeta liburua hartzerara» animatzea izanen da. Azkenik, ostiraletan «astebururako gutziak» izanen dira, baita bestelakoak ere.

Gustukoenak asteazkenak eta ostiralak ditu: «asteazkenak bereziki, bai osagaiak baita giroa ere prestatzen dudalako. Hala ere ostiraletako gutziak ere gustuko ditut».

Esker onak

Hasiberri duen «erronka» hau «autokonfiantza garatzeko» baliatu nahi du leitzar sukaldariak: «beti erosotasunari begiratuko bagenio ez ginateke askorik mugituko eta, etorkizunean, atzera begiratzen dudanean, hor izanen da». Oroitzapenen saskian izanen du Txoriene. Eta hori, hein handi batean, bertan eratu-tako «famiilatxoari zor» dionez, ez ditu eskerrak eman gabe utzi nahi izan: «eskerrik asko zuzendariari, Zigorri, Alex Bilbaori, erredakzio laguntzailari, Mirariri eta talde osoari».

«ASTEAZKENETAKO SAIOETAN GIRO BEREZIA IZATEN DUGU»

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

LABAIEN. Zaharberritzeko dagoen baserria eta eraiki berria den etxea salgai, bizitzeko prest. 19.000 m²ko lur eremuarekin. Eguzkitsua eta bista ederrekin. ☎630 23 50 64.

LESAKA. Etxe ederra salgai. 5 logela, 3 komun, sukalde ederra, egurrezko tximiniarekin. Garaje, txoko eta lorategia haundiak. Eskaintzak aditzeko prest. ☎609 47 72 77.

ELIZONDO. Pisu eguzkitsua salgai. Sukaldea, egongela, 3 logela, bainugela, trastelekua eta balkoi ederrekin. Hegoaldera begira. ☎693 69 49 76.

ERRENTAN EMATEKO

AZKAINE. 85 m²ko etxe bat errentan emateko, baratze batekin. 850 euro hilabetea. Xehetasunak: azkaine_lapurdi@gmail.com.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. 150 m²ko pabiloia salgai. 130.000 eurotan. ☎648 26 56 63.

LANA

ESKANTZAK

BERA. San Jose zahar etxean erizain bat behar dute, lanaldi osoan. Eri-zaintza gradua edo diplomatura duena, euskaraz jakitea eta geriatrian aritua izatea baloratuko dute. Hasieran urtebeteko kontratua, gero mugagabea egiteko aukerarekin. Deitu edo bidali CVak: resibera@laresnavarra.org. ☎948 63 01 04 (Amaia).

ESKARIAK

BERA. Beran bizi den Lur lan bila. Sukaldari ona eta esperientzia pertsonak zaintzen. Autoa duena. ☎644 21 98 44.

GOIZUETA. Orduka etxeak garbitzen edo adineko jendea zaintzen lan egiteko prest. ☎618 96 18 04.

LEITZA eta GOIZUETA inguruan lan bila. Etxeak garbitzen, adinekoak zaindu, abereen lanak egiten lagundu... ☎690 98 61 18.

BAZTAN-BORTZIRIAK aldean jubilatze dagoen bat baserri huts batean bizitzeko prest mantentze-lanak egitearen truk. Esperientziaduna eta ikastaroak eginak: mantentze-lanak, lorezaintza... ☎688 89 52 06.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

Jatorriz amerikarra den neska batek **ingeleseko** mintzapraktika eta gra-

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Irargarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

matika **eskolak** ematen ditu **online**. Ordenagailu bidez, Skypez, ematen ditu. Bidali mezua Whatsapp bidez. ☎640 65 04 22.

DENETARIK

SALEROSKETAK



90 cm-ko **bi ohatze** eta **armairua** salgai. Ohatze bakoitza 300 eurotan eta armairua 150 eurotan.. ☎673 54 87 67.

BERA. Bi piezatak zurr trinkoko arasa eta zurr trinkoko mahai zabal-



garria (8 pertsonentzat zabal daiteke) sei aukirekin salgai. Arasa 1.200 eurotan eta mahaia 2.000 eurotan. Egoera onean. ☎681 22 59 17.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

LESAKA. Urte eta erdiko Border Collie arrazako zakur umea oparitzeko, hagitz xuabea eta alaia eta txerto guztiak jarrita. ☎610 62 57 65.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,07
- 1.koa 3,93
- 2.koa 3,79

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,09
- 1.koa 4,04
- 2.koa 3,82

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,26/3,36
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,20/8,60
- 8-10 kilokoak: 5,80/6,20

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 35 €

Zerri gizona 1,296 €

Zerramak 0,400€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua urriaren 9tik 16ra bitarteko prezioak)

ZERBITZUAK

ZURGINDEGIAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

MOTORRAK

TAILERRAK



BERAKO UDALA

HIRI-JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA HASIERA BATEAN ONESTEA

Berako Udaleko Alkateak, urriaren 19an emandako 209/2020 Ebazpenaren bitartez, erabaki zuen 4. poligonoko 168., 170., 208., 233., 236., 248., eta 249. partzelen eta 17., 189. eta 243. partzelen zati baten (Ibardin) Hiri-jarduketarako Plan Berezia hasiera batean onestea eta espedientearen jendaurrean jartzea hilabete bateko epean, dago-kion iragarkia NAOn argitara ematen denetik hasita.

Bera, 2020-10-30
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

URTEBETETZEAK



Sunbillako **Ixone Muñoz Arretxeak** azaroaren 1ean 2 urte bete ditu. Aunitz urtez familiaren eta bereziki Amana, Oier, Maiane, Argia eta Andoniren partetik.



Berako **Oihane Almandoz Tapiak** 9 urte bete ditu azaroaren 2an. Zorionak etxeko partetik. Muxuak!



Donamariako **Oinatz Ariztegi** 4 urte beteko ditu azaroaren 25ean. Aunitz urtez Egoi eta familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat, bitxo!



Leitzako **Izargi Mariezkurrenak** 4 urte beteko ditu azaroaren 19an. Muxu haundi bat June, Lide eta Haizederren partetik! Zorionak printzesa!



Ramon Alzugarai Contreras azaroaren 15ean urtea beteko du. Zorionak Almandozko ataxi, amaxi eta osabaren partetik.



Nahia Salaberri Alonsok azaroaren 26an urteak beteko ditu. Zorionak Doneztebeko ataxi, amaxi, osaba, izeba eta etxeko partetik. Muxu haundi bat!



Izar eta June Apeztegia Ariztegi lau urte beteko dituzte azaroaren 11n. Aunitz urtez eta muxu haundi bana familia guztiaren partetik.



Berako **Nahia Gomez Ribeiro** 8 urte beteko ditu azaroaren 18an. Zorionak familiaren eta bereziki Sararen partetik. Muxuak.



Berako **Ioritz Tapiak eta Oihane Almandoz** urriaren 22an eta azaroaren 2an urteak bete dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik, bereziki Aimarren partetik. Muxuak.



Lesakako **Unax Zelaieta** 3 urte bete ditu azaroaren 6an. Zorionak eta muxu haundi bat atxa, ama era bereziki Hegoiren partetik, txapeldun!!



Lesakako **Ainhoa Goienetxe Zubietak** zazpi urte beteko ditu azaroaren 15ean. Ahal den heinean, eguna kontu kontari eta kantu kantari ospatuko dugu.



Unax Zelaieta Urriza lesakarrak 3 urte bete ditu azaroaren 6an. Zorionak eta muxu asko Oiztik gure aingerutxoarentzat.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPA!

Internetez: <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.

Bulegora etorrira:

Etor zaitez Ttipi-Ttaporen bulegora: Koskontako bidea, 7-1, 31770 LESAKA.

EGUTEGIAK 2021

hainbat formatutako egutegiak egiten ditugu



TTIPI-TTAPA · Koskontako bidea, 7 · 31760 LESAKA
Tel.: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com

KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

OROIGARRIA

**Antton
UITZI LUJANBIO**

Goizuetan, 2020ko azaroaren 2an

Zenbat manifa, zenbat partidu,
zenbat otordu ta trago!
Antton, hirekin galdu diagu
lagun bat baino gehiago.



HIRE KOADRILLA

URTEURRENA



Klarita-Emili

Azpilkuetan, 2019ko azaroaren 22an
I. urteurrena



Zuetaz oroitzeko ez dugulako egun berezirik behar.
Egunero eta nonahi gogoan zaituztegelako.

Maite datzuegu!

ZUEN FAMILIA

OROIGARRIA

**Sebastian
UBIRIA TELLETXEA**

Lesakan, 1921/12/17 - 2020/09/29

Ezagutu zintugun guztion
bizipoza izan zinen,
Zure irriaren oroitzapena
beti gure gogoan izanen dugu.
Inoiz ez dugu ahaztuko
zuk emandakoa.
Negarrik ez,
agurrik ez,
muxu bat.

ZURE FAMILIA



URTEURRENA

**Jose Angel
ALZUGUREN PERURENA
Kotto**

Beran, 1966/03/03 - Sorian, 2005/10/31
XV. urteurrena

Izan zirelako gara
Garelako izanen dira.
Guretzat eta Euskal Herriarentzat
betiko argia.



ETXEKOAK

OROIGARRIA

**Dionisio MUJICA ARRUE
Lizume**

Lesakan hil zen 2020ko azaroaren 1ean

Bertsoz ureztatuak
dituzu txokoak
toberaz eta doinuz
hornitutakoak,
indarrez euskararen
aldeko saltoak
jarraitzen hasiz eman
zenitun pausoak.
Ea izaten dakigun
zure neurrikoak!

ETXEKOAK

Egun gogor hauetan gurekin izan zareten guziet, mila esker!



OROIGARRIA

**Roberto
ETXEBESTE ARIZTOI**

Iturenen, 2020ko urriaren 7an hil zen,
49 urte zituela

Umerez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin
eta oroitzapen horiek
beti geldituko dira gurekin.

ETXEKOAK

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Ameztia, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritarra

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70



BAZTAN
BIDASOA

Heriotza Zerbitzuak

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERA San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

SORTZEAK

- **Beñat Portu Iraizoz**, Artazkozkua, urriaren 18an.
- **Selena Maria Berende**, Doneztebeko, urriaren 15ean.
- **Joel Garazo San Sebastian**, Sunbillakoa, urriaren 26an.

EZKONTZAK

- **Patxi Augusto Fariñas** eta **Francisca Garcia Fernandez**, Berakoa eta Malagakoa, urriaren 24an Etxalarren.

HILBERRIAK

- **Maria Salaberria Salaberria**, Goizuetakoa, urriaren 21ean, 98 urte zituela.
- **Indalecia Diez Alvarez**, Elizondokoa, urriaren 22an.
- **Mateo Gamio Aleman**, Arraiozkua, urriaren 25ean, 82 urte zituela.
- **Victoria Fagoaga Goia**, Iruritakoa, urriaren 30ean, 89 urte zituela.
- **Felisa Narbarte Petrikorena**, Arano, urriaren 31n, 91 urte zituela.
- **Dionisio Mujika Arrue**, Lesakakoa, azaroaren 1ean, 84 urte zituela.
- **Antton Uitzi Lujanbio**, Goizuetakoa, azaroaren 2an, 77 urte zituela.



BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Mulerrekan

Hurbiltasuna eta begirunea

IZARRA
HERRIEN, GURE ERREDONEN
ADIMEN, AITU LINDO

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com


ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**

Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

KONTATU KONTUAK



Baztanen Euskaraldiari begira. Euskaraldia sustatzeko asmoz Baztango herritarrek euskaraldiko hizkiekin argazki bat atera eta sare sozialetan partekatzeari ekin diote. Irudietan Lekarozen, Eilzondon, Berroetan eta Iruritan ateratako argazkiak.



Oihan Vega Etxalarren. Etxalarko euskara batzordeak antolatuta, urriaren 24an *Euskañolitis* bakarrikzeta eskaini zuen Oihan Vegak Etxalarko kultur etxean. Dozena bat lagun elkartu ziren bakarrikzetaz gozatzeraz.

Ttiti Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

769 aleko
irabazleak ➤



ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Juan Barberena Agerrebere | ELIZONDO
Onddo Ta Punto - Kamiseta bat
Gabriel Sarategi Arribillaga | LEITZA
Okille - Eguzkilore bat
Aitziber Iribarren Baleztena | DONEZTEBE
Galaxy Park - 2 sarrera
Aitziber Ubiria Santesteban | LESAKA
Irisarri - 2 sarrera
Maite Goia Etxebeste | BERA
Lesakako kiroldegia - 2 sarrera
Ainara Aranburu Madariaga | LEGASA
Ibaizabal - lote bat
Ainara Mariezkurrena Salaberri | ORONDOZ-MUGAIRI
Ibaizabal - lote bat
Clemente Suhas Sansiñena | URDAZUBI

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

BAZTAN ESCAPE ROOM

www.baztanescaperoom.com



Sarrerak

KARTING INDOOR IRUN

www.kartingindoorirun.com



Sarrera bat

BKZ ABENTURA

www.navarraaventura.com



2 sarrera

ZUGARRAMURDIKO LEZEAK

www.turismozugarramurdi.com



2 sarrera

LI BU RU AK



• Rosa itzuli da
• Nur



• Mesfidatu hitzez
• Altzoko handia



www.erein.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.kartingindoorirun.com



www.buatxabal.eu